

ANUARIO  
DEL  
SEMINARIO DE FILOLOGIA VASCA  
«JULIO DE URQUIJO»  
XVIII - 2  
1984



Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa  
DONOSTIA - SAN SEBASTIAN

Anuario del Seminario de Filología Vasca  
«Julio de Urquijo»

XVIII - 2, 1984



Sumario :

	<u>Página</u>
FRANTZISKO ONDARRA, <i>Zegamako Doctrina Christiana</i> (1741)	3
PETER BAKKER, <i>The order of affixes in the Basque synthetic verb</i>	63
JOSEBA ANDONI LAKARRA, <i>Bertso Bizkaitarrak</i> (1688)	89
LUIS MURUGARREN, <i>Una plática del Goyerri</i>	185
MANUEL AGUD, <i>Contribución al Diccionario Etimológico Vasco</i>	199
LUIS MARÍA MUJICA, <i>XVIII mendeko lirikaren alde lite- rario zenbait</i>	211
L. MICHELENA, <i>Lingüística inmanente y lingüística trascen- dente</i>	249

Este Anuario aparece en uno o dos fascículos anuales. En él se publicarán trabajos sobre temas de filología y lingüística vascas y también sobre cuestiones lingüísticas relacionadas.

Dirección: Manuel Agud y Luis Michelena.

Redacción y Administración: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo».

Excmo. Diputación Foral de Guipúzcoa.

Palacio Provincial.

DONOSTIA - SAN SEBASTIAN.

ANUARIO  
DEL  
SEMINARIO DE FILOLOGIA VASCA  
«JULIO DE URQUIJO»

XVIII - 2

1984



Excmo. Diputación Foral de Guipúzcoa  
DONOSTIA - SAN SEBASTIAN

**ISBN: 84-600-2992-1**

**Depósito Legal S. S. 400 - 1967**

---

**Impreso en Gráficas Echeverría - Easo, 47 - San Sebastián 1984**

**Zegamako  
DOCTRINA CHRISTIANA (1741)**

**Frantzisko Ondarra**



## ZEGAMAKO DOCTRINA CHRISTIANA (1741)

FRANTZISKO ONDARRA

### SARRERA

Hemen ikus dezakezuen Kristau Ikasbide hau Iraizozko Polikarpo Aitak izan zuen; nork emana eta nondik etorria zen ez zekiela. Bertaz hitz egin genuen EUSKERA aldizkarian<sup>1</sup>, aurkezpen gisa.

Esku-idatziak 68 orri ditu, aurreko aldetik bakarrik zenbatuak. Bukaeran bi orri edo falta direla uste dugu, horietako batean aurkibidea zegoelarik. Honela irakurtzen dugu 1. orrialdean, barruko bazterrean behetik gora idatzirik: «(En el) indice que al fin tiene, se reconocerá lo que contiene». Badaiteke asieran ere beste orriren bat faltatzea, zenbatu gabea, liburuaren izena edo horrelako zenbaitekin. Orrien luzera-zabalera hau da: ca. 204 x ca. 150 mm. Zenbait orriren puntak hautsi egin eta falta dira.

Letra haundiz dago idatzia. Bete-beterik dauden orrialdeek hamasei lerro hartzen dituzte, eta lerro luzeenak 32 bat letra ditu.

#### *Nork idatzia*

Ez dakigu nork idatzia den. Hala ere, uste dugu *Martin de Urteaga* daitekeela izan egilea. «Martin de Urteaga», «1741» eta errubrika bat ageri dira 25. orrialdean, denak esku batek eta tinta berdinaz idatziak, uste dugunez. Bere izena idaztean erabiltzen dituen letrak edo horien antzekoak ageri dira liburuan zehar, doktrinaren zati bakoitzaren izenburua edo tituloa ipintzen duenean.

(1) Francisco ONDARRA, *Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharraren aurkezpena*, Euskeria, 1981, 633-649.

Bestalde, *Urteaga* deitura duten zenbait pertsonen izenak ikus daitezke orrialdeen bazterretan: «Jph Juaquin de Vrteaga de 1780» (2. orrialdean); «Jose Lorenzo de Vrteaga» (4); «Agustin Matias de Vrteaga» (4at.); «Jose Agustin de Vrteaga» (31); «Joseph de Vrteaga el Sobrino» (55at.); «D<sup>r</sup> D<sup>r</sup> Martin ygnacio de Vrteaga (...) Procurador Amigo mio y Señor» (6); «d Mrn Ygnacio de Vrteaga» (10); «Martin ygnacio de Vrteaga (eta errubrika) muchas veses me estado halla comprando Rogativas» (27); «Mrn Ygn.<sup>o</sup> de Vrteaga» eta «Martin ygnacio de Vrteaga» (19); «Es la doc Dctr X Cht.<sup>na</sup> de Mrn Ygn.<sup>o</sup>»<sup>3</sup> (55at.).

Azkeneko hau ere, *Martin Ignazio de Urteaga*, daiteke izan egi-lea, pasarte hori kontutan hartzen badugu.

Beste izenik ere ageri da. «D.<sup>n</sup> Martin de Olaran» (5at.; 19; 23; 33) edo «D.<sup>n</sup> Martin de Olarran» (19); «Juan Bautista de Lasa» (8); «Phelipe Santiago de Gaynza» (13); «Lorenzio (sic -zio) de Gauilondo» (44); «D.<sup>n</sup> Juan Antonio de Larra» (64); «Juan Jose yguarran» (sic -rr.) (65 at.); «Baptista de Ynssausti» (66at.); «Josepa» (67at.). Maisu baten izena ere badakigu: «Buen Mro que es dho Manuel de Arrieta/ 1741 me estuvo (sic -o) halla con aquel aora es Vr(tea)ga»<sup>4</sup> (1), eta «D.<sup>n</sup> Manuel de Arrieta Mro» (15).

### *Nondik nora ibilia*

Herri izenak ere ageri dira, gehienak kaligrafia ariketak edo. «Cegamaco Escolan» irakurtzen dugu 11. orrialdean; baita ere *Ola-berria*: «Bere adisquide Agustin Matias de Vrteaga Olarria (sic)» (11at.); «Por Decir Jose Agustin de Vrteaga año de 1840 En Olave-rria» (12); eta «Vrteaga en olaberia (sic) tanbien» (58).

Pentsa daiteke gure doktrinaren ale hau Zegamatik Olaberriarra joan zela, eta hori XVIII. mendearen bertan edo XIX. mendearen asieran gertatu zela. Aipatu ditugun lehenbiziko eta hirugarren adibideak garai horretakoak dira; bigarrena, berriz, XIX. mendeko grafiaz dago idatzirik, bertan aipatzen den urteari dagokion bezala.

(2) Orrialdearen zatia hautsirik dago eta ezin da irakurri hor zegoena.

(3) Esku batek «Es la doc Dctr X Cht.<sup>na</sup>.» eta beste batek «de Mrn Ygn.<sup>o</sup>» ote? Ezin dugu esan, ez ukatu ere.

(4) Hautsirik puska bat hemen, hiru bat letra hartzen dituela.

Zenbait urte ere izendatzen dira. Hala, «Cegamaco Escolan... eracustendan moduan milla, zazpireun, eta berroguey, eta batgarren vrtean» (11); «1741» eta «Martin de Vrteaga» (25); «Jph Juaquin de Vrteaga de 1780» (2); «Año de 1781 Joseph Juaquin de Vrteaga» (17; 34; 53); «1782 Años Joseph Lorenzo de Vrteaga» (6); «Por Decir Jose Agustin de Vrteaga año de 1840 En Olaverria» (12); «Año 1843 año 14 (gero ezabatzen du 14 hau) Jose Agustin de Vrteaga» (31).

Beraz, asi 1741. urtetik eta 1843. urtea urte, *Vrteaga* deitura duen familia batek gorde izan du ale hau. Familia hori XIX. mendean Olaberrian bizi zen, Zegamatik oso gertu dagoen herrian. Nola ailegatu zen Lekarozera, ez dakigu; bainan badaiteke Olaberriatik etortzea. Eskuidatziaren barruan badago kartulinazko fitxa bat, honako hitz hauek erakusten dituena inprimaturik: «Envío de JOSE URTEAGA/ OLAVERRÍA. (Guipúzcoa)/ Continen». Fitxa edo txartel hori gure garai hauetako gauza bat da.

### *Noiz idatzia*

Guk daukagun ale hau 1741. urtean izan zen aldatua —itzulia ere bai ote?—. Honela irakurtzen dugu: «Doctrina Christianaren explicacioa Cegamaco Escolan (Gaztelinaz ostean) eracustendan moduan, milla, zazpireun, eta berroguey, eta batgarren vrtean» (11).

*Juan de Irazuzta*-ren itzulpenaren lehengo argitaldia, dakigunez, 1739. urtekoa delarik, badaiteke Zegamakoa zaharragoa izatea.

### *Bazterretan euskaraz*

Orrialdeen bazterretan euskarazko zenbait pasarte ageri dira. Hola, «Bere adis quide Agustin Matias de Vrteaga Olarria» (11at.); «Consideratu beardegu Munduan Nolaguertatuko gueraren Errio (sic -rr-) zaco<sup>5</sup> orduan» (51); bigarren pasartearen egileak berak beste hau ere idatzi du: «Eta bildura (sic -r-) beti beardegu egon Ceruageugana»<sup>6</sup> (57); beste batek, hemeretzigarren mendeian honek, hau utzi digu: «Sacerdote Jounac (sic Jo-) consagan (sic)» (56at.).

(5) *Errio eta zaco* bi hitz balira bezala daude idatzirik.

(6) Hola ipintzen du, dena batean eta «geugana».

## *Idazkera*

Zenbait puntu ematen ditugu hemen.

*h*-. Asieran ez da ageri euskal jatorrizko hitzetan.

-*h*-. Hitzen barruan ageri da noizean behin: «onahi» (6at.); gaiztoahi» (6at.); «jahi» (7); «ohec» (5); «ahin» (61); «bahi» (15; etab.); «Oguehi» (30at.); «Berroguehi garren» (34) —eta «berroguey» (11)—; «ohostutcea» (4) —eta «ostutcea» (48)—; «lehen» (22) eta «leen» (6).

*cedilla* delakoa behin bakarrik aurkitu dugu: «baçuec» (27at.)

-*tt*-. Bi aldiz aurkitu dugu: «Santteari» (36at.) eta «pottenciac» (67at.).

-*cc*-. Ia beti horrela «peccatu» hitza.

*v*-. Beti hola asierako *u*, eta horrela «vrtean» (7), etab.

-*u*-. Behin bakarrik aurkitu dugu, -*v*- ipini beharrean: «reuela-tcen» (36at.).

-*c*-. Askotan, -*tc*- idatzi beharrean: «sarcean» (14at.); «enzuten» (46at.).

-*tc*-. Askotan, -*c*- idatzi beharrean: «itcenea» (1); «itzan» (3at.); «gotzatcea» (21); «atci» (60at.); «etcin» 'ezin' (18); «betcela» (21at.) —eta «vecela» (lat.) edo «becela» (4at.)—; etab.

-*x*-. Hemen aurkitzen: «dixoaz» 'doaz' (66).

## *Fonetika*

Ez dakigu behin baino gehiagotan grafia arazoa ez ote den; bainan hala ere hemen aipatzen ditugu zenbait fenomenu, fonetikarekin zer ikusirik izan dezaketelako. Beste zenbaitek badutela ikustekorik, dudarik ez dago.

-*s/ts*-. Noizean behin, -*ts*- erabiltzen du -*s*- ipini beharrean: «jatso» (42at.; 57; 58); «etsan» (12at.; etab.). Baita ere -*s*-, -*ts*- jarri beharrean: «otsoa» 'oso' (46at.).

-*z/tz*-. Noizean behin bata bestearen ordez erabiltzen: «bazuec» (27at.) eta «batzuec» (44); «sarcean» (14at.); «enzuten» (46at.); «atci» (60at.); «etcen» (partikula) (64at.); etab.

-s/z-. Aurki daiteke -z-, -s- eta -tz- erabili beharrean: «escondutahi» (60); «ensuten» (46at.), baina «enzutea» (7) eta «enzuteagatic» (54at.; 55).

-s/ss-. Noizean behin, -ss: «confessatcea» (7; 10; 54); «professatu» (13).

-z/ss-. Hemen «Messa» 'meza' (46at.) aurkitzen dugu.

k/ g-. Hemen, «corputz» (21at.; etab.) eta «cruce» (1; 13; etab.).

t/ d-. Hemen, «tempora» (15; etab.).

v-. Hemen, «Viotz» (10); «vici» (11at.; etab.): grafia arazoa, noski.

### *Morfología*

Bizkaierarekin zer ikusirik dutela uste ditugun zenbait fenomenu aipatzen ditugu, batez ere.

-ea. Hitzaren bukaera, berez, -a denean gertatzen da hau: «Aitearen» (1); «catholiquea» (2at.); «dulzurea» (3); «clementissimea» (3at.); «Santea» (3at); «honrari» (3at.); «Virginea» (6); «Doctrina christianeac» (15at.); «esperancea» (50).

-t/tz-. Aditz izenetan -tz- ipini beharrean, -t- ageri da: «erorten» (1at.); «erortea» (42); «ecartea» (54); baina «irtecean» (14at.).

-tu/du-. Partizipioan, -tu ipini beharrean -du ikusten da: «vencidu» (15) eta «vencitu» (61at.); «partidu» (13at.); «redemidu» (13); «salvadu» (30) eta «salvatu» (38); «salutadu» (43); «sepultadua» (2at.); «resucitadu» (6) «resucitatu» (35); «recepitu» (sic) (15at.; etab.).

-b. Zenbait hitzetan, berez -au edo -eu diptongoak dituztenetan beren bukaeran, b paragojiko bat ageri da: «laub» (15at.); «ama-laub» (5); «aub» (3at.; 6at.; etab.); «Christauba» (12at.) eta «Christaua» (12at.); «ardauba» (58); «deub» 'du' (12at.; etab.).

*Erakusleak.* Hona hemen: *aub* (3at.; etab.), *onec* (45at.), *o(h)ec* (5; 5at.; 49; etab.); *ori* (15), «orregan» (10at.), *oriec* (3; 15; etab.); *vra* (12; etab.), *arc* (32; 42at.), *ahec* (57; etab.).

*Deklinabidea.* Zenbait jokoren adibideak ipintzen ditugu bakanrik. *Datibo plurala:* «diradenahi» (24at.), «proximoay» (65); *geni-*

*tibo edutezko singularea*: «santuaren» (6); *idem plurala*: «illan» 'illen' (2at.), «Santuán» (2at.; 32at.; etab.); *instrumentala*: «itcez» (53), «itzas» (sic -s) (47at.), «deseoaz» (47at.), «oguiazaz» (57); *soziatibo singularea*: «propioarequin» (34), «graciarequi» (sic -qui) (50); *idem plurala*: «gutciapiro» (17at.), «justoaequin» (34); *motiboa*: «peccatariacgatic» (2), «illac gatic» (8), «ceinzuecgatic» (37at.); *destinatibo plurala*: «animanzat» (32at.); *adlatibo bukatuzkoa*: «illzaneraño» (33); *inesiboa*: «Jaungoicoagan» (21at.); *ablatiboa*: «Virgineagandic» (2), «Virginagandic» (6); *adlatiboa*: «Jaungoicoagana» (39at.).

*Aditz laguntzailea*. Agintaldian eta subjuntibozko orainaldian, *nor nori nork adizkietan*, *egin* erabiltzen da laguntzaile bezala: «Barca eguzcuzu» (1) eta «Barca eguzguzu» (41at.); «barca de guigula» (41at.). Bizkaierazko forma propioak dira horiek.

Bizkaierazkoak dira ere, edo bizkaieraren antza dute *adizki* hauek: «deub» 'du' (12at.; etab.) eta hortik «debanean» (7), «debala» (11at.); «zeban» 'zuen' (2at.) (34: *igo* aditzarekin); «zebean» 'zuten' (31; 52at.); «nabela» 'nautela' (63at.); «baguinduz» 'bage-nitu' (51).

### Sintasia

*-na/la*. Perpaus konpletiboetan bi atzizki horiek ager daitezke: «sinistu igocebala ceruetara, eta dagoala jarriric...» (6at.), «sinistu etorricodala» (6at.); eta «Sinistu Aiteadana» (5), «sinistu Semeadana» (5).

### Hiztegia

Barra-barra hartzen ditu hitzak erdaratik, behar denean eta ez denean. Zenbait hitz jakingarri eta esangurako ipintzen ditugu: *ardaub* 'ardo' (58), «Asencio eguna» (34), *bequin* 'bezain' (51), *balur* 'barur' (7at.; 59at.); *bider* 'aldi' (14at.); *domeca* 'igande' (7); «Maria Ama andrea» 'Ama Birjina' (27; 64at.).

## *Adizkiak*

Aurkitu ditugun guziak ipintzen ditugu<sup>7</sup>.

<i>baginduz</i> 'bagenu' (51)	<i>det</i> 'dut' (2; 63at.)
<i>(batzenduka)</i> 'bazeneuka' (64at.)	<i>Ik.</i> «deran» (63at.) eta «dedala» (9at.)
<i>betor</i> 'betor' ('vetor' 1; 40at.)	
<i>bidi</i> 'bedi' (1; 40at.)	<i>deub</i> 'du' (12at.; etab.)
<i>da</i> 'da' (lat.; 2at.)	<i>Ik.</i> «deban» (15at.), «debala» (22at.), «debela» (35)
<i>daduka</i> 'dauka' (20at.)	<i>dezagun</i> 'dezagun' (17at.)
<i>(daduzka)</i> 'dauzka' (63)	<i>(dezake)</i> 'dezake' (60at.)
<i>dago</i> 'dago' (2at.; 43at.)	<i>(dezazun)</i> 'dezazun' (9at.)
<i>(daki)</i> 'daki' (7at.)	<i>dezean</i> 'dezaten' (44)
<i>dakigun</i> 'dakigun' (55at.)	<i>dezu</i> 'dezu' (12at.)
<i>dakion</i> 'dakion' (53at.)	<i>die</i> 'die' (35at.)
<i>(date)</i> 'daiteke' ('aldatean aundiana» 52at.)	<i>diegu</i> 'diegu' (43at.)
<i>(dator)</i> 'dator' (20)	<i>diezu</i> 'diezu' (43at.)
<i>(daude)</i> 'daude' (15)	<i>(digu)</i> 'digu' (46at.)
<i>(dauka)</i> 'dauka' (8at.; 35)	<i>(digue)</i> 'digute' (41at.)
<i>dauke</i> 'dauka' (15; 56; etab.)	<i>(dijoia)</i> 'doa' (14at.)
<i>daukea</i> 'daukate' (52at.)	<i>Ik.</i> «dixoaz» (66)
<i>Ik. debea, decean, zatea, etab.</i>	<i>dio</i> 'dio' (58at.)
<i>(daukegu)</i> 'daukagu' (17)	<i>(diobe)</i> 'diote' (46at.)
<i>(dauzka)</i> 'dauzka' (17at.)	<i>diogu</i> 'diogu' (40)
<i>dauzke</i> 'dauzka' (32at.)	<i>diot</i> 'diot' (9at.)
<i>debea</i> 'dute' (50; 51)	<i>diozu</i> 'diozu' (43)
<i>(dedigun)</i> 'diezagun' (41at.)	<i>dira</i> 'dira' (4at.; etab.)
<i>(degu)</i> 'degu' (13at.; 26)	<i>dirade</i> 'dira' (12; etab.)
<i>deigun</i> 'diezagun' (55at.)	«Dira» baino gehiago, «dirade».
<i>deran</i> 'dedan, dudan' (63at.)	<i>(dirazu)</i> 'didazu' (10at.)
<i>deriza</i> 'deritza' (28)	<i>(dirin)</i> 'dadin' (40at.; 42at.)

---

(7) Zegamako adizkiaren ondoan, Euskaltzaindiak onartuak ipintzen ditugu. Ikus EUSKALTZAINdia, *Aditz laguntzaile batua*, Euskera, 1973, 20-73. Ikus baita ere hori eta TXILLARDEGIk paratua, Donostia 1979.

- (*dit*) 'dit' («diran» 10)  
*ditean* 'daitezen' (60at.)  
*ditu* 'ditu' (28at.)  
(*ditue*) 'dituzte' (27at.; 60)  
(*ditugu*) 'ditugu' (53)  
*ditut* 'ditut' (17at.)  
    Eta «dituran» (65)  
*ditzean* 'ditzaten' (44)  
    Eta «ditceam» (60at.)  
*dixoaz* 'doaz' («dixoaz» 66)  
    Ik. (*dijoia*)  
*dizan* 'ditzan' (53at.)  
(*dizugu*) 'dizugu' (3)  
*dizut* 'dizut' (10)  
    Eta «dizuran» (10at.)  
*egiguzu* 'iezaguzu' (3at.)  
*egiozu* 'iezaiozu' (44at.)  
*egizguzu* 'iezazkiguzu' (41at.)  
*egizkuzu* 'iezazkiguzu' (Lat.)  
*etzazu* 'ezazu' (2)  
*ezazu* 'ezazu' (3at.)  
*gaitu* 'gaitu' (45at.)  
*gaitzazu* 'gaitzazu' (lat.)  
*gaitzezu* 'gaitzazu' (1)  
*gaitzen* 'gaitzan' (14)  
*gaude* 'gaude' (3)  
*genduen* 'genuen' (53)  
(*gera*) 'gara' (38at.)  
*gindu(t)zen* 'gintuen' (13; 30)  
*iguzu* 'eman diezaguzu' (41)  
*i(t)zazu* 'itzazu' (48at.; 49)  
*itzezu* 'itzazu' (3)  
(*lezake*) 'lezake' (36at.)  
(*lite*) 'liteke' («liteana» 18;  
    «liteala» 38).  
*liteke* 'liteke' (52)
- litzai* 'lekiroke' (66)  
(*nabe*) 'naute' («nabela» 63at.)  
*naiz* 'naiz' (10at.)  
*naizako* 'natzaio' (9)  
(*neuke*) 'nuke' («neuqueala» 64at.)  
*zain* 'zaion' (?) (67)  
(*zaio*) 'zaio' (61)  
*zaitean* 'zaitezen' (64)  
(*zaitu*) 'zaitu' (64)  
(*zaitue*) 'zaitute' (64)  
*zaitut* 'zaitut' (64at.)  
    Eta «zaitudan» (10; 64)  
(*zaitzan*) 'zaitzan' (3)  
*zaizka* 'zaizkio' (3at.)  
*zaka* 'zaio' (37; etab.)  
    Eta «saca» (37)  
*zakitzo* 'zakizkio' (44at.)  
(*zako*) 'zaio' («batzaco» 60)  
(*zaku*) 'zaigu' (39at.)  
*zan* 'zen' (2)  
*zatea* 'zaie' (49)  
(*zaude*) 'zaude' (1)  
*zeban* 'zuen' («criatuceban» 33at.; «igotceban» 34)  
*zebean* 'zuten' (31)  
*zegoan* 'zegoen' (22)  
*zeitean* 'zitekeen' (28)  
*zenduka* 'zenuke' (64at.)  
    «ezpatcenduca»  
*zera* 'zara' (lat.)  
*zerabilzen* 'zerabiltzan' (34at.)  
*zeuden* 'zeuden' (6)  
*zien* 'zien' (21)  
*zigun* 'zigun' (21at.)  
*zinzakean* 'zintzakeen' (64)

<i>zioben</i> 'zioten' (40)	<i>zituan</i> 'zituen' (15; etab.)
<i>Ik.</i> <i>goian</i> ( <i>dioibe</i> )	<i>zituen</i> 'zitzuzten' (6at.; 22at.)
<i>zion</i> 'zion' (12)	<i>zizakon</i> 'zitziaion' (32)
<i>ziraden</i> 'ziren' (24at.)	( <i>zizatean</i> ) 'zitzaien' (26at.)
<i>ziran</i> 'ziren' (28at.)	<i>zuen</i> 'zuten' (27)
<i>zitean</i> 'zitekeen' (31)	

### *Bukatzen eta biltzen*

Goian esan duguna laburturik eta hortik zenbait ondorio ate-ratzen ditugula, bukatzen dugu sarrera hau.

Ale honen aldatzailea —itzultzalea ere bai ote?— *Martin de Urteaga* daiteke izan, edo ta *Martin Ignazio de Urteaga*.

Argi dago 1741. urterako egina zegoela, urte horretan irakasten baitzen Zegamako eskolan.

*Zegama* eta *Olaberrrian* ibili da ale hau, *Urteaga* deitura zuen familia baten etxearen.

Bertan erabiltzen den euskarari buruz esan behar dugu, bizaieratik gauza asko dituela: «*dulzurea*», «*vencidu*», «*erorten*»; *deguigula* 'diezagula', *deub* 'du', *zeban* 'zuen', etab.; *domeka*, etab.

Bi gauza aurkitu ditugu goi nafar egoaldekoarekin edo, zerikusirik dutela ematen dutenak: «*graciarequi*» (sic -n gabe) aurkitzen dugu behin (50); eta «*itzas*» (sic -s) beste behin, baina «*itcez*» (*ik.* 47at. eta 53).

Adizkiak ematean, duda haundiak izan ditugu —eta duda horiek ez dira aienatu—, batez ere adizki hauekin: *daukea* ala *dauka* (?), *debea*, *lite* ala *litea* (?), *neuke*, *zatea*.

Norbaitek argitasun gehiago ahal badu eta nahi badu ekarri, egin dezala; nork egina, noiz egina, nondik nora ibilia, nolako euskaraz, etab.

Abrebiagailu bezala *at.* erabiltzen dugu maiz: *atzetik* nahi du esan.



## TEXTOA

1. (D)octrina C(hristiana-) <sup>1</sup>  
ren introdu(ccioa.)

Cruce Santuaren (*gurutzea*) señaleagatic: gueuren (*gurutzea*) etsaietatic: libragaitceu<sup>2</sup>, guere (sic -ere) Jauna; (*gurutzea*) eta Jaungoicoa. Aitearen, eta Semearen eta Espiritu-Santuaren (*gurutzea*) itcenea(n) Amen.

Paternosterreco Oracio 

Ayta gurea, Ceruetan zaudena, santificabidi zure Itcena: vетor gugana zure R(einua:)

- 1at. (eguinbid)i zu(re) vo(rondatea, nola) Ceruan, ála Lu(rrean: e)g(u)n iguzu gueuren (egune)rozco oguia. Eta bar(ca) eguzcuzu guri gueren zorrac, guc gueren zordunai barcatcen diegun vecela, Eta ezgaizatzula eutci tentacioan erorten baina libra gaitzatzu gaitcetic. Amen Jesus.

Ave Maria.

Ave Maria, graciaz betea: Jauna da zurequin: bedeincatea cerazu andregucien artean, eta bedeincatua zu(re) sableco frutua Jesus. San-

2. ta Maria, Virgina Jau(ngoico)aren Ama, regutuetzazu (gu) peccatarioc gatic orain, eta g(u)euren eriotzaco horduam (sic -m). Amen Jesus.

(1) Goian esan dugun bezala, zerbait orriren puntak falta dira, eta horren-gatik hitzen bat edo hitz zatiren bat falta daiteke. Holakoetan, liburuan zehar ageri diren datuez baliaturik, osatzen dugu textoa.

(2) Grafiatzko arazoetan, eskuidatziaren egileak erabili zuen modua era-biltzen dugu. Beraz, bi hitz elkarrekin lotuta, hitz bat bi zati eginik, etab., ager daitezke eta agertzen dira. Egilearen jokabide hori, zerbait aldiz, nahiko anarkikoa dela uste dugu.

## Credo -----

- 1.º—Nic siniscen (sic *-cen*) det Jaungoico, Aita guztia poderosoagoan, ceruaren, eta lurraren criadorea.
- 2.º—Eta aren Seme bacar, Jesu-Christo, guere Jaunagan.
- 3.º—Ceña concebituzan Espiritu-Santuaren obraz, eta virtutez; jaiozan Santa Maria Virgineagandic.
- 2at. (4.º—Pad)eciduceban Poncio Pi(lato)sen poderioaren azpian, (i)zanzan crucificatua, illa, eta sepultadua.
- 5.º—Jachizan infernuetara, irugarren egunean resucitatuzan illan artetic.
- 6.º—Igo ceban Ceruetara, eta dago jarriric Jaungoico Aita guztia poderosoaren alde escuitic.
- 7.º—Andic etorrico da viciac, eta illac juzgatcera.
- 8.º—Nic siniscendet (sic *-cen*) Espiritu Santuagan.
- 9.º—Eleiza Santa catholiquea, Santuan comunioa.
3. 10.º—Pecatuan barcacio.
- 11.º—Araguiaren resurreccioa.
- 12.º—Eta vicitza fin bagaea.

## Salvea ==

Salve Regina Jaungoicoac gordezaytzalea (sic *-lea*)<sup>3</sup> Erreguinea, misericordiaren Ama, vicia, eta dulzurea, eta esperanza gueurea. Salve, zure diez (sic *di-*) gaude Evaren seme desterraduoc suspirioa, eta negar zuri eguiten dizugula negarrezco valle onetan. Ea bada Andrea, abogada guerea, itzulitcezu ceurebegui misericordiazco oriec gugana. Eta des-

---

(3) *Salve Regina-ren* ondoan izartxo bat ipintzen du, eta gero orrialdearen ezkerreko bazterrean, hau eransten du: «Jaungoicoac gordezaytzalea Erreguinea». Hemen ikusten da, DOCTRINA idatzi eta gero izan zirela josiak orriak.

3at. tierro aub igaro *etquero* (sic *et-*) eracutsieguiguzu Jesus, zure sableeco fructu bedeincatua. O clementissimea! O Piadosea! Omisericord<sup>4</sup> O Dulce beti Virgina Maria! Regutu ezazu gugatic, Jaungoicoaren Ama Santea, itzan (sic *-tz-*) gaitecen dignoac Jesu Christoren prometimentuetan. Amen Jesus.

**Jaungoicoaren Legueco mandamentuac.**

Jaungoicoaren Legueco Mandamentuac dirade amar.  
Lenengo irurac pertenetcicenzaizca (sic *-tcicen-*) Jaungoicoaren honrea-

4. ri, eta beste zazpirac Lagun proximoaren probechuari.
    - 1.—Lenengoa; Jaungoicoa amatcea gauza gutcien gainean.
    - 2.—Vigarrena: Juramenturic necesidadebague ez eguitea.
    - 3.—Irugarrena: Jayac guardatcea.
    - 4.—Laugarrena: Gurasoac honratcea.
    - 5.—Bostgarrena: Ynor ez ilcea.
    - 6.—Seigarrena: Castidadea guardatcea.
    - 7.—Zazpigarrena: Etcer ez ohostutcea.
    - 8.—Zorcigarrena: Falso testimo-
  
  - 4at. nioric ez egoztea, eta guezurric ez etsatea.
  - 9.—Bederatcigarrena: Ynoren viciquidaric (sic *-da-*) ez de seatcea.
  - 10.—Amargarrena: Inoren gauzaric, eta haciendaric ez embidiatcea.
- Amar mandamentuoec encerratcendira bitan: Jaungoicoa amatcean, eta servitcean gautza gutcien gañean eta Lagun proximoa guere buruac becela. Amen.

---

(4) Ahaztu egin zaio, eta gero hola ipini du: «Omisericord», bukatu gabe, lerro tartean.

**Fedeco Articuluac—**

**Fedeco Articuluac dirade.**

5. amalaub (sic). Lenengo zazpirac pertenetcitzenzaizca Divinidadeari, eta bestezazpirac gure Jesu-Christo Jaungoicoa, eta Guizon eguiazco Jaunaren Humanidade Santuari.  
Divinidadeari pertenetcitzen zaizcanac dirade ohec.
  - 1.—Lenengoa, sinistu Jaungoico gustia Poderoso bacarbategan.
  - 2.—Vigarrenra: Sinistu Aiteadana.
  - 3.—Irugarrenra: sinistu Semeadana.
- 5at. 4.—Laugarrenra: sinistu Espiritu-Santuua dana.  
5.—Bostgarrenra: sinistu Criadorea dana.  
6.—Seigarrenra: sinistu Salvadorea dana.  
7.—Zazpigarrenra: sinistu Glorificadorea dana.  
Humanidades Santuari pertenetcitzen zaizcanac dirade ohec.
  - 1.—Lenengoa: sinistu gure JesuChristo Jauna, Guizona danpartez concebitu itzan zala, Espiritu-Santuaren obraz.
  - 2.—Bigarrenra: sinistu jaiotzala-
6. Santa Maria Virgina gandic: Virginea, Semea eguin baño leen, Semea eguin, eta Semea eguin ezquiero beti Virginiaric guelditzen zala.  
3.—Irugarrenra: sinistu gure JesuChristo Jaunac recebitucebala eriotza, eta passio gu pecatarioc salvatceagatic.  
4.—Laugarrenra: sinistu, jachizala infernuetara, eta ataracticuala veraren etorrera santuaren ichodeten ceuden Aita santuan animac.  
5.—Bostgarrenra: sinistu irugarren egunean resucitadu-
- 6at. zala illen artetic.  
6.—Seigarrenra: sinistu igocebala ceruetara, eta dagoala jarriric Jaungoico Aita gustia poderosoaren alde escuitic.

7.—Zazpigarrena: sinistu etorricodala viciac, eta illac juzgatcera: *aubda*: *onahi* (sic) ematera gloria, cergatic beren Mandamentu Santuac guardatu cituen; eta *gaiztoahi* seculaco penea, cergatic beraren Mandamentu santuac guardatu ezcituen.

7. Eleyzaco mandamentuac ~~.....~~

Eleiza Ama santearen Mandamentuac dirade bost,

1.—Lenengoa, Domeca, eta beste *jahi* egun guardatuboardirantan Meza ossoa enzutea.

2.—Bigarrena: vrtean bein (guichianaz) confessatcea; edoleen eriotzaco peligruric esperatcen bada; edo comulgatubear bada.

3.—Irugarrena: Pascua Resurrecciocoetan comulgatcea.

4.—Laugarrena: Eleiza Ama Santeac aguincen debanean-

7at. balur itzatea.

5.—Bostgarrena: Amarrenac, eta Primiciac Jaungoicoaren Eleiceari ondo eguitea. Amen.

Obra misericordiazcoac-

Obra misericordiazcoac dirade amalaub: zazpi Espiritualac, eta zazpicorporalac.

Espiritualac dirade ohec.

1.—Lenengoa: ezdaquianari eracustea.

2.—Bigarrena: conseju ona beardebanari ematea.

3.—Irugarrena: Vts eguiten debanari corregitcea.

8. 4.—Laugarrena: Injuriac barcatcea.

5.—Bostgarrena: Triste dagoana, consolatcea.

6.— Seigarrena: Lagun proximoaren miseria, eta flaquezac pacienciarequin sufritcea.

7.— Zazpigarrena: Viciac, eta illac gatic Jaungoicoa erregutcea.

**Zazpi corporalac dirade ohec.**

1.º—Lenengoa: Gaisoac visitacea (sic -c-).

2.— Vigarrena: Gose danari jaten ematea.

8at. 3.— Irugarrena: Egarridanari eraten ematea.

4.— Laugarrena: Cautivoa libratcea.

5.— Bostgarrena: Necesidadea daucanari, soinean eguitea.

6.— Seigarrena: Peregrinoari hostatua ematea.

7.— Zazpigarrena: Illac enterratcea.

**Eleyzaco Sacramentuac dirade zazpi ==**

1.— Lenengoa: Bautismoa.

2.— Bigarrena: Confirmacioa.

3.— Irugarrena: Penitencia.

4.— Laugarrena: Comunioa.

9. 5.— Bostgarrena: Extrema Vncioa.

6.— Seigarrena: Orden sacerdotala.

7.— Zazpigarrena: Matrimonioa.

**Confessio generala —**

Ni peccatariaub, confessatcennaizaco Jaungoico guciz poderosoari, Bienaventurada Maria beti Virgineari, San Miguel Aingueruari, San Juan Baptistari, San Pedro, eta San Pablo Apostoluai, eta Santu guciasi, eta ceuri Aita

- 9at. espiritual orri, eguin dedala pecatu gravemente, pensamentuz, itcez, eta obraz: neure culpaz, neure culpaz, guciz neure culpa aundiaz. Argaitic regutzen diot Bienaventurada Maria beti Virgineari, San Miguel Aingueruari, San Juan Baptistari, San Pedro, eta San Pablo Apostoluari, eta Santu gucias eta ceuri Aita Espiritual orri, regutu-dezazula Jaungoicoa nigatic. Amen Jesus.

Acto contriciocoa —

Neure Jesu-Christo Jauna, Jaun-

10. goicoa, eta Guizon eguiazcoa, neure Criadorea, Redemptorea, eta salvadorea, ceurcerana (*sic cœur-*) cergaitic ceran, eta cergaitic amatczenzaitudan gauza gucien gainean: damudet Viotz gucitic ceure Divina Magestadea ofendidua: proponitcendet firmemente ez gueiago pecaturic eguitea, eta apartacea ceure ofensaco ocasio gutcietatic; eta confessatcea neure pecatu gutciac; eta cumplitcea neure Aita Espiritualac ematendiran penitencia. Nic ofrecitcendizut neure vitcia obrac, eta
- 10at. trabajuac neure culpa, eta peccatu gutcien satisfaccioraco. Nola suplicatcen dizuran, ala naiz confiatcen cerorren bondade Divino, eta misericordia infinita orregan barcatuco dirazula neure pecatuac ceure Passio Santuco, odol preciosissimoaren, eta eriotcearen merecimentuac gatic eta emango dirazula gracia emendatceco, eta perseveratceco ill artean ceure Santu servitcioan. Amen Jhs. (*errubrika*).
11. Doctrina Christianaren explicacioa Cegamaco Escolan (Gaztelinaz ostean) eracustendan moduan milla, zazpireun, eta berroguey, eta batgarren vrtean ~~\*\*\*\*\*~~
-

*Galdezcendizut.* Norc criatuceban Guizona?

*Eranzutendet.* Jaungoicoac verac gauza gutcien cridorea (sic) dan vezela.

G.—Nola criatuceban?

11at. E.—Bere adisquidetasunean, eta gracian.

G.—Certaco criatuceban?

E.—Munduonetan aren Magestade Divinoa etzagutu, servitu, eta amatceco, eta guero ceruan ecusi, eta gozatceco.

G.—Nor itzanzan Jaungoicoac vere gracian criatuzeban Guizona?

E.—Adan gure lenengo Aita, cein, criatu ezquiero, ifiniceban Paradisu terrenalean.

G.—Beti vici izanduzan Paradisu terrenalean?

E.—Ez Jauna, beraren gracia gal-

12. duceban ezquiero.

G.—Noiz galduceban Jaungoicoaren gracia?

E.—Autsi cebanorduan ifinicion mandamentua.

G.—Cér mandamentu itzanzan autsiceban vra?

E.—Debecatucion arbolaren frutua jatea.

G.—Nola jaiotcendirade beste guitzonac, gracian, edo peccatu?

E.—Peccatu originalean, Jaungoicoaren etsay eguinic, cerueatic desderraturic (sic), eta infernuetara condenaturic.

12at. Doctrina Xptianaren<sup>5</sup> declaracioa, ceyñean eracusten dan nor dan Christaua, eta cein Christauaren señalea

---

(5) Abrebiagailu bat *Xpt-* letren gainean, lerro tartean.

*Galdetendizut. Christauba bacera?*

*Erantzutendet. Bai, Jauna, Jaungoicoaren gracia dala mediante.*

G.—Norgandicdezu (sic) christaubaren itcenori?

E.—Christo gueure Jauna gandic

G.—Cer etsan naideub christauac?

E.—Christoren guizona.

13. G.—Cer aditcen dezu Christoren guizonzat?

E.—Baptismo santuan professatuceban Christoren fede vra dauquen guizona, eta dagoana ofrecituric veraren santu servistoraco.

G.—Cerda christaubaren señalea?

E.—Cruce santua 

G.—Cergatic? (sic)

E.—Cergaitic dan Christo crucificaduren señalea, ceinetan redemiduguinducen.

G.—Cembait (sic -bait) moduten vsatcen deub christaubac señale

13at. orrezaz?

E.—Modu bitan.

G.—Ceinzuec dirade?

E.—Señatcea, eta santiguatea.

G.—Cergauza da señatcea?

E.—Eguita, escuico escuco beaz aundiarequin iru cruce: lenengoa, becoquian: bigarrena, auban: irugarrena, bularrean: itz eguitendegula gueure Jaungoicoarequin.

E.—Cruce santuaren señaleagatic : gueuren etsaetatic  libra gaizazu gueure Jauna, eta Jaungoicoa  Amen Jhs.

14. G.—Cergatic señatucera becoquian?

E.—Jaungoicoac libragaitcen pensamentu gaiztoetatic.

- G.—Cergaitic auban?
- E.—Jaungoicoac libra gaitcen itz gaitzoetatic.
- G.—Cergaitic bularrean?
- E.—Jaungoicoac libra gaitcen obra, eta deseo gaiztoetatic.
- G.—Cerda santiguatcea?
- E.—Escuico escuco beaz birequin cruce bat eguitea: atsi becoquitic, bularrera: esquerreco sol bardatic (sic)<sup>6</sup>, escuicora, deitcen diogula
- 14at.      Trinidade Santissimeari.
- G.—Eracutsi nola.
- E.—Aitearen, eta Semearen, eta Espiritu-Santuaren itcean  Amen Jesus.
- G.—Noiz vsatubeardeub christaubac señale orrezaz?
- E.—Edoceineco obra onen bat atsi beardeban orduan, edo arquitcen danean necesidade tentacio, edo peligruren battean: principalmente, ohetic jaiquitcean: echetic irtecean: (sic -c-) Eleizan sarcean: Jatera, eta lotara dijoanean.
- G.—Cergaitic orrembeste bider?
15.      E.—Cergaitic gueure etsaiac tempora, eta lecu gutcietan dau den guri guerra ematen.
- G.—Cer etsai dirade oriec?
- E.—Mundua, Demonioa, eta araguia.
- G.—Badauque cruceac virtuteric etsai orien contra?
- E.—Bahi Jauna.
- G.—Nundic izanceban cruce santuac virtute ori?
- E.—Cergaitic Christoc cruce santuan vencidu izancituan vere eriotcearequin.

---

(6) Hola dago idatzirik: bi hitzetan partiturik, eta *l* ta *r* kontsonanteak tokiz aldaturik.

15at.

Doctrina Christianaren divisioa ~~.....~~

G.—Christauba vso razoizcora etorri ezquero, zeimbait (sic -ei- ta -ai-) gauza dago obligaturic jaquitera?

E.—Doctrina christianeac contenitcen dituan laub gauza.

G.—Ceinzuac dirade?

1 E.—Lenengoa: cer sinistu bear deban.

2.— Bigarrena: cer oracio eguin (edo cer escatu) bear deban.

3.— Irugarren: Cer obratu bear deban.

4.— Laugarren: cer recebitu be-

16

ardeban.

G.—Nola jaquingo deub cer sinistu beardeban?

E.—Jaquinarequin, credoa, edo fedeco articuluac.

G.—Nola jaquingo deub cer oracio eguin (edo cer escatu) beardeban?

E.—Jaquinarequin Paternosterra, eta beste Eleizaco oracioac: (ceinzuec diran Ave Maria, eta Salvea)

G.—Nola jaquingo deub, cer obratu beardeban?

E.—Jaquinarequin Jaungoicoaren legueco mandamentuac, bost Eleizacoac, eta amalaub

16at.

obra misericordiazcoac.

G.—Nola jaquingo deub cer recebitu beardeban?

E.—Jaquinarequin zazpi sacramentuac ~~.....~~ (errubrika)?<sup>7</sup>

---

(7) Errubrika hau eta 25. orrialdekoa, esku batek eginak direla uste dugu.



17.     Doctrina Christianaren leenengo partea, ceñetan declaratzen diraden Credoan, eta Fedeco articuluetan contenitzen diraden misterioac. .....

G.—Norc esanceban Credoa?

E.—Amabi Apostoluac.

G.—Certaco?

E.—Gu fedean informatceco.

G.—Eta zuc certaco etsatendezu?

E.—Christaubac dauquegun fedeaub confessatceco.

G.—Cerda fedea?

E.—Ecusi ezdeguna sinitcea (sic).

G.—Cersinitcendezu ecusi ez-

- 17at.     dezunic?

E.—Sinitcendentut, Jauna, fedeco iru misterio principalenac: Credoan, eta Sacramenuetan contenitzen diran beste gauza gutgiaquin claramente, eta beste Eleitza (sic) Ama santa catholicoac sinisturic dauzcanac.

G.—Ceinzuec dirade iru misterio principalenac?

E.—Trinidad Santissimaco misterio, Encarnaciocoa, et (sic) Eucharistiacoa.

*mro- Ecutsi dezagun, bada, nola sinistzen dezun Trinidad San-*

18.     tissimaco misterioa

G.—Nor da Jaungoicoa?

E.—Da Gauzabat excelenteana, eta admirableana, etc egin etsan, eta ezpensatu liteana: J (sic) Jaun bat infinitamente poderosa, sabioa, Justoa, principioa, eta fina gauza gutcienna, eta verac ezdebana principioric, eta ez itzango finic.

G.—Nor da Trinidade Santissimea?

E.—Jaungoicoa bera: Aitea, eta Semea, eta Espiritu-Santua:  
iru Persona diferenteac, eta, Jaungoico eguiazco bat.

18at. G.—Cembait Jaungoico dirade?

E.—Bat, Jauna.

G.—Cembait Persona?

E.—Iru, Jauna.

G.—Ceinzuec dirade?

E.—Aitea, eta Semea, eta Espiritu Santua.

G.—Oetatic ceinda Jaungoicoa?

E.—Irurac Jaungoico eguiazco bat.

G.—Aitea Jaungoicoada?

E.—Bai, Jauna.

G.—Semea, Jaungoicoada?

E.—Bahi, Jauna.

G.—Espiritu Santua Jaungoicoada?

E.—Bahi, Jauna.

19. G.—Oriec iru Jaungoico dirade bada?

E.—Ez porcierto Personac iru, baña Jaungoico eguiazcobat.

G.—Nola ez dirade bada iru Jaungoico, iru Persona diraden,  
becela?

E.—Cergaitic Personac iru badira ere diferenteac, irurac de-  
bean Essenciabat, eta Jaungoicototasun bat.

G.—Aitea Semea bada?

E.—Ez Jauna.

G.—Semea Aitea bada?

E.—Ez, Jauna.

G.—Espiritu Santua Aitea, edo

19at. Semea bada?

G.—Cergaitic?

E.—Cergaitic, personac euren artean diferenteac diraden, Jaungoico eguiazco bat badiraere.

G.—Iru Persona oetatic ceinda, zarrena?

E.—Irurac dirade igual Jauna.

G.—Cergaitic, bada, Aitea ezda zarrago Semea baño, edo Semea Espiritu Santua baño?

E.—Cergaitic, Aiteac izana (aub da Jaungoicotitasuna) itzanceban instante artan,

20. itzanceban Semeac; eta Aiteac, eta Semeac itzana itzanceban instante artan, itzanceban Espiritu-Santuac.

G.—Norda Aitea?

E.—Da Personabat beste personaetatic ez datorrena.

G.—Norda Semea?

E.—Da Personabat, Aitearen entendimentutic datorrena.

G.—Norda Espiritu Santua?

E.—Da Personabat Aitearen, eta Semearen vorondatetic datorrena, principio

20at. batetic vecela.

G.—Iru Personaotatic ceinec daduca poderio, virtute, edo gracia gueago?

E.—Irurac dirade, Jauna, berdin gauza gutcietan.

G.—Nundago Jaungoicoa?

E.—Mundugucian, Jauna eta especialmente ceruan eta Santissimo Sacramentu Altarecoan.

G.—Cergaitic etsatendezu, dagoala especialmente ceruan, eta Santissimo Sacramentu Altarecoan?

E.—Cergatic (sic) dagoan lecu ohec biotan modu differentean mun-

21. duan dagoanaz gainetic.

G.—Nola dago munduan?

E.—Berac criatu cituan criatura gutciay itzana ematen eta emancien itzanean (sic) conserbatcen, presente dagoala lecu gutcietan bere poderio arequin nahideban gutcia eguiteco.

G.—Noladago Jaungoicoa ceruan?

E.—Andauden bienaventuraduahi Vera ecustea, etagotzatcea permititcen.

G.—Nola dago Santissimo Sacramento Altarecoan?

21at. E.—Jesu-Christo gueure Jaunaren corputz Sacratissimoari vnituric.

G.—Nola daude criaturac Jaungoicoagan?

E.—Esponjabat barrutic, etacampotic vrez aseric dagoan vetcela.

G.—Emenbadago Jaungoicoa?

E.—Bai, Jauna (etsandanbetcela) guri itzana ematen, eta emancigun itzanean gu conserbatcen.

G.—Jaungoicoa badago infernuan.

E.—Bahi Jauna, emendagoan betcela

22. eta Juez rigurosoabecela an daudenac castigatcen.

G.—Mundua criatu baño lehenago nun cegoan Jaungoicoa?

E.—Bera beregan Jauna.

G.—Badeub Jaungoicoac principioric, edo itzango deub finic?

E.—Ez Jauna (lehen etsan dan betcela) cergaitic dan Eternoa.

G.—Cer etsan nai deub Eternoac?

E.—Ezdebalta principioric, eta ez finic; eta bera dala principioa, eta fina gauza guciena.

G.—Cer etsan naideub, Jaungoico guztia Poderosoac?

- 22at. E.—Eguiten debala bere naiarequin naideban guztia.  
 G.—Iru Personaetatic ceinda criadorea?  
 E.—Irurac criadore bat.  
 G.—Aitea criadoreada?  
 E.—Bahi, Jauna.  
 G.—Semea criadorea da?  
 E.—Bahi, Jauna.  
 G.—Espiritu-Santua criadoreada?  
 E.—Bahi, Jauna.  
 G.—Oriec iru criadore dirade bada?  
 E.—Ezporcierto, Jauna; cergatic (sic) ezcituen gauzac criatu,  
 eta.
23. ezcriatcen personac betcela, Jaungoicoac betcela baitce  
 (sic); eta nola irurac diraden Jaungoicoa bat, ala dirade  
 criadore bat.  
 G.—Cer etsan nahideub criadoreac?  
 E.—Gauza gutciac eceretcetic criatu, eta criatcen dituana.  
 G.—Iru Persona etatic ceinda, Salvadorea?  
 E.—Irurac Salvadorebat.  
 G.—Aitea salvadoreada?  
 E.—Bahi, Jauna.  
 G.—Semea salvadoreada?  
 E.—Bahi, Jauna,
- 23at. Espiritu-Santua Salvadoreada?  
 E.—Bahi, Jauna.  
 G.—Oriec iru salvadore diradebada.  
 E.—Ez, Jauna; cergatic (sic) ezdebean gracia ematen, eta  
 peccatuac barcatcen personacbetcela, Jaungoicoac betcela  
 baitce; eta nola irurac diraden Jaungoico bat, ala dirade  
 salvadore bat.

- G.—Cer etsan nahideub Salvadoreac.
- E.—Gracia ematen debana, eta peccatuac barcatcen dituana.
24. G.—Iru Personaetatic ceinda glorificadorea?
- E.—Irurac dirade Glorificadorebat.
- G.—Aitea glorificadorea da?
- E.—Bahi, Jauna.
- G.—Semea glorificadorea da?
- E.—Bahi, Jauna.
- G.—Espiritu-Santua glorificadorea da?
- E.—Bahi, Jauna.
- G.—Oriez iru glorificadore dirade bada?
- E.—Ez, Jauna cergicetic ezdebean gloria ematen personac betcela; Jaungoicoac
- 24at. betcela baitce; etanola irurac diraden Jaungoicoa bat, ala dirade Glorificadore bat.
- G.—Cer etsan nahideub Glorificadoreac?
- E.—Veraren gracian illcen diradenahi ematen dielagloria.
- G.—Iru Personaetatic ceinda redemptorea?
- E.—Solamente Semea.
- G.—Cergicetic bada Aitea, eta Espiritu-Santua ezdirade redemptoreac Semea betcela?
- E.—Cergicetic ezciraden guizon eguin, ez ill Semea betcela.
- G.—Jaungoicoac badeub corputcic
25.       guc betcela?
- E.—Jaungoicoac ezdeub corputcic, cergicetic dan Espiritu puerua; baño bahi (sic) Jesu-Christoc Guizona dan partez.
- G.—Jaungoicoac ez badeub Veguiric cerequin ecusten deub?
- E.—Bere entendimentu audiarequin.

- G.—Escuric ezbadeub, cerequin obratcendeub  
 E.—Bere Vorondate aundiarequin. (*Errubrika*)<sup>8</sup>.

25at.

*Encarnacioco misterioa*

- G.—Trinidadeco iru Personaetatic cein eguzinan guizon?  
 E.—Bigarrena; ceina dan Semea.  
 G.—Aitea eguin batzan guizon?  
 E.—Ez, Jauna.  
 G.—Espiritu-santua eguin bazan guizon  
 E.—Ez, Jauna.  
 G.—Cein, bada?  
 E.—Solamente Semea, ceinari, guizon eguin ezquiero, derizan Jesu-Christo.  
 G.—Norda Jesu-Christo?
26.      E.—Da Jaungoico vitciaren semea, cein eguzinan guizon, gu redemitceagatic, eta nola vici beardegun exemplo emateagatic.  
 G.—Nun eguzinan guizon?  
 E.—Virgina santissimaren Entraña garbietan, gure naturaleza artuaz.  
 G.—Noren obraz?  
 E.—Espiritu-Santuaren obraz eta virtutez.  
 G.—Cer etsan nahideub eguznala, Espiritu-Santuaren obráz?  
 E.—Espiritu-Santuac, Aitearequin, eta Semearequin igual-

---

(8) Errubrikaren eskuin aldean «1741» ipintzen du; eta zenbaki honen azpitik eta errubrikaren eskuin aldetik hau idatzi du: «Martin de Vrteaga». Uste dugunez, hiru gauza horiek esku batek eta tinta berdinaz eginak dira, SARRERAN esan dugun bezala. Idatzirik dauden orrialde honetan, beste tinta eta luma batez baliaturik idatzi dira; orrialdeko gainerakoa baino luma lo-diago eta tinta beltzagoaz.

- 26at. mente Jaungoico bat bera danac, bere poderio infinitoa-requin, Maria Virginearen odol garbitic, eta beraren *sabele* virginalean formatucebala corpuz bat; instanteartan bertan criatucebala anima gutciz excelentebat: anima aub juntatucebala corpuzarequin: eta corpuz, eta Anima ohei juntatu eta vnitucizateala Trinidadeco bigarren Personea Eta modu onetan egun itzan cebeala Encarnacioco misterio aub instante batean Tri-
27. nidadeco iru Personac, Jaungoicoaren Semea, lehen solamente Jaungoicozana guelditczenzala Jaungoico; eta Guizzon eguinic.
- G.—Christo jaiozanean nolaguedituzan Maria Ama andrea?
- E.—Christo jayo baño lehen, jayotcean, eta jayo ezquiero beti gueldituzan lehen becela doncella garbiric.
- G.—Encarnacioco misterio aub obratu bazuen iru Personac nola etsatenda eguiñzala Espiritu Santuaren obraz?
- 27at. E.—Cergatic iru personac eguiten dituen obraetatic bazuec atribuitcen zaizca Aiteari: beste baçuec (sic)<sup>9</sup> Semeari: eta beste bazuec Espiritu-Santuari aub da poderiozcoac Aiteari: Sabiduriazcoac Semeari: eta amorioazcoac (sic -oa-) Espiritu-Santuari: eta nola encarnacioco misterio aub izanzan amoriozcoa, argatic etsatenda: Espiritu-Santuaren obraz.
- G.—Espiritu-santua da orrela Jesuchristoren Aita?
- E.—*Absit*<sup>10</sup> Esporcierto, Jauna, cergatic aita izateraco ezda bastante,
28. edocein moduz gauza bat eguitea; baicican, orretaraco beardeub batec bere sustanciatic, edo naturalezatic beratic: egun gauza ori eta nola Espiritu-Santuac berac deban naturalezatic, edo sustanciatic ez ceban egun Jaungoicoaren Semearen corputza; baicican Maria Vir-

(9) Hemen *cedilla* erabiltzen du, lehenagoxe eta beralaxe hitz hau bera -z- kontsonanteaz baliaturik idazten duela: «bazuec».

(10) Eskuidatzian, azpimarratua.

ginearen odol, garbitic; argatic ezderiza bada eta etcin izan ere ceitean Christoren Aita, Espiritu-Santua.

G.—Igaro bazan temporaren bat misterio aub eguiten?

28at. E.—Ez, Jauna, cergicatic (etsandan betcela) eguinhan *inistante-batean* (sic).

G.—Jaungoicoac eutci bacion ceruari, Lurrean guizon eguiteco?

E.—Ez, Jauna.

G.—Aitea, eta Espiritu Santua arquitu batciran obra aub eguiten; nola eguin ezciran guizon Semea betcela?

E.—Cergicatic vnitu ezciran naturaleza humanoari Semea betcela.

G.—Cembait naturaleza ditu, Jesu-Christoc?

29. E.—Bi, Jauna.

G.—Ceinzuec dirade?

E.—Divinoa, eta humanoa.

G.—Naturaleza Divinoa deban partez norda?

E.—Da eguiazco Jaungoicoa.

G.—Eta naturaleza humanoa deban partez, norda?

E.—Da eguiazco Guizona.

G.—Cembait persona ditu Christoc.

E.—Bat, Jauna, ceina dan Trinidadeko bigarren personeea.

G.—Noiz atsizan Christoren Animea gloriac gotzatzen?

E.—Encarnatuzan *inistante artatic*.

29at. G.—Noiz eguinhan Encarnacioco misterio aub?

E.—Marsuaren oguei, eta bostgarren egunean.

G.—Noiz Jesu-Christo jaiozan?

E.—Gabon gabaren erdian.

- G.—Nola jaiozan.
- E.—Ez beste aurrac jaiotcen diraden becela, baitcican milagrosamente, igarotcen cebala bere Ama Santissimaren sabel Virginala, dañuric batere eguin bague bere pureza Virginalean.
- G.—Badeub Christoc Aitaric, edo Amaric?
30. E.—Jaungoico dan partez deub Aita, eta ezdeub Amaric; eta Guizona dan partez deub Ama, eta ez deub Aitaric.
- G.—Nundago Jesu-Christo?
- E.—Jaungoico dan partez mundu gutcian; eta Guizona dan partez, ceruan, eta Santissimo Sacramentu altarecoan.
- G.—Cer etsan naideub Jesusec?
- E.—Salvadorea, Jauna.
- G.—Certatic salvadu guindutcen?
- E.—Gueure peccatuetatic, eta demonioaren esclavo itzatetic.
- G.—Cer etsan nahi deub Christoc?
- 30at. E.—Vnguitua (sic).
- G.—Cerequin Christo vnguitua izanzan?
- E.—Espiritu-Santuaren gracia, eta Doiaquin.
- G.—Cembait temporan Jesuchristo vitci itzanzan munduan?
- E.—Oguehi, eta amairu vrtean ■■■■■
- Passio Santuco misterioa* ■■■■■
- G.—Trinidadeco iru personaetatic, cein illzan?
- E.—Bigarrena, ceina dan Semea.
- G.—Jaungoico dan partez, edo
31. guizona dan partez illzan?
- E.—Guizona dan partez, cergatic Jaungoico dan partez etcin illcitean.

- G.—Noiz illzan?
- E.—Ostirela Santu egunean.
- G.—Animan, ala corputcean padecitucituan pena, eta doloreac?
- E.—Principalmente animan, bahita corputcean ere.
- G.—Nun illzan?
- E.—Crutce santuan crucificaturic.
- G.—Noiz crutcificatucebean?
- E.—Amabi orduetan guichigora, bera.
- 31at. G.—Ceinlecutan?
- E.—Jerusalengo ciudadetic campora, calvarioco mendian.
- G.—Cer ordutan illzan?
- E.—Arratsaldeco iru orduetan.
- G.—Nola illzan?
- E.—Lehenen (?) <sup>11</sup> etsandan becela: Guizona betcela.
- G.—Cerda illcea?
- E.—Animea corputcetic particea.
- G.—Animea corputcetic partiduezquero Jaungoicoa bazan?
- E.—Bahi, Jauna; cergatic Divinidadea ezan apartatu animatic, eta ezcorputcetic.
- G.—Cereguinceban corpuz santi-
32.        *tissimo* (sic) arc anima sacratissima vra partiducizacon ezquiero?
- E.—Guizon piadoso bazuec enterradu izanzuen Getsemaniaco baratzan.
- G.—Cer ordutan?

---

(11) Lehenbizi, *lehen* idatzi du; gero, lerro tartean, *en* erantsi du.

E.—Arratsaldeco sei orduetan.

G.—Cembait temporan egonzan corputz santissimo vra sepulchroan?

E.—Oguehi, eta amairu orduan.

G.—Cer egunceban, Christoren anima sacratissima arc, corputz santissimo artatic, partiduzan ezquero?

32at. E.—Jachizan infernuetara; ez anima desdichada condenatuaric dauden lecura: baitcian limbora (aubda) beraren etorrera santuaren ichodeten Aita santuan arimac ceuden lecura.

G.—Cembait lecu dauzque Jaungoicoac ifiniric animanzat cereaz ostean?

E.—Laub, Jauna.

G.—Ceinzuec dirade?

E. 1.—Lehenengoa: infernua condenatuac juaten diradena.

2.—Bigarrena: Limboa, baptizatubague illcendiran aur-

33.                   rac juaten diradena.

3.—Irugarrena: Purgatorioa, Jaungoicoaren gracian illcen badiraere, euren peccatuau satisfacioa (sic -c-) ematera juaten diradena.

4.—Laugarrena: Abrahanen senoa, mundua criatuzanetic, Jesuchristo illzaneraño illciraden anima justoac juanciradena.

G.—Ohetatic ceinetara jachizan Christoren Anima Santissima vra.

E.—Laugarrenera, Jauna.

G.—Noiz atsiciran laugarren-

33at.                lecu onetan ceuden animac gloriac gotzatcen?

E.—Jesu-Christoren Anima santissimea lecuartan sartuzan instante artatic.

G.—Noiz irtenceban Jesu-Christoren anima santissimac Limbo artatic.

- E.—Irugarren egunean, ataratcen cituala berequin an ceuden anima justuaec gutciac.
- G.—Noiz resutcitatzan?
- E.—Paschua resurreccioco goitcean, iru orduetan.
- G.—Nola resutcitatzan?
- E.—Bere virtute, eta poderio pro-
34. pioarequin; juntatcencituala bere anima, eta corputz glosioac alcarregana ezgueiago illeco.
- G.—Resutcitatu ezquiero, cem baitgarren egunean igotceban ceruetara?
- E.—Berroguehi garren egunean (ceina dan Asensio eguna) ordubatetan.
- G.—Tempora onetan nun egonzan?
- E.—Munduan evilizan acompañaturic, berequin Limbotic atracituan anima justaequin, consolatzen
- 34at. bere Ama santissima, eta Apostoluac.
- G.—Nundic igotceban ceruetara?
- E.—Olibeteco menditic.
- G.—Nola igotceban?
- E.—Bere virtute propioarequin, lagun eguiten ciobela berequin cerabilcen bienaventuradu gutciec.
- G.—Nola dago Christo ceruan?
- E.—Jaungoico Aita gustia paderosoaren alde escuitic *etserriric* (sic).
- G.—Cer etsan naideub: dagoala etserriric Jaungoico Aita guztia paderosoaren alde escuitic?
35. E.—Christo gueure Jaunac, Jaungoico dan partez, daucala gloria igualmente Aitearequin, eta Espiritu-Santuarequin; eta Guizona dan partez, gozatcendebela ceruan dauden santu, eta bienaventuradu gutciac baño gloria gueiago.
- G.—Noiz etorrico da Jesu christo vitciac, eta illac juzgatcera?

E.—Juicioco egunean, Jauna.

G.—Egun artan resucitatu <sup>12</sup> dirade gutciac?

E.—Bahi, Jauna; eta bacoiza

35at.      bere anima, eta corputz presentatuco da Jesu-Christo  
Juez supremoaren presenciara.

G.—Ceinzuec dirade vitciac, eta illac?

E.—Vitciac, aditcen dirade, onac graciaco estaduan illcendi-  
radenac; illac, aditcen dirade gaiztoac, peccatu morta-  
lean illcen diradenac.

G.—Cerpremio emango die onahi Christoc.

E.—Seculaco gloria, cergatic beraren mandamentu santuac  
guardatucituen.

36.      G.—Cerda gloria?

E.—Jaungoicoaren presencian egotea ceruan dauden Santu,  
eta bienaventuradu gutcien compañian, aren magestade  
Divinoa gotzatcen, eta alabatcen.

G.—Cerpremio emango die gaiztoahi?

E.—Seculaco infernua, cergatic beraren mandamentu santuac  
guardatu ezcituen (sic).

G.—Cerda infernua?

E.—Da lecu espantossobat, nun demonioac, eta condenatu  
gutciac dauden, eta egongo

36at.      diraden esperanza bague eternidade gutcian penaz eta  
t tormentuz beteric <sup>13</sup>.

(12) Hola dago idatzirik, eta ez «resucitatuco».

(13) «beteric» hitzaren ondotik, eta lerro horretan bertan, hau idazten  
du: «Almargen» eta izartxo bat azkeneko -en horren gainean. Gero, bazte-  
rrean, ahaztu zaizkion zenbait lerro ipintzen ditu. Hemen ere ikusten da nola  
liburua, idatzi eta geroago izan zen josia. Bazterrean erantsi dituen gauzak  
asten dira hemen: «G- Cer sinitcendezu...», eta hemen bukatzen dira: «etcin  
falta lezaqueana».

G.—Cer sinitcendezu, etsaten dezunean: Nic sinitcendet Espiritu-Santuan?

E.—Sinitcendet, Jauna, bay dala Trinidad Santissimaco irugarren personea, ceyfari deritzon Espiritu-Santua; eta dala ygualmte. Aytearequin, eta Semearequin: eta Verac Eleyza Ama Santteari reuelatcendion gutcia dala inefablea: auda: etcin falta lezaqueana.

G.—Cerda Eleiza santa catholiquea?

E.—Christaub fiel gutcien congregacioa, edo vnioa.

G.—Norda christaub fiel gutcien munduonetaco burua?

E.—Aita santu Romacoa, ceini gutcioc gauden obligaturic obedetcitcera, Christoren Vicarioa danbetcela.

G.—Ceimbait (sic) Eliza (sic) dirade?

E.—Bat bacara<sup>14</sup>, Jauna.

G.—Ezdaude bada erriascotan

37.       Eleiza asco?

E.—Bahi, Jauna; baña gutciac dirade bat: cergatic eleiza santa catholica governatcen deban burua (ceina dan Christo) dan bat: Christaub (sic) fiel gutcioc professatcen de gun fedea, dan bat: eta baptismo santua dan bat.

G.—Cergaitic etsaten saca (sic) Eleiceari santea?

E.—Cergatic Eleiza santa catholicac professatcen deban Leguea dan santea: Ceremoniac, ceinzuequin Jaungoicoari reberencia eguitenzacan:

37at.      eta Eleizaco Sacramentuac diraden Santuac: baita cergatic Eliza Santa onetan betidiraden christaub asco, dau denac Jaungoicoaren gracian, ceinzuecgatic etsatendan, dirala santuac, euren virtute, eta costumbre onac gatic.

G.—Cer etsan nahideub, catholiqueac?

(33) Beharbada badira BBetan oraindik beren iluntasuna dela kausa erabili ez ditudanak baina hona ekartzea merezi dutenak, apaiz baten egiletesunaren alde mintzo daitezkela uste bait dut orotara, zehazki eta banan banan azaltzen ezbadakitzat ere: Markina eta karmeliten eta frantziskotarren (eta Jaurerriaren) arteko eztabaidea, lehendabizikoena eraikuntza berrietakoa eskubideez (ik. Labayru V 556) eta P. Jeronimoren (= Fr. Jerónimo de Acorda, frantziskotarren Cantabriako probintziala?, cf. Labayru V 573) aipamenak izango ote dute zer ikusirik? Valladoliko salearrenarekin bizkaitar epailarien mesedez barkatzen zitzaiela han gipuzkoarrei ulertu behar ote? (Cf. 17.ahapaldia eta Elías de Tejada, *El Señorio de Vizcaya*).

(34) «Bilbo eta euskara», Euskera 1977, 385 eta hur; aipatuak 396-400.

euskaritxu adierazgarriarekin hasi ondoren, honelakoak aurki ditzakegu:

«El más inhumano / blasfemo atrevido / nos hace la guerra, / y asesta sus tiros. // Desde que este azote / nos tiene afligidos / se han vuelto los gozos / en tier- nos gemidos. // Los Padres, las Madres, / no menos los hijos, / el Rico, los Pobres / gimen oprimidos».

eta halaber euskaraz

«1. Urte guztijetaco / Gabongo Leguia / Da soñu eder bat- ten / Cantia imintia... 2. Arerijo andi bi / Daucaguz cer goitu / Gura bogu Seinchuba / Erreguetzat artu: / Guer- rraguinac daucaguz / Gorputz ta ariman / Alan Pasíñoe char / Celan Francesetan».

Belengo haurrari baino «Judiaco Leoia»ri eta «Egercituden Jau- na»ri gehiago dagozkien zenbait ahapaldiren ondoren, honako pitiok ditugu:

«9. Baña ezta aztutecua / Francesen Guerria / Galduba izan eztedin / Daucagun Fedia: / Beintzat gomutan dau- ca / Bilboco Urijac / Lagunduten deutsela / Vizcaitar guztijac. // 10. Bacochac eguiten dau / Emen al dabena / Jaquinic dala Guerra / Jaunac nai dabena: / Fraile, ta Abadiac / Besteecaz batera / Jagui dira pozarren / Ar- mac artutera. // 11. Señorijo, Consulau, / Ta Urija alcar- turic / Aberatsac izanda / Dagoz pobreturic. / Emoten ditubela / Ondasun andijac / Gordetarren Erregue / Fe- de, ta Errijac. // 12. Jaincuac nai dajala / Orain bedein- catu / Vizcaitarren Gogua: / Eta alan lagundu / Estura- sun onetan / Ondo urteteco / Baquia zabalduric, / Jesus ametaco. // Laus Deo».

Estorquiren gabon kantokin amaitu eta gure testura berriz bihurtu baino lehen egoki izan daiteke markatzea haien, BBak ez bezala, argitara zirela<sup>35</sup> eta «Simón de Larumbe, Impresor del M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya»ren etxearen egin ere, gainera.

(35) Bidenabar esan dezadan testu honek Gandara, Olaetxea eta beste XVIII.mendearen bigarren zatiko bizk.zko gainerakoek bezala, merezi duela azterketa zehatzagorik hizkuntzaren aldetik; Larramendiren eragina beraietan zenbait gipuzkoarretan baino txikiago bada ere, agian, ukaezina da. Garai hartako giroaren erakusgarritzat erabili izan ditu bertssook arestian K. Mitxelenak bere Eusko Ikaskuntzaren IX.Batzarrera aurkeztu txoste- nean. IK. Aktak 247.

Orain artekoa ikusi ondoren ez deritzot frogat gehiegirik behariko litzatekeenik BBak soilik bi tokitan sortu ahal zirela erakusteko, Gernikan edo Bilbon<sup>36</sup>.

Lehendabizikoan bildu ohi ziren Jaurerriko Batzarreak, bigarrenean zegoen, aldiz, «Consulau» eta «Urija» horren Udalaren inguruan, botererik boteretsuena. Bilbo zen, gainera, gehien galatzeko arriskuan istilu guztiotan eta pentsatzekoa da berak zuela interesik nagusiena gauzak horrela gerta ez zitezen<sup>36 bis</sup>.

Bilbo hauta dezakegula dirudi testuaren irakurketa hertsia batet ere: 21.ahapaldia, beste guztiak legez, inongo puntuaketarik gabeko datorkigu eskuizkribuan. Oro har, peitu horrek ez du testua gehiegi zaitzen, ez eta bere esannahia aldatzen; hemen, aldiz, berebiziko garrantzia du. Gonbara bitez hurrengo irakurketok: 1) «...guztiac ez arren baçuc bira / agaz ombre a ombre, / milla guizon guichi badira / pigmeoac baguina bere. / Bilbaon ala[n] ey dinoe», eta 2) «...guztiak ez arren baçuc bira / agaz ombre a ombre / milla guizon guichi badira, / pigmeoac baguina bere / Bilbaon. Ala[n] ey dinoe».

Alegia, egileak Bilbon ala handik kanpo idazten duen erabaki daiteke puntu bereren edo *Bilbaonen* atzean jarriaz. Nik bigarren erara jokatu dut zeren eta a) *bereren* atzean ezarriaz geldiune nagusia oso ilun gelditzen dira sintasiaren aldetik 21e eta 21f; b) *Ala[n] ey dinoe* horren sujetoa «gipuzkoarrek» behar du izan eta ez «bilbotarrek» —gonbara bedi 11e-g «besteoc ezer estaquigula / Guipuzcoan ei dinoe / zuenzat ori bere»; c) zangalatrauak, herri poesian ezinezkoak badira, hemen badugu, aldiz, horrelakorik pasarte honetarako proposatzen dudanaz kanpo: cf. 37. *Ezin daizu uca-tu / nolan ascoc aduertidu / zaytuzan eguin bear yacala / Visca-yari erregu eta 16e-g Obe dau egoitea / bere erri aldeti / egun, biar didin vizi.*

Itzulinguru luze honen ondoren bertsoon etorkiaz dakikeguna hau da: 1688ko udaran, ziur asko Bilbon, Jaurerriaren edo Udalaren inguruko apaiz ezezagun batek eginak direla; bada zerbait, baina datu eta ikerketa berrieik lagunduko al digute aitzinago joaten.

(36) Ohar bedi *hor sortu* diodala eta ez horkotarren batek egin.

(36 bis) Plaentxi aldeko olek zuten Bizkaiko mearen beharrak ere badeuke zerikusirik BBen erantzulea horko «authore yncognito» bat izatean.

## II. EDIZIOA

### II.1. *D-ri buruz.*

BBen ale ezagun bakarra (D) Donostiako Udal Artxibuan gordetzen da «B.Neg.1.Libro 1.Exp.3» erreferentziadun mamotretoko 127-130 orrialdeetan<sup>37</sup>; 131-136 orrialdeetan haren erantzuna den eta eraskinean ematen dudan «Respuesta a la Canción Bascongada» dugu.

BBek dituzten 256 lerroak 7nako 38 ahapalditan banaturik ditugu; eskuizkribuko orrialde bakoitzak 9 edo 10 ahapaldina dakar bi habetan. Ahapaldi bakoitzaren azken lerroaren bukaeran marra bat egin du kopiagileak eta batzuk badituzte iruzkinak ere ertzetan<sup>38</sup>.

Letra aski txikia da tamainan eta garai hartan ohi bezalakoa tankeran: <z> eta <r> oso berdintsuak (bereiziezinak gehienetan), <s> </>tik eta <n> inoiz <r>tik oso hurbil, etab<sup>39</sup>. Gehienbat, aski ongi irakur daiteke testua; hala ere 7 eta 12-13. ahapaldietan zenbait letra tinta ahulagoz dago eta, letrarik ezabatu edo estali gabe, badira mantxa ilun batzu 5 eta 10. eta 30 eta 35. ahapaldien artean<sup>40</sup>. Testuak aski txukun eta arretaz idatzia dirudi<sup>41</sup> kopiagileak bertara bihurtu eta zuzenketak eta eransketak egin bait ditu; horrenbestez kopiako *crux* eta pasarte zail gehienak aurragotik etor zitezkeela dirudi<sup>42</sup>.

«Respuesta a la Canción Bascongada»ren bukaeran dugun *explicitak* honela dio: «Respuesta... que ha sacado un clérigo de Vis-

(37) Orriak aurretik eta atzetik idatzirik eta zenbaturik daude eta goiko zenbakioak, beraz, orrialdeenak dira, Markatzekoia iruditzen zait gazterazkoak esku ezberdinez idatziak diruditela, letra borobilago eta garabato gehiagokoaz.

(38) Ik. bitez IIIIn.

(39) <n> eta <u>ren berdintasunaz ez dago zertain esanik ez zela bakarrik ordukoa (gogora Gerrak Azkueri bidali *Acto para la Nochebuena*ren kopia, ik. Koldo Mitxelenaren «Miscelánea Filológica Vasca»); <z> eta <j>ri buruz ik. III.


(40) Ahapaldi horiek parean daude habe bakoitzean 4 ahapaldi t'erdi edo bost sartzen bait dira; mantxa horiek askoz ugariagoak dira gazterazko testuan.

(41) Oso bestela gertatzen da aurki argitarako dudan XVII.mendean ekialleko bizk.z idatzitako bulda batekin.

(42) Aldaketez ik. aurrerago.

caya<sup>43</sup> contra Guipuz[co]a sobre la vena y la tiene el sr. Don Ju[an] Bau[tis]ta de Ybazeta». BBetako eta «Respuesta»ko eskuak ezberdinak dira, ene aburuz, eta ezin baiezta dezaket D J.B.Ibazetakoak zuen bera ala handik atera besteren bat dugun.

Nolanahi ere hurrengo *stemma* hau proposa daitekela deritzot:



non Ω =orijinala<sup>44</sup>, X=D ateratzeko erabili testua, D=Donostiako Artxibuko kopia, [ ]=testu galduak.

X eskuidatzia, eta ez inprimatua, bide zen zeren eta: 1) Dren kopiagileak inprimatu batetik kopiatzean egingo ez lituzkeen morduko hutsak eta egitera ausartuko ez litzatekeen aldaketak egin ditu: cf. 4g *echizadua*, 7b *chinchurrac* eta *dezu* (ik.III.19e); 2) Ia zalantzak gabe X bertso lerro luzeetan idatzirik zegoen eta ez laburretan D bezala. Har ditzagun 7b-c lerroak; Dn dauden legez (*Guipuzcoar[ra]i beren chinchurrac / sarri gorde deuste*) BBetako pasarterik ilunena dugu. Zati horri dagokion oharrean azaldu bezala *chinchurrac c-n* behar du joan, eta ez *d-n*, horrela lor bait daiteke soilik i) 7b hipermetrikoa eta ii) 7c hipometrikoa ez izatea<sup>45</sup>, iii)

(43) Murugarrenen *Viscuya* inprenta hutsa da seguruenik.

(44) Hots, «todo aquel que alguien escribe directamente dictándose a sí mismo» (A. Blecu, *aip. lib. 17*). Orijinal hortaz ik. aurrerago. Blecuaren liburura bidaltzen dut *duplicrafia*, *haplografia* eta antzeko hitz tekniko solteen definiziorako.

(45) Arazo bera 13c-d eta 21c-d-n. Oraingo honetan ez dut metrikarekin sartzerik azterketa sakon batek urrutiegi bait ninderamake. Hala ere, b-k % 76 bat kasutan 7 silaba ditu eta soilik behin (27 *Oropesari mesedea*, izen propio batek bortxaturik) 9; c-k, aldiz, soilik behin ditu 7, 34 bider 8 eta 3tan 9, baina inoiz ere ez 6, kopian bezala. Oro har, eta salbuespen ugarirekin, 7a-7a-8x-7a-8x-7a-7a (a = puntu, x = solte) da bertsoon eskema metrikoa.

7b-k (*berea irakurriz*) puntu egitea, behar bezala, 7a-rekin. Honek X-en *Guipuzcoar[ra]i berea chinchurrac sarri gorde deuste*, dena segituan, idatzia zihola eta gero D-rako kopiagileak gaizki zatitu zuela, lerro laburragotan, adierazten du, ene ustez.

Eskuizkribuetan ugari dira lerro luzeetan idatzi bertsoak<sup>46</sup>; arestian argitaratu XVIII. mendeko hiru testu baino ez aipatzearen gogora Barrutia, Peñaflorida eta 1716ko bertso batzuen zatiok:

*Ondo izateco vear neusquio zancazanac ebagui  
Bera dazan oearequin su emon prestuezari.*

(*Acto para la Nochebuena* 142-143):<sup>47</sup>

*Mundua alegre bedi, tristurak utzirik  
Iñoz ekusi ez da onen gau argirik.*

(*Jesusen jaiotzako bersuak* 1.ko ahap.)<sup>48</sup>

*Yresatt trosac eguitecosatt ecarri diat carisa,  
Beti sucaldian orr aza dirudiala Marisa.*

(*Lasarteko 1716ko bertsoak* 8.ahap.)<sup>49</sup>

X eta Ωren bitartean zenbat testu izan zitezkeen eta horietarik bat edo gehiago ahotik paperera hartua izan daitzeen ezin da esan oraingoz; ez litzateke harritzeko, ordea, zabalkunde handia izan bait zuen —istiluek iraun zuten bitartean— testuak, Dren etorkia bera lekuko.

(46) Erromantzen edizioekin gertatuarrekin gonbaratzeko ik. R. Menéndez Pidal *Romancero Hispánico* I 92-105, Espasa-Calpe Madrid, 1953.

(47) *ebagui* eta *emon* zuzendu ditut Latxagaren *ebaqui* eta *eman*, hala fotografian argiro ikustearaz gainera horiek bait dira biz.zko formak. Latxagaren edizioko errata guztiak bildu izan ditut ene tesinan (*Thesauruserako*). Esan gabe doa —ez dago obraren hasiera ikustea baizik— *Actoan* badirela lerro laburretan idatziriko bertsoak ere.

(48) Ik. Joseba Andoni Lakarra «XVIII.mendeko zenbait bilantziko berri» ASJU XVI(1982) 106.

(49) Ik. Jose M. Satrustegi, «Lasarteko bertso paper zahar bat (1716)», Iker-2 571-581. Satrustegik, seguru asko oharkabean, *arratza* aldatzen du (580.or.) gaurko grafian testuingurua argia izateaz at itzulpeneko «que siempre estas en la Cozina» horrek ez bait du duda izipirik uzten.

## II.2. Ω-rantz.

«La crítica textual es el arte que tiene como fin presentar un texto depurado en lo posible de todos aquellos elementos extraños al autor» diosku Alberto Blecuak<sup>50</sup>. Gure kasuan D baino gordetzen ez dugunez gero, bertan oinarritu beharra dugu (barneko kritika batez) Ω-tik ahalik eta hurbilenik egon daitekeen testua ezartzeko.

*Emendatio ope ingenii* rako erabili ditudan irizpideak ohizkoak dira eta A. Blecuaren liburu bikainetik<sup>51</sup> hitzez hitz aldatuaz ematen ditut hemen: a) *lectio difficiliorra*; b) *usus scribendia*, egilearen eta garaiko idaztankera, alegia; c) *conformatio textusa*, hots testuingurua; d) *res metrica*<sup>52</sup>.

(a), (c) eta (d)k iruzkin berezirik behar ez duten arren (b) garrantzitsua eta azaldu beharra da hortan oinarritu bait naiz Dren forma gipuzkoartuak berbizkaieratzeko. Ene ustez, Dren kopiagilearen gipuzkoartzea ezinukatuzkoa da: cf. D 2a *zerutic*, 3e *obedecitu*, 20c *suceditu*, 4e *badaqui*, 6a, 9e *nere*, 14f, 33c *guere*, 6f *berrian*, 8b *jabea*, 10e *músugorac*, 13a *ceban*, 19e *dezu*, 10g, *desu*, 30d *Goarnicio*, 32g *legaz*<sup>53</sup>.

Euskalki aldaketa hori gehienetan oharkabean egin zen, froga garbiak bait daude bere lanean aurrera zihohan neurrian, biz.zko formez ohartuaz, etorkizko eran mantentzen ahalegindu zela kopagilea; gorago aipatu pasarteen alboan beste hauek ere bait ditugu Dn: 14f *parteti* (eta 3e *ezagaiti*, 3g, 33e, 36g *agaiti*, 32c *zegaiti*), 28c *permitidu*, 36d *conseguidu*, 37b *aduertidu* (eta *adu* 4g, 8d, 13d 18e, 34a, 36f, 36g, 37f eta 37g-n), 1g *baqui*, 21c *bira*, 15g, 35a *geurea*, 15f *gueure*, 30a *jaubea*, 18e *eban*, 38e *dozu*, 10g *espadosu*, 22d, 35c *dozun*, 19c *ocasinoe* (eta 11f *dinoe*, 13g *dino*, etab.).

Ez deritzot beharrezko kopiako hutsen zerrenda eta tipologia luzeegirik egiteari arruntak izateaz gainera *Irakurketazko Oha-*

(50) *aip.lib.18*. Cf. «The business of textual criticism is to produce a texte as close as possible to the original» (Paul Maas, *Textual criticism*, Oxford University Press 1958 1.ko or.; alemanezko orijinala 1927ko da).

(51) *aip.lana* 124.or.

(52) Hontaz ik. aurreko atalean eta III 22f, 24b, 24d etab.

(53) Teorian ditekena da X-en edo aurreragoko testuren batean alda-ketok jadanik ematea, baina horrela balitz aldaketak askozaz handiagoak, ia antzeman ezinak, izango bide ziren gordetzen den kopian, Kopiagileak *Lectio faciliorrera* eta formak bateratzera emanak bait dira.

*rretan* (III.atala) xeheki emanak aurki bait daitezke<sup>54</sup>. Irakurleek eta ikertzaileek eskubidea dute beti datu guztietaz jabetzeko eta, argitaratzailaren iritziekin ados ez baletoz, beste bide batetik jotzeko; horregatik argiro bereizi nahi izan ditut *irakurketak* (Murugarrenenak edo neureak) eta *proposamenak* (Mixelenarenak zein neureak); halaber, proposamen nahiz irakurketen segurantza nahiz zalantzakortasunak agerriki ezagutzen direla uste dut.

«As a result of this *examinatio* we discover that the tradition is either (1) the best conceivable, or (2) as good as other conceivable traditions, or (3) worse than another conceivable tradition but at all events tolerable, or (4) intolerable. In the first of these four cases we must look on the tradition as original, in the last as corrupt; in the other two cases we may, or must, hesitate».

diosku Paul Maasek bere testu-kritikazko liburu ezagunean<sup>55</sup>. Ez da erraz, ordea, inongo barne zimikorik gabe irakurketa bat lau maila horietarik batean sailkatzea, eta baliteke behin baino gehiagotan huts egitea. Alabaina, Continik esan legez<sup>56</sup>, edizio bat ez da lan hipotesi bat edota, erantsiko nioke elkarrizketa filologiko baterako deia baizik; lana, elkarrizketa (eta eztabaida) beharrezko bait ditugu hurrengo edizioak hobeki atera daitezen<sup>57</sup> eta, azken finean, filologiazko ikasketak aitzina.

«...dizen los sabios que toda lectión se deve leer diez veces primero que se diga que se leyó; que «se leyó» se dice, y no que se entienda». (Ferrarako Bibliaren hitzaurrean)<sup>58</sup>.

(54) Nik erantsia kako /[]/ artean doa; puntuaketa eta hitz banaketa ere nireak dira, noski, eta gaurko erara moldatuak daude. Bertso-lerro laburretan ematen dut testua ez bait dazagut zehazki Qren egitura (3 lerro luze eta labur bat, azkena, ahapaldiko?).

(55) *aip.lana* 10.or.

(56) *apud* Alberto Blecu, *La transmisión textual de «El Conde Llano»*, Universidad Autónoma de Barcelona 1982, 126.or.

(57) *Egiak katolikak edota Euskal Herri maiteari bezalakoak —izen-buruak baino ez aipatzearen— errepika ez ditzagun.*

(58) *apud* A. Blecu, *Manual...* 9.or.

**II.3. *Testua.***

1. Altiezea zeugaiti,  
zenbat calte munduari!  
Besa berac nola jaca  
leen da guero etorri;  
ytaun bequio espabere  
egun Guipuzcoari,  
esango dau zerren baqui.
2. Zeruti gaitean assi,  
Luzbelegan zan ecussi,  
azartu zan essatera  
«yzango naç goiti».  
Barriz Guipuzcoari  
enzun deusagu sarri  
gareala beiti.
3. Aitac nola Ycarori  
Aranburu onei  
conseju ei eusten emon  
«es ygon altuegui».  
Obedecidu ezagaiti  
alango gurasoari,  
agaiti dira jaussi.
4. Contu onetan pensacen nago  
dala culpante Marruco  
caue de pala etorri jat  
versoan azartuteco;  
nola baqui Marrucoc jaiten  
soñua chito dulcero,  
zenduzan echizaduco.
5. Impossible da bestela  
ain laster mosquetera,  
noisbait Moretec dinoan legues  
egon zara azera.  
Cec ecarri çaitu orain  
decretoa eguitera,  
bay Vizcaya yltera?

6. Gauza au ne[u]re yrichian  
fundaetan da inbidian  
zerren garean ezagunac  
gu erreinu gustian  
preuilegiaduac gara  
Gastela zar da barrian,  
ez Guipuzcoaco errian.
7. Valladilico salea  
Guipuzcoar[ra]i berea  
chinchurrac sarri gorde deuste  
honrrea eta vizicea  
ezaguzen espadaue  
alango mesedea  
asse vay vanidadea.
8. Ydiacaizco semea,  
Ynsaustico ja[u]bea,  
zeure pausoac estitues  
estimadu sobreia:  
insaurrac dacusela  
tratamentu deunguea  
emon oy dau frutea.
9. Orra gure pagua  
gal di[di]la mairua  
Cain nolan quendutera  
dator guri burua  
yzango esta ne[u]re ustean  
ain golpe segurua  
espada amenazua.
10. Uste al dosu Viscayan  
ain gente biguna dala  
nola zeuen alardeen  
vildurraq dagoezala;  
con todo mosugorac dira  
guiçonac emen bere,  
espadosu bere uste.

11. Siquiera D[o]n Lope,  
zuec espadaquizu bere,  
disparaetan daquiana da  
arcabuz ta mosquete;  
besteoc ezer estaquigula  
Guipuzcoan ei dinoe,  
zuenzat ori bere obe.
12. Jaunaren prouidencia,  
nola bada andia,  
cabu faltas esta ychico  
Viscayco erria;  
artuteco capaz gara  
gu onen industria,  
guei[a]go ez Prouincia.
13. Ez eban nay çeruac  
gura euquean pobluac  
zuecaz campañara urten  
da prouadu escuac;  
gure buruan ausiteco  
ecarri ei zenduz goruac,  
alan dino foruac.
14. Goruac zuec obeto  
beste armarić baino,  
goruac beti yzango dira  
balaac ta gezi uaño.  
Ercules baño obe dogu  
geure parteti Bulcano  
goruetan a badago.
15. Onetaraco mea  
da gauza importantea,  
agaz baicin ezin ley  
goru[u]aco armea.  
Estimaduaz ez admiradu  
gueure alango prendea,  
bedeinca erri geurea!

16. Zuen coronel Ysassi  
ei da soldadu andi,  
con todo eztau oraindio  
Bilbaon ofic ifini.  
Obe dau egoitea  
bere erri aldeti  
egun, biar didin vizi.
17. Ventaja romanoay  
deroesu Ysassi,  
guztiac bildur jatezanac  
bildur jacuzan guri.  
Gauza andi bat lograzea  
intentazen dauena  
conta dila azañaea.
18. Tolosa aldeco mENDIA,  
zeure aguin orria,  
enzutea dot izan zala  
guiza eralla andia;  
romanoac logradu eban  
intentoaren erdia,  
beretutea Prouincia.
19. Viscayari esquerra  
ygaro ezan aurrera,  
ocasinoe gustietan  
yzan da suen broquela,  
aurreronçean bearco dozu  
Viscayaren defensa,  
ezpa juan Errochela.
20. «Poloniaco errege»  
guizon oney dereste  
nola sucedidu yaquez  
Turcoagaz ainbeste.  
Bere moduan Vizcaya  
bigunago esta bapere,  
espa ecusico daue.

21. Betor ara Arrataue,  
 ei da chito valiente;  
 guztiac ez arren baçuc  
 bira agaz ombre a ombre.  
 Milla guizon guichi badira  
 pigmeoac baguina bere  
 Bilbaon. Ala[n] ey dinoe.
22. Apasto badau babea  
 Arabac mortandadea  
 zuen alde eguin day  
 dozun anae maitea  
 beretuteco usteagaz;  
 armac ta diuise[e]a  
 aruola-ese parea.
23. Orduña aldeco acha  
 bego yregui baga,  
 zuoc ere bazaozque or  
 gure mearic baga;  
 Arabac ecarrico dau  
 Guipuzcoa onestera,  
 lagun esteyo guerrara.
24. Ze dasadan bestela  
 araco Beltran: «Cortera,  
 —zuc esan ei senduen—  
 Vizcayagaz pleit[e]a»  
 podoreac artu eta  
 juaterren cortera.  
 Ce ebilgura errena!
25. Francesac Ondarriuia  
 beti oy dauca cuticia.  
 A! Aztu yaçu, Guipuzcoa,  
 Domingo de Eguia;  
 goruncean bidaldo yaçun  
 soldadusco elia,  
 cabu Echaburu andia.

26. Orduan ere Araua  
 Moretec dinoan nola  
 etorteco ezan yzan  
 francesaren vistara;  
 joango gara norabuena  
 zuenzat garitara  
 baya es armadara.
27. Orain badozu mea,  
 Oropesari mesedea.  
 Emon deusu sinistea,  
 —Andicanoren berbea—  
 francesari ze zatoçan  
 yditera atea.  
 Oy ze marauilea!
28. O çé estratajamea  
 eroateco mea!  
 Gaizqui permitidu yzan da  
 es bazuc desterretea  
 eta Orana lanza banagaz  
 laurac bidaldutea;  
 ezan gaiztoa lauea!
29. Vizcayagaz Motricu,  
 noc euquean sinistu  
 frances oncia euqueala  
 belaetaric billostu!  
 Marquinaco erreguearen  
 leen diite beartu  
 ce ez ango tratuaren gu.
30. Calebarrengoa jaubea,  
 baita estudiantea,  
 nun daucazu Durangoren  
 goarnici[n]o escarguea,  
 Padre Pedro Geronimoren  
 barraco chocolatea?  
 oy ze jentilonbrea!

31. Cec[e]ilgo erurra  
ezan eldu Ermura.  
Eguno inoc enzun estau  
onelango frescurea.  
Gutziz oba leuke Heibarrec  
burdiña sein da erurra,  
baita capa euna negura.
32. Al fin placentinoa,  
Lequeitioco astoa,  
zegaiti deusazu eguin  
ain pasaje gueistoa?  
Ez eroan ac gañean  
Balan profeta falsua  
espa lebaz frescoa.
33. Ez da ona Bergara,  
su obea ezara  
geure errico guizonay  
ydeteco oyala;  
agaiti derichu zuri  
«ceiñatu ta aygara»  
ezpa ychi bay azala.
34. Acauadu yat musea,  
ze dasadan sobreia,  
goruncecoa ychiteco  
ya da denporea:  
anae ta ausoari  
galdutea lustrea  
ezta gure honrrea.
35. San Ignacio geurea  
eguizu arren baquea  
dozun esquiero an da emen  
zeure zenipartea;  
ez beguiratu eguiteaz  
guisonac usseguitea  
bada ezaguzea.

36. Badaqui[gu] garbatu  
bitartecozat zeu artu,  
ce esta Guipuzcoa  
guganic conseguidu;  
aec nola gu [ue]re gara  
zugana interesadu,  
agaiti patroi nombradu.
37. Ezin daizu ucatu  
nolan ascoc aduertidu  
zaytuzan eguin bear yacala  
Viscayari erregu;  
santua bere eztaquidizu  
orregaz baliadu,  
baya su obstinadu.
38. Paraliticoaren quejea  
guizonic es edutea,  
nor baliau daucazula  
zeuen terquedadear;  
urte ascotan zeuec dozu  
osasunaren faltea,  
Jaunac disula eultea.

### III. IRAKURKETAZKO OHARRAK

1a. Mur. *altinezca*, Mitx. oharkabean) *altinezea*. Esk.an -c- gaizki irakurtzen da tinta mantxagatik.

— *zeugaiti*. Esk., Mur. eta Mitx. *zeugati*; Cf. 3e *ezagaiti*, 3g, 33e, 36g *agaiti*, 32c *zegaiti*.

1c. Mur. *zakan*, Mitx. j-; ez da <j>ren aldaera grafiko bitxi bat baizik, txapel handiarekin. Cf. 30a.

1g. Oharkabean lerro hau ez da agertzen Mur.en edizioan; Mitx. (221.or.) konturatu zen hontaz: «lehenbiziko ahapaldiak [Mur.en edizioan] oso eta bete dirudi zentzuaren aldetik: besteen aldamenean, ordea, lerro bat (azkena edo azken-hurrena) falta bide zaio».

2a. *Zeruti*. Esk., Mur. eta Mitx. -tic; haatik -c hori kopiagilearen eraskina bide da. Cf. *Hizkuntzazko oharrak* (IV) 14f.

2c. Mur. *azartaran*, Mitx. (Esk.arekin) *azartu zan*.

2d. Esk. eta Mur. *nac*, Mitx. *ygongo noc*; azken honek «dakigunez, *igon* iragankorra da bizkaierazko lehen testuez gero. Ez ote daiteke *nak* (=naiz) giputz modura? dio. Ene ustez *yzango* segurua da grafiaz eta bertsio egituraz (cf. 2g *gareala*) ez soilik Esk.rako baina baita orijinalerako ere; Esk.ko *nac*, aldiiz, kopiagilearen hutsa bide da. Bi zuzenketa modu izan daitezke, 1) *noc* irakurri Mitx.rekin, 2) *naç* irakurri, —a— mantenduaz eta c-ren marratxoa ahaztu dela suposatuaz (cf. 25c-e). Bigarren hau hobetsi dut bestea bezain zilegi izateaz gain, testuan hikako forma bat ere agertzen ez delako.

3a. Esk. eta Mur. *yçacori*, Mitx. *Ycarori*; zuzenketa segurua da tradizio klasikoaz at, giputzaren erdal erantzunean ere Ikaro ai patzen bait da besteen arrokeria zapuzteko, Mitx.k (221) esan bezala.

3b. Esk. eta Mur. *onei*, Mitx. *oneri* baina «dudan ipini dut *oneri*» (221) gehituaz. Cf. 20b *oney*. Bertsoaren ertzean «Don Miguel de Aranburu fue el escribano a quien se le encargó la [depen]denicia de la [v]ena, estando de partida para Madrid, al negocio de su hermano, el almirante» ik. IV.

3c. Mur. *conseyu*, Mitx. —j—. Cf. 1c.

— *eusten*. Mur. *custe(a)n*, Mitx. *eusten*. Esk.an *a* edo *e* borratu bat *e* eta *n* bitartean.

3d. Mur., Mitx. *es*.

3e. Esk., Mur. eta Mitx. *obedecitu*; *-du* ezarri dut *-tu* kopiagi-learen aldaketa dela pentsatuaz. Ik. 20c.

4a. Mur. *contr*, Mitx. *contu*:

Mitx. *pensaçen*, Mur., Esk. —*c*—.

4c. *Jat*: Mur. *zat*, Mitx. *jat*. Cf. 1c, 4d, 4e.

4d. Mur. *ayartuteco*, Mitx. *az*.

4e. Mur., Mitx. *Marruecoc*.

— Mur. *zaiten*, Mitx. *j*-

— *baqui*. Esk., Mur. eta Mitx. *badaqui* baina lerroa hipermetri-koa izateaz at cf. 1g *baqui* eta hizkuntz eraskinean lerro horri jarri oharra.

4g. Mur. *echizadua*, Mitx. *-uco*; Esk.an *-a* ematen du. Segurki kopiagileak aurreko testu baten *-co>a* bihurtu zuen *c*-ren bi puntak *o-ri* lotuaz eta hau guztiz itxi gabe utziaz.

5. Ahapaldi hau 6.a da Mitx.rentzat, eta 5.a nire 6.a.

5c. Mur. *dibar*(?), Mitx. *dinoan*; Esk.an *dioan*, *oa-ren* gainean *c* ahoz gora bezalako *n-tzat* hartu dudan marra bat.

6a. *ne[u]re*. Ik. IV.

6b. Mur. *fundartan*, Mitx. *fundaetan*. Ez dago *fundaitan*, *fundaytan* «edo antzeko zerbait» (Mitx. 222) suposatu beharrik —*e*— argi ikusten bait da.

— Mur. *vinbidian*, Mitx. *ymb*-. Bainan *v*- edo *y*- horiek 6.a-ko *y-ri* dagozkion beheko puntatxoak baino ez dira.

6f. Esk., Mur. eta Mitx. *berrian*. Alabaina —*a*— segurua da (cf. 2e *barriz*) orijinalerako bizkaitarrek egina izaki; 6g *errian* ez da oztopo puntuak *-ian* bait da. Errazena kopiagilearen gipuzkoartzea suposatzea bada ere (ik. gorago II.2) <*a*> → <*er*> aldaketak ez dira ezinezkoak ez gutxiago ere; cf. Mikoleta *Modo breve* (Fitaren ed.) «*sacar, aterra*».

7b-c. Esk., Mur. *Guipuzcoari beren chinchurrac*, Mitx. *Guipuzcoari...ea*. Zalantzarak gabe hau da testuko pasarterik ilunena; «zer da beren eta zer da, batipat, *chinchurrac?* Nolazpait ere, -ea (baina *chinchurrea!*) eskatzen du lehen lerroak, eta bat bakarra da, bestea beste, *deuste baldin* bada nagusi» dio Mitx.k (222.or.). Nik ere -ea puntuia mantendu behar dela deritzot Mitx.ekin, baina horretarako *beren berea* bihurtuaz; *chinchurrac* ez dagokio 7b.ri baina 7c.ri ener ustez, lerro honetara igaroaz hitz hori, neurria asko hobetzen bait da 6tik 9 silabatarako igoaz. Ez deritzot batere arra-roa edo ezezaguna denik lerro baten lehen hitza aurrekoaren azkena izatea, batez ere horrek puntu egiten ez badu, hemen bezala. Gainera baliteke orijinalean edota azken kopia egitean erabilitako testuan, bertso zatikatzerik ez izatea ere edota lerro luzeagotan ezarriak egotea (ik. II).

Beraz, *Guipuzcoar[ra]i* (aditzak *haiei* dagokion datibo marka bait du) *berea/ chinchurrac sarri gorde deuste* genuke. *Chinchurraci* buruz cf. *Diccionario Trilingüe cintzurra, chinchurra* «nuez de la garganta» (eraskinean *gorgolla*), eta Arakistain 605 *chinchurra* «garganta».

7g. Mur. *asae*, Mitx. *asse*. Esk.an *as.e* argiak dira; 3.lettra ez dago argi 7f-ko -g-a gainjarria bait dago.

8b. *ja[u]bea*. Cf. 30a *jaubea*; 2.honetan kopiagileak orijinala mantendu du. Cf. 20 c-n *zerutic-i* buruzko oharra.

8.g. Mur. *emon* (?) *vidan frutua*, Mitx. *emon oydau frutea*, Esk. *frutua* baina -ea zuzendu dut puntuagatik Mitx.rekin. Ertzean: «Don Antonio de Ydiaquez, embiado después al mismo negocio, a Madrid».

9a. *ne[u]re*. Ik. IV.

9b. *didila*. Mur. eta Mitx.k Esk.ko *dila* mantentzen dute baina badirudi haplografia bat izan dela, hau bait dugu 7 silabatik beherrako 2. bertso-lerro bakarreko ahapaldia. Cf. 17g *dila* baina 16g *didin*.

9c. Mur., Mitx. *nola*.

10a. *dosu*. Esk., Mur. eta Mitx. *de-* Ik. 19e.

10b. Mur. *bigana*.

10c. Esk., Mur. *zeueyen*, Mitx.k *zeuroen* zuzentzen du. Ene ustez, *zeue+ue+n* duplografia bat dugu, -ue-ren errepikapenarekin eta <u> → <y>rekin.

10e. *mosugorac*. Esk. *mu-*; aldaketaz ik. Mitx.ren aipamena IVean.

11b. Esk, Mur. *espadaguzu*, Mitx. *espadaquizu* zuzentzen du.

11d. Esk., Mur. eta Mitx. *arcabuza* baina gramatikaren aldetik ez eze neurriarenetik ere sobran dago -a hori 38 kasutatik d lerroak 33tan 7 silaba baitu ditu, 3tan 6 eta soilik 27. eta 28. ahapaldietan 8.

11e. Mur., Mitx. *ecer*.

11f. Mur. *dinoe(la?)* baina eraskin hori ez da beharrezko ez zilegi ere 11g-ko *obe* bait du puntukide.

Ertzean: «Don Lope de Andonegui, sargento mayor».

12b. Mur. *ardia*, agian errataz.

12c. Mur., Mitx. *estu* baina hori ezinezkoa da.

12e. Mur., Mitx. *capas*.

12f. Mur. *one(a)n*. Esk.an zerbait ezabatua dago *e* eta *n*-ren artean.

13. Bertso hau 14.a da Mitx.ren edizioan, eta alderantziz.

13a. Esk., Mur., Mitx. *ceban*. Aldaketaren arrazoiaz ik. hizkuntz iruzkina.

13c-d. Esk., Mur. eta Mitx. *zuecas campañara urtenda/prouadu escuac*. Alabaina neurriak *da* 13d-n joatea eskatzen du, 8 eta 7 silaba izan ditzaten behar bezala eta *ez 9* eta 6. Kopiagilearen beste huts berdin batez cf. 7c eta 21 c-d.

— Mur. *provad(u)*, baina *-u* segurua da.

14b. Ik. IV.

14d. Mur. *bala aceta germano*, Mitx. *balaac eta ...ano*. Esk.an *balaac eta ge garbi dago*; gero, Mur.en edizioarekin gonbaratuaz, <r> = <z>, <m> = <iu> eta <n> = <ñ> aldaketa ezin errazagoak genituzke; bestalde, *uaño* irakurtzea zilegi zela ikusteko 14b *baino*rekiko potoa gora behera, gonbara bedi Etxeparereren hurrengoa zati honekin: I.376. *Zeruia ezta ebiliren hantik harat iagoitik/ iguzkia egonen da orienten geldirik/ ilhargia okzidenten begiz begi iarririk; / egun honek iraunen du eben eta iagoitik,/ alabana ez izanen heben gauza bizirik.* Altunak dioen bezala «honetako poto di-relakoak baditu gehiago ere gure poetak: ikus I, 6-8 (*gaberic*), I, 129-133 (*beqhatu*). Errima kontuan ez da oso zorrotza, ezta bertsola-

riak ere komunzki» (P. Altuna *Linguae Vasconium Primitiae (edizio kritikoa)* Bilbo 1980, 70.or.). BBotarik ilkigabe baditugu proposatuaren tamainako potoak: 23b-d *bego yregui baga, / zuoc ere bazaozque or / gure mearic baga;* 31a cf. *ec[e]ilgo erurra / ...burdiña sein da erurra; ta aldatu dut eta soilik vokale ondoren* (7d, 24e) edo lerro hasieran bait doa; 22f-n kontsonante ondoren doa baina han ere neurri okerrak kopiagilearen aldaketa salatzen du.

14e. Mur.k (Esk.arekin) *Erculos; -es* zuzendu dut Mitx.rekin.

— Mur., Mitx. *cogu* baina honek iruzkinean «aldabeharra iruditzen zait orain: *obe* (zein *oba*) *dogu* egokiago genuke» dio. Esk.an goitik beherako palua nabarmena da nahiz eta *c-ren* tinta sendoagoa izan.

14g. Mitx.k *oba dago*, baina ez da aldaketa horren beharrik.

15c. Mitx.k *baicin* aldatu du Esk. eta Mur.en *baicen*; nik zeoen zegoenean mantendu dut, *baxen* edo *baizen* forma arruntagoak izan arren *baizinek* ez bait dirudi ezinezko. Cf. Mikoleta *bixin* I. Sarasola «Contribución...» 199-33).

15d. Mitx.ren proposamena («Ad experiendub» 225) nirea eginaz *goru<u>aco* irakurri dut Esk. eta Mur.en *goruaco*.

15e. -*u* aldatu dut Mitx.rekin Esk. eta Mur.en *admirada*, baina ez naiz asebetea gelditzen hala ere lerro honekin.

15f. Mur. eta Mitx. *ge-* baina *gue-* argi dago Esk.an.

15g. Esk. eta Mur. *bedenica*; Mitx.rekin *bedeinca* aldatu dut forma hura ezinezkoa bait zen. Beraz *-in-* > *-ni-* grafikoa genuke *-i-ren* puntuaren aldaketa soil batekin.

16c. Mur. *conbodo*, Mitx. *con todo*. Cf. 10e.

16d. Mur., Mitx. *onic*, baina ñren txapeltxoa nabarmena da.

16g. Mur. *biar(n)*. Testuingurutik *-r* baino ez da zilegi, jakina, testuaren arabera *-n* errazagoa bada ere.

Ertzean: «Don Domingo de Ysasi, coronel de Guipuzcoa».

17d. Mur. *bildua*, Mitx. *-r*. Esk. id; Mur.en *zacuzan-i* buruz ik. gorago 1c.

17g. Esk. eta Mur. *dala*, Mitx.k *dayla* proposatzen du baina *dila* zuzenago eta errazago iruditzen zait, cf. 9b *dila*, 16g *didin*.

18. Bertso hau eta 19.a alderantzizko ordenan agertzen dira Mitx.en edizioan. Lehen 13.a eta 14.a bezala.

18b. Esk. eta Mur. *aguni*, Mitx.rekin *aguin* zuzendu dut; beste *in=ni* baterako ik. 14d, 15g, 22c.

19a. Mur. eta Mitx. *Viz-* baina Esk.n *Vis-*.

— *esquerra*. Mur. *esquerz(r)a*. Azken bigarren letrak z badirudi ere hobe iruditzen zait Mitx.rekin *r* irakurtzea.

19c. Mur. *ocasino(?)e*, Mitx. *ocasinoe*. Esk.an *o* tinta mantxaz estalirik dago.

19e. Mur. *aurrerorçean*. Esk.an bai *r* bai *n* irakur daiteke baina testuinguruak *n* hobestera narama Mitx.k egin bezala.

— *dozu*. Esk. *dezu*, Mur. *dera*, Mitx.k *deue* proposatzen du; 10a-n bezala *de-* kopiagilearen aldaketa da, cf. *do-* 10g, 22d, 35c, 38e eta 27a (azken honetan Esk. *baduzu* errataz, ez zuzenketaz).

19f. Mitx.k, errataz?, *defensea* aldatzen du baina testua dagoen dagoenean hobeki dirudi *-ako* puntuia aski bait da; cf. *-i* 16 eta 17. ahapaldietan eta 19.eko beste lerroak.

20a. Esk. eta Mur. *erreguea* baina *erregue* zuzendu dut Mitx.rekin *-e* bait da puntuia.

20b. Esk. eta Mur. *creste*, Mitx. ...*te*; ene ustez *dereste* (*deriste?*) behar du testuinguruaren arabera.

20c. Mur.k (Esk.arekin) *suceditu*; Mitx.rekin *-du* ezarri dut kopiagilearen gipuzkoartze hau.

— *yaquez*. Mur. *yaquaz*, Mitx. *jaquaz*. Azken-hurrengo letra ez da erraza (*a zein e*) baina testuingurutik (*oney*) e hobetsi dut.

21c. Esk. eta Mur. *baçue*; Mitx.rekin *-c* zuzendu dut.

21c-d. *bira*. Esk.an *c-n* agertzen den arren *d-n* jarri dut honela ematen bait du neurria. Arazo beraz cf. 13c, 7c.

21g. Mur. *diroe*. Esk.an *r* zein *n* izan daiteke; Mitx.rekin *n* irakurri dut besterik ez bait litzateke zilegi.

Ertzean: «Don Francisco de Arratave».

22b. Mur. *mortandadoa*; Esk.an *e* zein *o* izan daiteke. Mitx.k legez *e* jarri dut \*\**mortandadoa* gramatikaz ezinezkoa izateaz gainera *-ea* eskatzen bait du puntuak.

22c. Esk. eta Mur. *eguni*, Mitx.k *eguin* zuzentzen du. Huts honen adibide gehiagotarako ik. 18b.

22f. Esk. eta Mur. *divisa*; Mitx.rekin *divis[e]a* zuzendu dut puntuagatik.

— *tari buruz* ik. 14d.

22g. Mur. *es oparea*, Mitx. *opazea*; *ese (=etse)* zuzendu dut da-goenean ezer ez bait du esan nahi eta *arbola [eta] etse parea* Bizkaiko armarriaren aipamena izan bait daiteke. Cf 14e eta oharra.

Ertzean: «...a la unión de Guipúzcoa con Alava... es la pendencia de la ve[na] como primº... la peña de Orduña, di...ma abajo». Ezin hobetu izan dut Mur.en irakurketa hau.

23a. Esk. *Ordiña*, Mur. *Ordizia(?)*; Mitx.rekin *Orduña* zuzendu dut, aipamenek eta historiak horrela eskatzen bait dute.

23b. Mur. *paga*, Mitx.k Esk.arekin *baga*.

23c. Mur. *bascaozqueoc(z)*, Mitx. *baçaozque or*, Esk. *baza-*

23f. Mur.k Esk.arekin *onestara*; Mitx.k *onetara* aldatu du baina ez genuke espero \*\**Guipuzcoa onetara* bizkaitar baten luman. Hobeki dirudi *onestera* irakurtzea; hots, Arabak Gipuzkoa baketu eta Bizkaia maitatzera ekarriko duela, bere gerla asmoetarik atze-raeraziz.

24b. Esk. eta Mur. *Cortes*; Mitx.k *corteza* zuzendu du baina «aski oker zuzenduak daude: itxuratxartuak hobe. *Corteza?*» erantsiaz (op. cit. 230). *Corteari* ez diot loturarik antzematen eta horregatik nire proposamena; hortik letorkeen potoaz (24f *cortera*) cf. 14d.

24c. Mur. *zue asaioei(?)*, Mitx. *suc assi ei*. Esk.an *Zue esan ei senduen* irakurtzen dut; *ez dakit senduen* hori orijinalean horrela ala *-an* izango ote zen.

24d. Mur. *Vizcayar* haplografiaz eta *-z=-r*; Mitx.k azken huts hau zuzentzen du (*Vizcayaz*).

— *pleit[e]a* jarri dut Mitx.rekin; berak esan bezala *pleituak* poto egingo luke.

24f. Mur. *jauterren*; Mitx.k *jua-* zuzentzen du Esk.arekin.

Ertzean: «Juan Beltran del Puerto, cojo en... Madrid sobre la...».

25b. Mitx.k testuan *ey* aldatu du Mur. eta Esk.aren *oy* «berdintsu litzateke *oy daucā*» badio ere 232.orrian.

— Mur. *custicia*, Mitx.k *cuticia* zuzentzen du Esk.arekin.

25c-e. Mur. *artu yacu*, Mitx...*tu jacu*. Esk. zaharretako *r=z* berdintasunaz aritu naiz jadanik II.2.ean; lekuko gehiago behar duenak ik. beza Fitaren Mikolearen edizioko *ozayn, içato, oguigarteia, vaque-oroa* (sv. agora, ahogar, comadreja, pacífico). Ç-ren isatsa ahaztea ere ez zen batere arraroa nahiz eta inoiz —hemen bezala— esanahia zeharo aldatu; ahapaldi honetatik atera gabe dugu argi egiten digun 25e *bidaldu yacun* (Mur. *hid-*) (eta ik. 2d-ko *nac=nac* ere agian), non /jatzun/ behar duen, hots *zuei*, bizkaitarra bait da mintzo eta bizkaitarrak izan bait ziren, dirudienez, gipuzkoarrei laguntzera bidaia, nahiz eta (cf. «Respuesta...» VIII) gipuzkoarrek ez gehiegi estimatu laguntza hori. Bestalde Egiak, beste «txit argidotar»ren batek adinako osperik egun gorde ez arren, ez bide zen oraindik ahantzia (A. Arejitaro argitaratu «Canción Vizcayna»ko Alzolareko goraipamen agian sutsu bezain interesatuek inongo oinarririk bazuten bederen) XVII. mendearen bukaerarako Bizkaia aldean; bai, ordea, edo hori aurpegitatu nahi die behintzat egileak probintziano eskergaiztokoei, Gipuzkoan.

25g. Mur. *Echabioru(?)*, Mitx.k *Echaburu* zuzentzen du eta horrela behar ere, cf. «Respuesta...» VIII «...socorro que vino de Viscaya, cuyo cabezº Echaburu...».

26. Mitx.k ahapaldi hau eta hurrengoa alderantzizko ordenan dakartzia.

26g. Mitx. *ez*, Mur.ek Esk.arekin *es*.

27a. Esk. eta Mur.ek *baduzu*, Mitx.rekin *badozu* zuzendu dut.

27c. Esk., Mur. eta Mitx.k *deusa*; -*u* aldatu dut *zuei* (Araba eta Gipuzkoari) bait dagokio *badozu* bezala; -*u=-a* nahasketako gehiagotarako ik. 19e.

27e. Esk. *zezatocan*, Mur. *zecatocan*, Mitx. *zęcatočan*; ç-k sortu arazo gehiagotarako ik. 25c-e.

28a. *estratajamea* mantendu dut Esk. eta Mur.ekin; Mitx.k *-emea* aldatu du.

28d. *bazuc desterretea* zuzendu dut Esk., Mur. eta Mitx.ren kontra, cf. 21c *baçuc* eta Azkue sv eta *passim -adu / -eta-rako*.

28e. Mur. *orana lanza*(?), Mitx. *orain lanza*. Irakurketa zuzena Mur.ena da baina O- handiarekin, hots *Orana*. *Lanzarena* egilearen asmaketa izan bidekeen arren, *Orana* bidaltzea —gero Fuerte-venturara bezala— ez zen zigor ezezaguna.

28f. Mur. *bidaltatea*; Mitx.rekin *bidaldutea* zuzendu dut; <t> = <d> eta <u> = <a> ezagunak genituzke, beraz.

28g. Mur.ek Esk.arekin *lanea*; Mitx.k *lancea* proposatzen du. Errazagoa iruditu zait *lauea*, *n=u*-rekin eta letra eransketarik gabe.

Ertzean: «Abla de los cuatro diputados que fueron a Madrid».

29c. Mur. *eugueala*, Mitx.k -q- Esk.arekin.

29d. Mur. *billortu*, Mitx.k Esk.arekin *billostu*.

29f. Esk., Mur. eta Mitx.k *len*; *leen* jarri dut (cf. 1d *leen*) hori bait da lerroa laburregi gerta ez dedin ezagutzen dudan aterabide bakarra. Proposatzen dudan zuzenketa honi bi oztopo jar dakiz-kioke gutxienez: 1) Mitx.k (*FHV* 495-496) ikusi duenez vokale bi-koitzak Mogelek bederen silaba bakartzat hartzen zituela; 2) Gu-txiegi dakigula metrika zaharraz oro har, eta bertso hauenaz zehatzago, aldaketak egitera ausartzeko. Dena den Mitx.k berak (*ibidem*) eta B. Urgellek aurki argitarako den Alzolaren «Canción Vizcayna»n buruzko lan batetan *zoor-i* buruz esan bezala ba zen Mogelenaren kontrako joerarik; bestalde, bertso hauetako 6. lerroek gehienbat 7 silaba izan ohi dute (ik. 45.oharra) eta gainerako kasu guztietan beti 7 baino gehiago. Inoiz ere ez 6, ordea.

— *diite*. Esk. eta Mur. *deite*; Mitx.k *daite* zuzentzen du. Hobe deritzot (cf. 16g. *didin*, 9b, 17g *dila*) orijinalean -ii- zela suposatzen eta gero gaineko txapeltxoa soilik bietarik batena zela pentsatuaz -ei- bihurtu zutela pentsatu.

30. Mitx.k 31-30 ordenan dakartza.

30a. Mur. *zaubea*, cf. 1c.

30c. Mur. *Durangobaren*, Mitx.k *Durango baxen* proposatzen du. Esk.an *Durangoren* argi irakurtzen da; ez horrenbeste gainean *o* eta *r*-ren artean lerro gainean gero jarri den -ha- edo -na-. Ez dut testuan sartu zentzua ez bait zuen ezer hobetzen eta bai, aldiz, neurria apurtzen.

30d. *Goarnici[n]o* aldatu dut Esk., Mur. eta Mitx.ren *goarnicio*, orijinalean hala ekarri behar bait zuen; neurriak lehengoan irauten du aldaketa gora behera.

— *escarguea*. Honela irakurri dut Mitx.rekin; Mur.ek *ezarguea* dakar. Esk.ak batari zein besteri eman diezaioke amore baina soilik lehenak du zentzua.

30f. *barraco* irakurri dut; Mur. eta Mitx.k *banaco*. Hemen Esk.-tik nahiz bata nahiz bestea atera daiteke baina *barracok* zentzu hobeak ematen duela uste dut. Mitx.k berak «Eta *banaco chocolate* hori?» galdezen du 233.orrian.

31a. Mur. eta Mitx.k *ezurra*; haatik 2., 4. eta 5. letrak berdin-tsuaak dira alde batetik eta bestetik *ezurra* e-rekin ezinezkoa da bizkaieraz (konturatu zen honekin Mitx. baina bere lana jadanik kaleratzear izaki ez zuen zuzentzerik izan; berak ahoz adierazia). Beraz, *frescura* eta *negurarekin* ongi datorren *erurra* genuke. Cf. MI *erurra* «nieve».

31c. Mur. *enzurestea*, Mitx.k Esk.arekin *enzunestau*. Esk.an iluna dago azken bigarren letra eta hortik (gehi  $r=n$ ,  $a=u$ ) Mur.en irakurketa.

31d. Esk. eta Mur. *frescurea*; Mitx.k *frescura* ezarri du «puntuak beharturik, *frescurea*-ren ordez. Gramatikak, ordea, puntuak beste aldetik badabil ere, *-urea* eskatuko eta are aginduko luke. Ala ez?» (Mitx. 233). Alabaina *-ea* mantendu dut (neurrirako silaba bakartzat zenbatuaz) ez bait dakit gipuzkoar kopiagileak nola asma zezakeen *lectio difficilior* hori (bere joera guztiz bestelakoa izanik gainera) nahiz eta horrela puntuak okertu. Ez dakit arazo honekin zerikusirik dukeen Esk. 38f *osasunearen* horrek.

31e. Mur. *lengue*, Mitx.k Esk.arekin *leuque*.

31f. Esk. *burdiña*, Mur. *hurdina* (*hurdizia?*), Mitx.k *burdina*. — *erurra*, ik. 31a.

31g. «Azkeneko lerroa ilun baino ilunago agertzen zait. Kapak neguan eraman ohi dira udan baino areago. Halaz guztiz, ez dira, dakidanez, ehunez egiten, oihalez baizik. Agian *baita* da lerro horretan hitz gertu eta segur bakarra» dio Mitx.k (233.or). Haatik Esk.an irakurketa argia da; dena den ez bide litzateke ezinezkoa *uana* proposatzea *Eibartarrek* sujetu batekin.

32c. Mur.ek (agian errataz) *densazu*, Mitx.k *-eu-* zuzentzen du.

32f. Mur.ek Esk.arekin *falsua*; Mitx.k *falsoa*. *-ua* mantendu dut ustez hemen kopiagileak orijinalaren markaren bat aldatu gabe utzi zuela (*lectio faciliorra* lerro guztietan *-oa* egitea genuke). Bestalde,

*-oa/-ua* puntuak ez dira ezezagunak; ez dut uste orain, adibidez, ezer zuzendu behar denik, ene edizioan egin bezala, Barrutiaaren *Actoaren* 55. lerroan, nahiz eta *espossea / causia* gertatu. Cf. 63-64 *xuaria / egotea*, 234-235 *obia / eracuesta*, 336-337 *gureac / aisiac*, 190-191 *munducua / santuagoa* eta 318-319 *templuan / aoan* BAren testu horretan.

32g. *lebaz* bizkaitartu dut Esk.k gipuzkoartu eta Mur. eta Mitx.k mantendu duten *legaza*.

33a. Mur. *Erda*, Mitx.k *erdu* zuzentzen du baina Esk.ak *ez da* zilegi egiteaz gain, 33b-ko *su obea ezara* kontrajartze horrek beharezko ere egiten du.

33b. Mur.ek Esk.arekin *su*, Mitx.k *zu*.

33c. Esk. eta Mur. *guere*, Mitx.k *gueure* zuzentzen du; aski da *geurerek*, cf. 14f *geure*, 15g, 35a *geurea*.

33e. Mitx.k, errataz *zalantzari* gabe, *derich*.

34. Mitx.k 36-34-37-35 ordenan dakartzza bertsook.

34a. Mur. *azavaduyat(?)*; Mitx.ek eta Esk.ak argiro *ac-*.

34d. Esk.an *den-*, Mur. eta Mitx.k *dem-*.

34e. Mur. *ana eta aispari*; Mitx.ak *anae ta aispari*. Goiko eta beheko lerroetarik ateratzen diren letra puntek uzten duten neurriari, *ausoari* irakurtzeaz at, ohar bedi *aispari* ezinezkoa zela bizk.zko orijinalean.

34f. Mur. *galdatea*; Esk.an *-a*- zein *-u*- irakur daiteke baina bigarreña hobetsi dut, noski, Mitx.k legez.

35a. Mur. eta Mitx.k *gurea* baina Esk.an *geu-* argia.

35c. Mur. eta Mitx.k *ezquero*, baina ene aburuz *es-*.

35d. Mur. eta Mitx.k *senipartea* baina *z-* testuko nabarmenenetarikoa da.

35f. Mur. eta Mitx.k *guizonac*.

36a. Esk. eta Mur. *garbaiti*, Mitx.k *garbaitu* zuzentzen du baina «*garbaitu* 'damutu' ezinezko delako susmoa dut. *-tu* geldituko ahal da!» gehitzen du irakurketa azalpenean. *Garbatutik -tu=-tii=-iti* genuke aldaketa eta huts arruntekin (cf. esatebaterako *quetic* «ahumar» Fitaren MIren aipatu edizioan). Lerroaren lehen zatia (*badaqui*) zailago da hobetzen baina aldatu beharra dago datibo

marka —nori garbatu?— falta bait zaio; bai zentzuak eta bai grifiak *-gu* eskatzen dutela uste dut. Gero, haplografiaz, *-gugar>gar* genuke. Ohar bedi, gainera honela 7 silaba genituzkela eta bestela ahapaldi hau litzatekela 1.ko lerroan soilik 6 silaba lituzkeen bakarra.

36b. Mur. *zen*, Mitx. *zeñ*; *-u* segurua da ordea (cf 36f *zugana*) Esk.an ortografikoki ere.

36e. Hau da gehien itxuraldatu dudan lerroa, Esk. eta Mur.en *aechec nola gure gara-ri* inola ere ez bait deritzot onargarri. Mitx.ren *aechec nola guregana* onargarriago da baina horrek ere ez nau asetzen; ene aburuz, *aechec* hori gipuzkoar kopiagileren batena genuke, bizk.zko orijinaleko *aec* baten ordezkoa. Aldaketa honean lerroak galtzen duen silaba *gu [ue]re* irakurriaz bihurtuko nioke; bestalde *aec nola gu [ue]re gara / zugana interesaduk aechec nola guregana / zugana interesaduk* baino zentzu hobea ematen duela uste dut.

36f. Mur.k *cu gana*, Mitx.k *çugana*, Esk.an *z-*.

37a. Esk eta Mur. *beatu*; Mitx.rekin *ucatu* zuzendu dut. Huts bera BAren *Actoko Guerraren* kopiako 152.lerroan eta Iturberen «Quartetac»etako 61.lerroan ere (ik. FLV 18(1974) 379-449, Mitx.ren iruzkinarekin).

37c. Esk. eta Mur. *su*, Mitx. *zu*.

38c. Esk. *daucazula*, Mur. eta Mitx. *daucazala*; *zeuen, dozu* eta *disulak* ere *-ula* eskatzen dute bestalde.

38f. Esk. eta Mur. *osasunearen* baina Mitx.rekin *osasunaren* aldatu dut *-ea-* ez bakarrik gramatikaren baina baita neurriaren (7 gehienbat) kontra bait doa.

38g. Esk. eta Mur.ek *disula*, Mitx.k *diz-*.

Azpian «Doctrina sua noscitur vir. Prover. 12».

#### IV. HIZKUNTZAKO OHARRAK

1c. *besa*, Cf. 24a, 34b *dasadan*. Testuetan urri agertu arren aditz honen forma sintetikoak bizirik zirela erakusten digu honako honek.

— *nola*, cf. 3a, 4e, 10c, 12b, 20c, 26b, 36e, *nolan* 9c, 37b: *Nola eta nolaco* dute soilik BA, «Canción Vizcayna» eta URk, *nolan, nolangoa* AR, Zubia eta XVII. mendeko amodiozko kanta batek («Contribución» 88), bai *nolan* eta bai *nola* MIk. Oso balio eta testuinguru ezberdinetan ageri zaigu hitz hau BBetan; I) «legez» esanahia-rekin eta gonbaratzen den hitzaren aurrean: 3a *Aitac nola Ycarori*, II) id. atzean: 26b *Moretec dinoan nola, 36e aechec nola, 9c Cain nolan*, III) id. *ain* aurretik doalarik: 10c *ain gente biguna dala nola... vildurrac dagoezala*, IV) kausal gisa: 4e *Nola baqui Marrucoc... zenduzan echizaduco, 12b Jaunaren prouidencia nola bada andia cabu faltas esta ychico, 20c oney dereste nola sucedidu yaquez*, V) «ezen», -laren funtzioan: 37b *Ezin daizu ucatu nolan ascoc aduertidu zaytuzan*. Cf. P. Altunaren *Versificación de Dechepare* 295 eta hur. eta egile berak prestatu Etxepareraren edizioko 4. orriko oharra. *Sicu dago? Adarra nola eta Alan alan xauna escutari pobre batensat nola irakur daitezke MIren elkarriketetan ere* («Contribución» 190, 192).

— *jacan, -an<-o+n*, cf. 37c *yacala<jako+la*; «En cuanto a la alternativa *a/o* debe advertirse que en vizc. ant. *-o* característica de 3.<sup>a</sup> pers. sg. dativo, sólo aparece, al menos en algunos de los verbos más usuales, en posición final; cuando le sigue otra característica personal, el pluralizador *-z* o el suf. de relativo (o su equivalencia a estos efectos, la desinencia *-an* de pretérito), aparece en la forma *-a*» dio K. Mitxelenak («Nota sobre algunos pasajes de los Refranes y Sentencias de 1596» 27) RS, KA eta MIren adibideak erantsiaz.

1e. *itaun, itaunduren* erroa (ik. 9b). Bere aldaerekin (*itandu, iteundu*) hau da *galdeturen* ordaina ez soilik bizk.zko testu guzietan (KA, VJ, UR, MI eta Mogel) baina baita araberaz (Cf. Landuchio: preguntar, *ytaundu*, pregunta, *ytaunquetea*) eta gipuzkera zaharraren zati batean: Cf. Otxoa Arin (1713) *Itaundu beguio confessoreari* (168), *itaunteen dituanean* (138).

1f. *egun* «gaur» eta *ez* «gaua ez dena». Berdin 16g *egun, biar didin vizi*. Irigarai zenak (EGAN 1954, 12) Azpeitiko 1622ko gutun ba-

tzuk (ik. orain I. Sarasola «Contribución» 124-128) aztertzean «ohargarri ere dira Nafarroa alderagokoak diruditen *egun* [gaur], *sofri*, *eskribi*, *gaztiga*, *serbi* era laburtuak...» idatzi arren, *egun* zeharo arrunta zen esannahi horrekin bizk. eta gip.z XVIII. mendera arte bederen. Cf. BA 252, UR, AR 21, 39, Otxoa 1, *Borracho Burlado* 25, Agirre (1759) 2, 35, Irazusta 2, 23, eta *egungo* BA 82, 425, Larramendi *San Agustin* 3 etab. (1700 arteko exenpluetarako ik. *Materiales. Peru Abarkan* ere bere hiztegian (ASJU XII-XIII (1978-79) 87-200) Zelaietak *egun* guztiak «día; jour» itzuli baditu ere, ba da itzulpen hori ez dagokion *Egun iguzu gure eguneango oguaia* (159) bat, nahiz eta ez bizkaitarren ahotan. Irigarairen «Era laburtu»ez ik. 9b.

1g. *zerren*. zerenen mendebal aldeko aldaera. Cf. 6c *zerren garean ezagunac* eta BA 6 *zerren juntadu naizazun zeuri*, 114 *zerren dan berandu*, 357 *zerren dauen cantu ederra*, 428 *zerren bestela egongo ninzan oraingo enterraduric*. Aipatu exenplu guztiotan aditzari -n eransten zaion arren arau hori ez zen orokorra: «La regla según la cual las subordinadas introducidas por una partícula del tipo *zein*, *zeren*, etc., han de llevar el verbo afectado de un prefijo, *bait-*, o de un sufijo, el *-en* de relativo, tiene una de sus más evidentes excepciones en este diálogo [Mikoletaz ari da]... En ninguno de los 24 ejemplos registrados hemos encontrado el sufijo ni el prefijo» (I. Sarasola «Contribución» 211). Gamizek ere ez du inoiz ezer eransten: Cf. *cerren loturic nago* («Dabilcenchoac» 4f), *bestela cerren ilco naiz* («Euscarra gaitoetan» 3c) eta —adierazgarriena, aditza lerro erdian izanik—<sup>59</sup> *Cerren bien gorputzetan/bacarric da arime bat* (id. 6c).

— *baqui* id. 1g, cf. 21c *bira*. Ezaguna da bizk. zah.ean *ba* daramen aditzek paira zezaketen kontrakzioa: Cf. I. Sarasola «Contribución» 155 eta 99 *boa*, 101 *baçaut*, etab. Hor aipatzen diren exenpluei hainbat erants dakizkie Olaetxea, AR, Gandara eta BAren testuetarik; besterik ez aipatzearren cf. *baucala* OL 132, *bauco* OL 49, 59, 132, AR 34(2), *bago* OL 31, 69, 78(2), 86, 114, 139, AR 57(3), *bacusgu* BA 438, 462, *bacussu* BA 434, 458, *bacutsu* GAN 1762, *baquigu* BA 32, 407, *baquizu* BA 420. Alabaina, Mitxelenak Amilletaren doctrina eta bertso hauek gonbaratuaz zera dio «puntu nabarmen bat, artean gutti ezaguna, salatzen dute: *ba-ren* aditz muga-

---

(59) Beste agerraldietan ere ez du puntu egiten eta 1.koan, gainera, erants zezakeen -n bat silabarik gehitu gabe.

tuarekiko elkarganatzea. Aditz laguntzailea diot, iragangaitza, ez *baroan* azter daitekeen *ba+daroa*-ren tankerakoa... esan daiteke, beraz, galderetan bateratzen direla dotrina honetan, eta gureak [21c *guztiac ez arren baçuc bira-z* ari da] ez dirudi galdera, inondik ere ez erantzunetan» («Ad experiendum» 228-229) Egiazki oso exenplu gutxi aurki daiteke laguntzaile iragangaitzarekin; nik neuk ez ditut honako hauek baino bildu: AR 31 *Aytea Jaungoycoa ba?*... *Semea Jaungoycoa ba?*... *Espiritu Santua Jaungoycoa ba?*, AR 58 *partietan danean partietan ba Jesu-Christo?*, guztiak galderetan; galdera dirudi MIren hurrengo pasarte, niretzat behintzat, harrigarriak: *D. P. Noric ecarri do<s>us pastel-hoc. Al. Urian dan pastelerea garuienerean. D.P. Bira gure auso ederrenean. Al. Bay xauna.* (ik. «Contribución» 194). Ez dut aurkitu *ba* edo *biraren* beste exenplurik erantzunetan 21c-ko aipatu exenpluaz at.

2a. *gaitean*. «Ni en el siglo XVI ni en el XVII (ni tampoco creo, en el XVIII) se atestigua el vizc. *gintzazar* «fuimos»<sup>60</sup>, sino tan solo *ginean* o variantes, de acuerdo con *ginan*, *ginen* de los demás dialectos» (K. Mitxelena «Lengua común y dialectos vascos» 300). -ZA hori oso berandukoa da: *erne citean* (Amodiozko kanta TAV 122), *pozgatu gaitean* (Zubia, TAV 138), *Unayoc arri citean gastaeoc aguir citean* (RS 52 eta 386), *ezpa*, *ya cinean gustioc Gabachu* (Alzola 195). Ez dut bere agerraldirik aurkitu Olaetxearen dotrina (1764) arte bederen.

2b. *ecussi*. Nahiz eta *i-dun* formak nagusi diren XVII. menderako (ik. *Materiales* s.v.) oraindik badira *e-dunak* ere BAren *Actoan*: *ecusi dozu* (151), *ynoc eztau ecusi* (340) eta baita Olaetxearen dotrinan ere: *ez enzun ta ez ecusi* (111), *ecusten gareanean* (123). Gipuzkeraz OA eta IRk ez dituzte *e-renak* baino.

2c. *azartu*. Cf. 4d *versoan azartuteco*. Azkuek «Bc» dela dio baina ez dakit hain zabaldua den; nolanahi ere ez diot beste lekukotasunik aurkitzen XIX. mendera arte testu hau kanpo. Gero, ba dator Peru Abarkan ere: *Ezta azartuten/Arnasa artuten* (101).

— *essatera, -TERA* helburu adierako izenkian: Cf. 5f *decretoa eguitera*, 5g *Vizcaya yltera*, 9c *quendutera/dator*, 27f *ze zatoçan yditera atea*. Ez dago —Nren exenplurik. Izan ere «bizkaitarrago»-

---

(60) Testuan, oharkabean, «somos».

tzat izan ohi den arren azken izenki hau, -RA oso zabaldurik dago bizk.zko testuetan. Gai honek oraindik ikertzeke dirau eta hemen ezin ditut xehetasunak baina datu solte batzuk eman ahal; dena den ez dut -RAren exenplurik idoro MI bilbotarraren elkarritzketetan (ik. «Contribución» 188 eta hur) eta VJ Bizkaiko hego-aldeko XVII. mendeko dotrinan, eta soilik 6 *arean etorrico da ilaen eta viçien juzgaetara* CArenean, askozaz ugariagoak diren diren zec *mouietan dau gracia guri emaitenen antzekoen alboan*<sup>61</sup>; ekialderago, ZBk<sup>62</sup> *bijoc arcera obliguetan dau* (66) du soilik, eta agerraldi gehiago ditu -RAk (97, 167, 171, 361, 381, 383, 506, 507) -Nk (324, 183 -hemen puntu delarik) baino BAren *Actoan* eta -RA da bakarra Amilletaren dotrinan: 2 *certara dago obligaduric? gue-roengo fina vilacera*, 3 *ceq mouicen dau guri gracia emotera eta be-catuaq parcacera?*, 5 *Cer eguitera jaisi zan... sanctuaq libracera*, 6 *etorrico da gu juzgacera?*

2d. *goiti* eta 2g *beitii*, bere kontrakoa eta cf. 14f-ti atzizkiaz. Exemplu gehiagotarako cf. Gamiz (Jon Goikoetxearen ed. 101) *goazen goazen goytira eta Ene groainiac emozute/ene adisquide gustiai/beitico echeo genteai ta/beytiagoco arreba biai non beiti*=«behea», *goiti*=«goia». Gonbara bedi Azkuek (*Morfología* 27) Berako usadioaz dioenarekin: «En Bera (AN) vive fosilizado el sufijo de ablativo *-ti* por lo menos en dos vocablos. *Goiti* y *beitii* (que ellos pronuncian *goit'i*, *bet'i*) han dejado de significar «desde arriba» y «desde abajo», para designar meramente las ideas de arriba y de abajo. «Desde arriba» es para ellos *got'itik*, «desde abajo» *betitik*» eta Lafonen («Sur les suffixes casuels *-ti* et *-tik*», Eusko Jakintza 1948, 143-4) azterketarekin. Azken honek dioenez «*goiti et beheiti* employés comme adverbes n'ont jamais valeur d'ablatif». Seber Altubek zioenez (*Observaciones*<sup>2</sup> 89) (B-g...) omen zen egun ahaztuxen dirudien *gitxi-goiti-beiti*.

## 2f. *enzun* frikariarekin. Ik. III.

— *deusagu*, -e-rekin aditzak hiru aktante izaki, cf. 27c *deusu*, 32c *deusazu*, 7c *deuste*, 3c *eusten*. Azkuek (*Morfología* 604-605) orain aldia/lehen aldiaz azaldu arren -a/-e- bereizkuntza, Altubek (*Observaciones* 115-118), Mitxelenak («Nota sobre algunos pasajes de RS

(61) AR durangarrak jadanik ez du -RAren exenplu bat ere eta guztiak (18, 20, 36, 40) -Nrenak dira; bere herritar Zubiak, aldiz orri berean («Contribución» 152) bietarik du.

(62) Ik. 41.oharra.

de 1596» BAP 1967 eta «Preámbulo» in J. de Urquijo, *Refranero Vasco* 12) eta A. Irigoieneak («Curiosidades» *passim*) frogatu duten bezala, bereizkuntza hori forma bipertsonalen eta hirupertsonalen artekoan zen. Cf. RS 340 *Gueyago dio daquiana baño* «Mas dize de lo que sabe» eta RS 431 *Yre auçoac eztequiā gacha ona da* «Daño que no te sabe tu vezino bueno es»<sup>63</sup> eta BB hauetako 17b *Ventaja romanoay deroesu Ysassi* eta Alzola 90 *estuan daroazu ceure colcoa*. Irigoieneen datuen arabera -a-/e- bereizkuntzak \*EDUNen formetan oraindik XIX. mendean ere irauten du<sup>64</sup>, EGINenetan, aldiz, galdua edo galtzea dago XIX. mendearren hasieran (Mogel, Prai Bartolome, Uriarte)<sup>65</sup>.

2g. *gareala*, eta 6c *garean*. «Hay dos núcleos verbales terminados en *a*, los de *yoan* y su factitivo *eroan...* Los verbos antes citados conservan la *a* del núcleo en flexiones absolutas... pero en flexiones relativas al recibir la epentética *a* la *a* del núcleo se convierte en *e* lo mismo que sucede entre el artículo *a* y vocablos como *alaba...*» (Azkue «Evolución» 85). Irigoieneak erakutsi bezala («Curiosidades» 131-132) fenomeno hori ez da bakarrik *joan* eta *eroanen* adizkiekin ematen baina baita *izanenekin* ere: RS 315 *direanac*, RS 334 *garea*, MI *sirea*, *direala*, KA 22 *cirean*, 31 *guiñean*, etab<sup>66</sup>. Bestalde, gehienek bada ere, ez dute guztiak lege hau osotoro betetzen; Irigoieneak jadanik markatu zuen Barrutiak soilik *joanen* adizkietan egiten zuela, eta ez *izanenekan*, cf. 247 *doean* baina 32 *zarana*, 58 eta 496 *zaran*, 346 *diranac*, 351 *dirala*, 420 *dirana*. Barrutia ez da bakarra honetan: Amilletaren doctrinan 2 *noeaneanen* alboan<sup>67</sup> 5 *cirala*, 5, 6(2) *ciranac*, 3, 6(2) *dirala*, 3, 6(2) *diran*, 6(3) *diranac*, 3, 6 *diranai*, 5(2) *guinala* ditugu.

— *beitii*. Ik. 2b.

3b. *onei*, eta 20b *guizon oney*. Jakina denez *hauren* pluraleko paradigmak *on-en* bitartez egin ohi dira bizk.z; *onek*=«hauek»,

(63) Ik. K. Mitxelenaren «Nota...» Lafon zuzenduaz.

(64) *Erizkizundi Irukoitzaren* arabera (Ik. A. M.<sup>a</sup> Etxaideren edizioa IKER-3, 122) gehiago ziren 1920aren hamarkadan oraindik *deuskue* eta ez Azkueren *dauskue* «logikoagoa» (ik. *Morfología* 703) egiten zuten herriak.

(65) Alabaina, ongi mantentzen zuten J. J. Mogel eta Frai Pedro Astarloak; Añibarrok, ik. aldizkari honetan agertuko den B. Urgellen lana, ez du mantentzen.

(66) Ik, Irigoienen lana; hor erabili ziren testuetarik at betetzen dute legea «Cancion Vizcayna»k (Ik. Arejita), Zubiak (Ik. «Contribución»), Zumarragak (ib.) eta ZBk bederen.

(67) Ez du *eroanen* adizkirik.

*onei*=«hauei». Mitxelenak (ik. III) Esk. eta Murugarrenen *onei oneri* zuzentzen du baina ez da horren beharrik. Izan ere lerro ertzean (ibidem) Aranburu bati buruz hitzegin arren testua bati baino gehiagori buruz ari da (3g *agaiti dira jaussi*).

3c. *eusten*, cf. 7c *sarri gorde deuste*. «Laguntzailea gaur *neutsen/neutseen* formaz badarabilgu ere, zaharragoa da «neusten» hori [Alzola 72.az ari da]. Metatesia egon daiteke: *neuts-:neust-*. Edo izan daiteke *-te* atzizkia daukagulako ere (iragangaitzetan ere *jake* bariak «jate» azaltzen da testu zaharrotan» dio Arejitak<sup>68</sup>. Ematen dituen Betolaza, Zumarraga, KA eta VJeko exenpluei gehi bekizkie testu honetakoez gainera, Zubia *deusteguna* (TAV 168) eta *deustela* («Contribución» 148).

3d. Mitxelenak esan bezala («Ad experiendum» 221) *igon* iragankorra da bizkaierazko lehen testuez gero. Markagarria da haatik *igo* dela forma bakarra Betolaza, VJ, KA (ik. *Materiales*), Amileta (ik. Arejita), UR eta AR (ik. *Thesauruserako*) testuetan, hots XVIII. mendearen erdi aldera arte behintzat; salbuespen bakarrak testuko hau eta, ziur asko (*ar=on*) MIren Fitaren edizioko (!) *igar* (s. v. *subir*) lirateke.

3e. *obedecidu*; bai hemen eta bai 20c *sucedidu-n -du* bihurtu dut Esk.ko *-tu*. Seguru asko kopiagile gipuzkoarrak *-tu* egin zuen orijinaleko *-du*, hau bait da bizk.aditz mailebatuek daramaten partizipio marka<sup>69</sup>. Cf. BB 4g *echizaduco*, 8d *estimadu*, 13d *prouadu*, 15e *estimaduaz, admiradu*, 18e *logradu*, 28c *permitidu*, 34a *Acauadu*, 36d *conseguidu*, 36f *interesadu*, 36g *nombradu*, 37b *aduertidu*, 37f *baliadu*, 37g *obstinadu*.

3f. *alango < alan + ko*. Cf. *(h)alako < (h)ala + ko*.

4b. *culpante* «part. act. del verbo Culpar, aunque usado como si fuese passivo: pues equivale á lo mismo que Culpado. Lat. *Criminis reus*» eta *culpado, da*, «part, pass. del verbo Culpar. El que ha cometido algún delito, o falta en su obligación. Lat. *culpae reus*» (Dic. de Autoridades sv)<sup>70</sup>.

(68) A. Arejita, «Canción Vizcayna» 163.

(69) Baina «voces románicas terminadas en *o* por ejemplo *mantszo...* no forman como derivados *mantsodu...* sino *manisotu...* Asimismo, los terminados en *e* como *inusente* reciben *tu* para verbizarse» (Azkue «Evolución...» 75).

(70) Faksimila Gredos, Madrid 1979.

— *Marruco eta 4e Marrucoc*. Mitxelenak jadanik markatu zuen bertsootan, gaizki esaka ari diren beste askotan bezala, «aipamen ilunak, ziri bihurriak, zehar-esan orapilatuak, hizkuntzaren aldetiko eragozpenak ehun halako gehitzen dituztenak» («Ad experiendum» 219). *Marruko* hau ezizen edo izengoitiren bat izan daiteke, jakina; dena den ezin bazter daiteke lurrardearen izena izatea (cf. 28 *Orana nora erakarri nahi diren soinuarekin* (4f) sugeak bait lira (saldukeriak ugari dira baina ik. 24. ahapaldia, adibidez) «etxizadua» direnak (21 *Arratabe*, 24 *Juan Beltrán del Puerto* eta 28an aipatzen diren «laurac»).

4c. *Cafe de pala*. «c. de p. erraz baino errazagoa dateke, baina ez zait deus ere oroitzen ordezkotzarik» dio Mitxelenak («Ad experiendum» 222). Ez du beharrik ere; cf. *cabe* «En el juego de la argolla es la distancia que ay de una a otra bola, que para serlo por lo menos ha de caber en medio la paleta, sin tocar a ninguna de las dos, y de aquí tomó el nombre; y cabe de paleta es el que está tan junto, que de una bola a otra no ay mas tierra o suelo del que puede tomar la paleta tendida en medio, y errarle es de ruines jugadores; y para ser cabe ha de hacer que la bola de su contrario, tocada con el golpe de la suya, passe de la raya del juego, y vale dos piedras o pedradas» (Cobarruvias, *Tesoro de la Lengua Castellana o Española* 1611)<sup>71</sup> eta batez ere *cabe de paleta* «Translaticiamente es la ocasión que impensadamente se vino a las manos. Es alusión tomada de quando en el juego de la argolla se viene el cabe o medida de la pala» (*Dic. de Autoridades*).

4e. *baqui*. Esk.ak *badaqui* ekarri arren honela aldatu dut -dahori gipuzkoar kopiagilearena bait da seguruenik; ik. 1g.

— *jaiten*. «Dudarik gabekoa da *jaiten*, jotik erakarria: ik., esa-te baterako, Landucci *jaytecoa* 'majadero de majar'» (Mitxelena «Ad experiendum» 222). Izan ere -*o(n)*/-*aite* alternantzia erregularra zen mendebal aldeko euskara zaharrean<sup>72</sup>. Azkuek bildu zituen exen-pluetaz at eta mila artean cf. bizk.zko BA 7, 287, 349, AR 20, 32(2), 37(2), 47, 48, 49(2), 52, 55, 56(2), 60(2), UR 1, 4, 21, 28, 29,

(71) Argitalpen fotomekanikoa Turner, Madrid 1979.

(72) Ik. Azkue «Evolución...». 74. Ezin esan daiteke beraz, gehiago zehaztu gabe, «Bizkaiko testu zaharretan *eman* eta *emon* biak agertzen dira, eta *emaiten* ere *bai*» (Arejita, «Canción Vizcayna» 157); hortarako ematen den frogta bakarra, Zumarragaren *eman vite*, errata bait dateke argitaratzaileak ez ohartu arren.

35, 51, 60 *emaiten*, BA 507 *emaitera*, UR 16, 62 *igaiten*, BA 222 *jaiten*, UR 12, 46 *idaraiteco*, UR 11, 47, AR 38 *idaraiten*, etab.<sup>73</sup>.

4f. *soñua* «musika» Cf. Isasti 62 (apud TAV 179) *Nola soñu ala danza* «Como el son, así la danza» eta BA 94 *Cerreueeta xo bidi emon daiztan salto ui/Zer soñu?/Gura doana xo eguic eze guztirako noc agudu.*

— *chito*, id. 21b. *Txiten* bizkaierazko aldaera; testu zahar eta klasikoetan lekuko aski du, egun ia galdua badirudi ere; ik. A. Manterola-A. Arejita «Octabas de la agonía de la muerte» 12d, Euskeraren Iker Atalak-2, 191 esate baterako, arestian argitaratu testu bat baino ez aipatzearen.

— *dulcero*. Ez diot aurreko beste agerraldirik erideiten hegoaldean; Landuchiok (C) *beaztiro eguna* itzultzen du «dulcemente». Oro har, -roren bitartez izenlagunetarik atera adizlagunek ez dute lekukotasun ugariegirik *andiro* TAV 119, Otxoa Arin 153, 172 eta besteren bat gora behera.

4g. *zenduzan* «zintuen» zein «zintuzten», ik. 10g.

— *echizaduco*, ik. 3e.

5a. *bestela* (id. 24a). Cf. *alan*, 13g, 21g.

5c. *noisbait*. Cf. Olaetxea 103 *nosbaita*.

— Moreti buruz cf. 26b eta eraskineko gazteleraeko erantzuneko «XI. De Morete os valéis para fictiones,/siendo autor que de nadie es admitido, etab.» Mitxelenak («Ad experiendum» 232) *De obsidione Fontiribiae* aipatzen du aipamen hauen iturritzat, ik. I.

— *dinoan*, -N-rekin bizk.z ohi bezala: 13g *dino*, 26 *dinoan*, 11f, 21g *dinoe*; cf. alabaina RS 113, 340, 390, 393 *dio*; ez da bilduma osoan -N-dun adizki bat ere.

— *legues, bezalaren* bizk.zko ordea.

5d. *egon zara azera* «lotsati, uzkur egon zara/zarete»; «retraído» itzultzen du Azkuek sv. *atzena* 3. adieran.

5e. *cec*, 29b *noc*, 32e *ac*, 3g, 33e, 36g *agaiti*, 32c *zegaiti*, 15 *agaz*: «en vizc., desde los primeros textos, esta *r* [nor eta zerrena] falta

---

(73) *Vissita emoten joanic* UR 79 da *Thesauruserakon* agertzen den bereizketaren ezabatzearen lehen arrastoa.

ante suf. con inicial consonántica: *noc* (Gar., RS, etc.) act., *segaiti* (Mic., por z-) «por qué» (Mitxelena FHV<sup>2</sup> 336). Gehi bitez *ac* BA 248, *agan* BA 169, *agana* 311, etab.

5f. *eguitera*, -RA horri buruz ik. 2c.

5g. *bai* «baita, halaber».

6a. *ne[u]re*; honela ezarri dut bai hemen eta bai 9e-n ere Esk.ko *nere*, forma hau ezinezkoa bait dugu, bizk. zah.ean (Cf. «Contribución» 89), ez eta beranduago ere; aldiz, kopiagile giputzarentzat hori forma arrunta bide zen: Otxoak 24 *neure* eta *nere* bakar bat (errata segurki) dituen arren, Irazustak, Lasarteko bertsoek eta Peñafloridak ez dute *nere baizik*<sup>74</sup>. *Ene* ere ordekoia izan zitekeen baina aldaketa askozaz handiagoa eta sineskaitzagoa da idazketari dagokionez eta ez da beharrezkoa gramatikaren aldetik *neure*, *geure*..., formak *ene*, *gureren* tokia hartuaz bait doaz ia bizk.ren lehen testuetarik<sup>75</sup>. Horrela *geure*, *zeure* bertsio hauetan ager daitezke nahiz eta aditzaren osagairen bat erreferentzikide dute-nean: 14f *Ercules baño obe dogu/geure parteti Bulcano*, 15f-g *ez admiradu/gueure alango prenda/beleinca erri gueurea*, 33c *ezara/geure errico guizonay/ydeteco oyala*, 35a *San Ignacio geurea/eguizu arren baquea*<sup>76</sup>, 35c *dozun esquero an da emen/zeure zenipartea*, 8c *zeure pausoac estitues/estimadu sobreia*, 18b *zeure aguin orria... izan zala*. *Gure*, *zure*, *zuen*, aldiz, ezin daitezke erreferentzikidetasuna ematen denean azaldu<sup>77</sup>: 9e *orra gure pagua*, 13e *gure buruan ausiteco/ecarri ei zenduz*, 23d *zuoc ere bazaozque gure mearic baga*, 34g *galdutea lustrea/ezta gure honrrea*, 16a *zuen coronel Ysassi/ei da*, 22c *Arabac mortandadea/zuen alde eguiñ day*, 19d *yzan da*

(74) Larramendik bietarik du baina dagoenekozen gehiago *nere*.

(75) Azterketa zehatz bat falta da, I. Sarasolaren «*Nire/neure, zure/zeure literatur tradizioan*», oso interesarria izan arren gaia oro har aztertzeko, laburki mintzo bait da bizk.z eta, egileak berak aitortu bezala «*Bizkaierazko testuak dira ondorioak ateratzeko zailen gertatu zaizkigunak*» (439.or.).

(76) Hau bezalako vokatiboetan salbuespenak ugariago dira beti ere Sarasolak ikusi bezala.

(77) Arejitarentzat («*Cancion Vizcayna*» 134) «*zeure* edukile indartua (*neure*, *geure* eta besteak antzera) ez da erreflexiboa danean bakarrik era-bilten, Iparraldeko testu zaharrenetan gertatzen dan legez. Intensitate arra-zoiakaitik ere erabilten dira; galdegai izateagaitik kasu honetan [*zeure escuetan echuten doa* 134]».

*suen broquela, 11g zuenzat ori bere obe, 26f joango gara norabueña/zuenzat garitara*<sup>78</sup>.

6b. *fundaetan, -etan -duren izenkiea bait da.* Cf. 11c *disparaetan.* Alabaina, bizk.zko aditz-izenkiien forma edo distribuzioa ez da oraindik ongi ikertu<sup>79</sup>; testu honetatik ilki gabe 4a *pensacen nago* (Cf. AR51 *penseten dala*), 17e *logravez* (eta 18e *logradu*), 17f *intentazen* ditugu. Ez dira, ordea, kopiagilearen aldaketak: Cf. Armiletako 2 *amadu*, 1 *amacen*, 6 *apartaduric*, 1 *apartaceco*, 5 *aplicaduaz*, 4(2) *aplicacen*, 6 *gozadu*, 2 *gozaceco*, 5 *gozacen*, etab. Halaber BA 406 *adoradu*, 388 *adorazen*, 15, 19, 103, 511 *cumplidu*, 110 *cumplizen*, 31, 254 *merezidu*, 61, 278 *merezizen*, 81, 88 *pagadu*, 153, 440, 464 *pagaduco*, 86 *pagazen*, 97 *pagazera*, etab. -AE-ri buruz ik. 11c.

6e. *preuilegiaduac. Dic. de Autoridadesek «véase privilegio» badio ere sv previlegio*<sup>80</sup>, Cobarruviasek 1611n soilik pre- dakar.

6g. *Guipuzcoaco errian.* Testu honetan beti *herri=«lurraldea»* eta ez «*hiri*». Cf. 12d *Viscayco erria*, 15g *bedeinca erri geurea*, 16f... *eztau oraindio/Bilbaon oñic ifini/obe dau egoitea/bere erri aldeti*, 33c *geure errico guizonay*. Hori izan da, noski, hitz honen adiera zaharra, Cf. Zumarraga 35 *ovato dago eta erriorj bere bay* = «...e también esa tierra, está mejor» («Contribución» 99-100), RS 349 *Oric eztau erria, ybar jaun da aceria* «En la patria do no ay mastines es Merino el rafoso», RS 66 *Losauagueac erria vere* «El desuergōçado, la patria es suya», Landuchio *erriac yrabaçi* (sv. conquistar tierras), *conquistea erriana* (ibidem, «conquista de llas»). Adiera aldaketa (*herri=«hiri»*) emana zen XVIII. mendearren lehen hamarkadetan Barrutiaren testuan ikus daitekeenez (Cf. Mitxelena, «Miscelánea (II)» 399): *Ostaturic ezpada Belengo errian* (118), *Erri uateco campaezat eztau bere pareric* (126) baina ez bizk. osoan Arakistainen lekukotasunaren arabera: «paisano *eritarran*, aldeano, *erritarra*. Se llama en Vizcaya á distinción de *uritarra*, *iritarra*, el que es de Ciudad o Villa».

(78) Aski ezberdina eta bitxia da BAren joera eta honek «Aresti-Linchmann legea» (Ik. honetaz I. Sarasolaren aip. lana) ongi betetzen du *ene/neure, hire/heure eta zuen/zeueni* dagozkionez; *zeurek zureren* tokia bete ditzake aztertzen ari garen bertsoetan bezala, eta azkenik soilik *gureren* formak agertzen dira, are *geure* beharko litzatekeen lekuetan ere.

(79) Cf. FHV 233, 15.oharra; Otxoa Arinenek ere (*apartadu baina apartatzea*) merezikoxo lukete arterketaren bat.

(80) Gauza bera sv. *privilegiar*.

7a. *Valladilico*; hutsa ez baldin bada cf. Zumarraga («Contribución» 99) *sivilljara*.

7c. *Chinchurrac*, ik. III.

— *deuste*. Ik. 3c.

7e. *ezaguzen*, «aitortzen». Cf. *Ezaguzen dugula ez caradela dino aren aurean egoteco*, Beriaín *Tratado de como se ha de oyr Missa* (1621) 28v.

7g. *asse vay*, irakurketaz ik. III; *bai* «5.<sup>o</sup> (B-d-l-on), úsase en sentido irónico y tono de admiración, significando incredulidad». Erabilera, noski, Azkuek markatu baino zabalagoa da.

8b. *Ynsaustico*. Cf. 8e *insaurrac*.

8c. *estitues*. Mitxelenak markatu legez («Lengua común y dialectos vascos» 300 eta ik. orain ASJV XIX-lean argitaratuko den I. Lakaren lanean gehitua) ez da hiperbizkaierazaleentzat «jatorragoa» den *dauzen agerraldirik* ez XVI, ez XVII ez XVIII. mendeetan bizkaineraz; esate baterako, oraindik *ditu* dute BA eta URk eta jadanik Betolazak dakarren *dituz* ARk; *dituez*, *dituezala* URk eta *dituzalaco*, *dituzan* ARk. Lehenaldian ez dute *ebazan* edo *ebezanik*, *zituzan* edo *zituen* baino. Ohartu zen honetaz S. Altube bere «Observaciones»en (110 eta hur.) non Azkueren iritziaren —hots, *ditu* gipuzkeratik mailebatua dela— oinarri eskasia lekuko zaharrenen bitartez frogatzen saiatu bait zen. Berak esan bezala «Opino que las formas comunes, las universalmente euskéricas, fueron antiguamente *Ditu-Gaitu*, etcétera, hasta que el euskalki B, separándose del uso común, formó algunas flexiones del tipo *Dauz*, *Gauz*... (no se tiene noticia de que la serie completa se haya usado jamás fuera de alguna zona muy reducida del dialecto bizcaíno)». Ezagutzen ditudan forma berrien lehen agerraldiak hauek dira: *gozus* (= *gaituzu*) Gandararen 1757ko Gabon Kantan (ik. J. A. Arana Martija, Euskera 1976 89-98) eta *gozuz* Limako poesietan (BAP 1956).

8d. *sobreña* «gehiegia, gehiegizkoa», «larregia» edo dela ematen du itxurak, *metri causa sartua, agian*» dio Mitxelenak. Cf. 34b *ze dasadan sobreña eta* (baina ez aditzlagun gisa) *Ori esta faltea, sobreña baxē* (MI, «Contribución» 197).

8e. *dacusela* «dacusela aldatu? Ez dakit, bada. Horkoa *insaurbakarra* da, baina cf. RS 246 *ez dacusena* «quien no ve» (Mitxelena, «Ad experiendum» 197).

8f. *deunguea*. Cf. RS 387 *Albia deunga dustien abia* «Albia, nido de todos los malos» eta RS 96 *Donsua ē eseā duztioc barrez, deungueaenean negarrez*. «En casa del vituroso [sic] todos riendo, en la del malo llorando». Lekukotasun ugari du idatzizko tradizioa, askozaz gutxiago bere kontrako *deuntsuk* Sarasolak (ik. «Contribución» 100-101) dioenez halere usu ageri da Ulibarriren gutunetan.

8g. *oy, cf. 25b oy dauca*. BAK bezala (248 *oi jeusac*, 250 *bear oy joc*, 426 *ez oy xacu secula falta*, 429 *uste oy dau*) bertso hauek ere *oi* darabilte ohizkotasuna adierazteko, cf. aldi Olaetxea *castigau daroa aen magestadeac* (113), *gueienean jazo doeana da* (82) (baina *oi* 129(2), 148), soilik aditz nagusia+eroan/joan RSetan: 79 *aus asco eregui daroa* «mucho poluo leuantar suele», 210 *lauçatu guino daroa betatu* «suele hinchir hasta el tejado», *esan daroa ata-artean* «su[e]le dezir en el portal», 264 *aci daroa* «suele criar», 368 *hurteyten daroa* «salir suele», 61 *guichi guichia asco eguin doa* «poco a poco se hace mucho», 94 *dindica murcoa betatu doa* «gota a gota se hinche el cántaro», 107 *jayo doa* «nacer suele», etab. Hiru lerro eska-sean bi eratara MIk: *Ori da bat yru gausetaric esan eroena Ganasac aditu joeala guisona cuydadu ascogas. Ta ydoro asquero oy dauela damu* («Contribución» 190).

9a. *pagina*. Cf. *Esan dit pagina eman dioçu. Esan diot eztala orregaiti pagu gayztoric*, Azpeitia 1622 («Contribución» 126) eta *Bardin ossa banadi/Laster da ondo eguingo deusat/pagu erreala verari* BA 285.

9b. *gal didila*. Cf. 1e *ytaun bequio espabere*, 15g *bedeinca erri geurea*, 17g *conta dila azañea*, 23g *lagun esteyo guerrara*, 29f *leen diite beartu*, 36a *Badaqui[gu]garbatu*, 37a *Ezin daizu ucatu*, 37e *eztaquidizu/orregaz baliadu*. Beste leku batetan erakutsi dut<sup>81</sup> -TU/Øren bitartez eusk. zah.ean gauzatzen zen [+perf.] / [-perf.] bereizkuntza bizk. zah.aren lehen testuetan oraindik mantentzen zela: Cf. XV. mendean *Ezkon bequio* (Milia Lastur), *Al banegui empara* (Abendaño), *Gal didila Unçueta... sumi a[...]la... Jauna ezcençan empara... sar gayteza[n]* (Arrasate), *Nay ez daquiola valia* (Olaso); XVI. mendean ere oraindik nagusi dira -Ødun formak era [-perf.]etan nahiz eta dagoeneko -tu(du)renak horietara hedatzen hasiak eta azpieuskalkiren batetan (Betolaza) jadanik ba-

---

(81) Ik. «-TU/-Ø bizkaiera zaharrean» non ematen bait ditut adibide eta xehetasun gehiago.

karrak izan bai [+perf.] bai [-perf.]etan. XVII. mendeko lehen testuetarik -*tu(du)*renak dira nagusi testu guztietañ are [-perf.]etan ere, bertso hauek salbu, hain zuzen<sup>82</sup>. Markatzekoa da gure testuko -TUren agerraldi guztiak lerro bukaeran eta beti puntu egiten dutela ematen direla eta, bestalde, ezin baiezta daitekela -Ørenak soilik *metri causa* jarriak direla neurri jakin baterako joera izan arren aske xamar jokatzen bait du egileak eta aski erraz onartzen silaba bat gehiago edo gutxiago<sup>83</sup>. Guzti honetatik atera dezakeguna zera da, oraindik XVII. mendeñan eta —azpieuskalki zaharzaleago batzutan are XVIII.ean (ik. aurreko oharra)— [±perf.] tasuna morfologikoki bereizteko joera galtzean ba zen ere, dirudiela zilegia zela gramatikaren aldetik eta, beraz, erabilgarria poesian. Gure testua baino mende erdi beranduago, ordea, Arzadun (1731) eta Urkizu (1737) durangarrek ez dute bereizkuntza hori egingo, ez prosan ez poesian, egin zezaketen 43 aldiatik behin ere.

— Mitxelenak dioen bezala («Ad experiendum» 224) «*Galdilla* (edo *didila*?) *mairuak!* oroiterazten gaitu harako Mondragoeren erre-keta ondoko madarikazio hartaz:

[G]aldidila Vn̄cueta ta Vergara  
[Ç]aldibarrec bere partea debala,

eta gainontzekoak. Cf. TAV 82».

— *mairua*: agian kopiagilearena, orij. *maurua*(?).

9e. Aditz nagusia+EZ+lag., cf. 7b *ezaguzen espadaue*, 196 *ygaro ezin*, 23g *lagun esteyo* eta, adibidez, BA 129, 273, 278, 290, 394, «Contribución» 151, 191 etab., baina 8c, 12c, 13a, 16c, 31b, 36c, EZ+lag.+aditz nagusia egiturarekin.

9g. *amenazua* ez da puntu betetzeko asmatutako forma gaur egun ere esaten bait da Bizkaian (eta hortik kanpo K. Mitxelenak diostanez).

10d. «bildurrak hilik dagoezala»ren laburtzapena (cf. «hotzak hilik») egungo *bildurra dabela* (edo *daukela*)tik urrutি oraindik;

(82) Zehazkiago, TAV 122an argitaratzen den amodiozko kantan agerraldi bana dute -Øak eta -TUK: *catiga cidila, Veguiratu neguion*.

(83) Ohar bera egin daiteke Barrutiaren Actoaz, non 39 kasutatik 25etan -Ø eta 14tan -TU(DU) agertzen bait da.

dena den, jadanik Irazutztak ba ditu *Bienaventuraduac justiciaren gosea eta egarria duenac* (47) eta *Nor dirade justiciaren gosea eta egarria duenac* (48) eta Elizaldek *Dauca Jangoycoaren beldur* (69).

10e. *con todo.* Cf. 16c.

— *mosugorac* «*Musugorac* [horrela esk. eta Mur.], ongi bal-din badago, ez dut bestetan aurkitu. Bizkaikoa, gainera, *mosu* da, *musu* baino areago». (Mitxelena «Ad experiendum» 224); azken ho-negatik *mo-ezarri* dut.

10g. *espadozu* «ez baduzue», hots «*zuek*». Azkuek *Morfologian* (433.or.) dioenez «*Zu* significa, aun hoy, vosotros (pero sólo en la conjugación) en pueblos como Eibar y Bakio del dialecto B, así como en muchas locuciones bizkaínas que nos son familiares y en las sacadas principalmente de *Icasiquizunac* de Fray Bartolomé (que figuran en el Diccionario). Fuera de la conjugación ya no se oye *zu* como plural. En esos pueblos dicen *zuek esan dozu* vosotros lo habéis dicho, *or zagoz zuek*, ahí estáis vosotros». Ik. halaber bere hiztegia sv.; -ZU dute beraz bai *zu* eta bai *zueken* adierazleek: 1) -zu= *zuek* 10a *dosu*, 11b *zuec espadaquisu*, 13f *zenduz*, 19e *dozu*, 22d *dozun*, 23c *zuoc ere bazaozque*, 38c *daucazula*, 38e *zeuec dozu*; 2) -zu= *zu* 17 *deroessu Ysassi*, 24c *zuc esan ei senduen*, 25c *aztu yaçu Guipuzcoa*, 25e *bidaldu yaçun*, 32c *deusazu*, 33b *su obea ezara*, 33e *derichu zuri*, 35b (*San Ignacio*) *eguizu*, 35c *dozun*, 37a *daizu*, 37c *zaytuzan*, 37e *eztaquidizu*. Zalantzazkoak iruditzen zaizkit (eta ba du historiaren aldetik garrantzirik) 27a *badozu*, 27c *deusu*, 27e *ze zatoçan*, 30c *daucazu*, 4g *zenduzan*, 5d *zara*, 5e *çaitu*. BAren 63 -zudun formetatik 41ek «*zuek*» esanahia dute. Ik. TAV 167 Luzuriagaren *Paraninfoaren* testuak pairatu -zu>*zuek* aldaketaz, Alzola 203 (eta A. Arejitaren oharra) eta «Observaciones» 82 non *zueken* adizki *guztiak* *Icasiquizunetan* -zuren bitartez ematen direla ohartzen bait da.

11a. *siquiera, sikeran be* (eta aldaerak) guztiz arrunta da gaur bertan.

11c. *disparaetan*, cf. 6b *fundaetan*, Zubia *apartaetea, apartaetan* («Contribución» 150), *parcaetaraco* (ibid. 153), RS 144 *oraetan*, MI *gorraensaco* («Contribución» 191), Zumarraga *daroeçan* («Contribución» 99). Azkuek (*Gipuzkera osotua* 76) -aetan eta -aetara mantentzea «solecismo declinativo»tzat duen arren garbi dago berak adibidetzat dakartzan Lardizabalen exenpluetan eta goian ai-patuetan ez dela «solecismo»rik baina forma zaharkituak, *ae* taldea e bihurtu gabe hizkera berritzaleagoetan gertatu denaren kontra.

Ik adibide gehiagotarako «Canción Vizcayna» 80 eta Arejitaren oharra.

11d. *arcabuz*, *al-* dute I. Sarasolak Ibargüen-Cachopinen kronika bukaeratik hartuaz argitaratu duen 1600 inguruko hiztegi batetik eta gero Zalgize, Harriet, Larramendi, Arxu, Iztueta eta bestek (ik. «Contribución» 173). *Arcabuz* du Alzolak (106) ere, aldiz.

12b. *andia* Cf. 16b, 17e *andi*, 18d, 25g *andia*. «Es difícil negar que algunos diptongos vascos carecen, al parecer, de justificación etimológica; así, junto a *Andia*, sobrenombré medieval corriente, y (*h*)*andi* «grande», (*h*)*aundi* no aparece antes del siglo XVIII o tal vez del XIX» dio Mitxelenak (FHV<sup>2</sup> 488). Ez da exenplu bakar bat ere 1700 arteko hegoaldeko testuetan (ik. *Materiales*, Arejita, Zubiaur-Arzamendi, Soto-Michelena); 1700 ondoren ez dut bat ere ediro (ik. *Thesauruserako III eta sv*) *Peru Abarka* arte bederen, bizk.z, ez eta 1745 aurreko nafarrerazko testuetan ere. Gipuzkeraz ere *andi* dakarte Otxoa Arinek (1713), Irazusta (1739), Lasarteko bertsoek (1716), Arakistainek (1746) eta Agirrek 1759); lehen-dabiziko *aundiak* Larramendi eta Peñafloridaren testuetan aurkitu ditut<sup>83 bis</sup> eta horietan ere *andiak* gehiago direlarik. Markagarria da Irazutztaren 1784ko edizioak *aundi* dakarrela.

12c. *ychico*, *utziren* bizk.zko forma arrunta; cf. BA 66 *içi* orain-dik bustidurarik gabe, eta *echi* Alzola 104 eta KA 45.

12e. *artuteco* «la terminación verbal -TU y su variante -DU se eliden generalmente ante -TE; pero en B (en algunas zonas se han guipuzkoanizado [sic] los verbos *batu*, *sartu*, *artu*, *galdu* y *kendu*) rehuyen esta eufónica supresión; y recurren los unos (B-lein-mond-oñ) a la partícula -KETA en vez de -TUTE, -DUTE; otros, los más, emplean este duro choque de sonidos dentales» Azkue, hiztegian sv -TE.

12g. *guei[a]go*, hemen esanahiaren aldetik gehiago dirudi gaztelerazk «mas, pero (no)» egituraren kalkoa, euskaraz ohizko den «haboro» baino.

— *Prouincia*, id. 18g, bietan «Gipuzkoa» adierazteko. Dakidanez hau da lehen euskal lekukoa adiera horrekin, *Ayta Trino juan zan bere Prouinciara* 1665eko gipuzkerazko gutun batekoak («Contribu-

(83 bis) Baino cf. orain Ondarrak ale honetan argitara *aun-* dun 1741 baino lehenagoko Zegamako dotrina.

ción» 129) beste esannahi bat bait du. Irazustak (1) ...erretore Herni-aldecoac, ceña dan provincia Guipuzcoacoan zinatzen du.

13a. *nay eta cf. 13b gura.* Azken hau baino gutxiago bada ere, nahik lekukotasun aski du bizk.zko testuetan: Olaso *verba orri nay ez daquiola valia* «Esa palabra no quiera tener valor» (TAV 89), *Iaungoicoari nai eztaquiola KA 1239, ser nay daude MI 3, Emon nai eban frutu ederra UR 78, Gaisqui nai arren BA 185, RS 114 esan nay ta esan ezina*, etab.

— *eban*, honela ezarri dut esk.ko *ceban*, segurki (Cf. 18e) kopialgilearena bait da c- hori; ene ustez, hark ezagunen zuen forma jarri zuen (orijinalaren kontra) lehendabizi; bigarrenean, alderantziz, orijinala errespetatu zuen baina lehen agerraldia zuzendu gabe utziaz. Fenomeno berdin gehiagotarako ik.II.2. Honek ez du esan nahi inola ere, ordea, Azkuek bezala z- «característica no vizcaína» (*Morfología* 720) dela uste dudanik; bestalde ez dakit J. Oregik «Z-rik gabekoak zaharrago direlakotan gramatikalari guztiak bat datoz» («Euskal-aditzaz zenbait gogoeta» FLV 1974, 269, 7.oharra) esatean Altube («Observaciones» 136 eta hur) eta Mitxelena (hainbat leku-tan, esate baterako «Lengua común y dialectos vascos» 300-301) behintzat gogoan izan dituen, «zaharrago»k hor «etorkitik hurbilago» eta ez soilik «lehendabiziko lekuoak dituena» esan nahi baldin badu, bederen. A. Arejita («Canción Vizcayna» 174) dioenez «gaurko ahozko euskeran ere bardin: *zeban* (Eibar), *zeuen* (Morga), *zotzon* (Meñaka)» eta beste ematen dira oraindik.

13b. *euquean* Cf. 29b-c *noc euquean sinistu/frances oncia euqueala/belaetaric billostu eta leuqueala* (Azpeitia 1622, «Contribución» 124 eta hur.), *leuquean* (XVII. mendeko bulda batean), *leuqueana* (Azkoitiko 1737ko sermoi bat 16). Exenpluotarik badirudi -eu- mantentzen zela zaharrean ere.

— *pobluac* Cf. OA i *Pueblo onetaco aurray*, viii *Pueblo onetaco genteari*, KA 143 *pobluagana biortu, eta esaten dau sacerdoteac*, Bretoñako Kanta *Pobluaren onrra danac becela*.

13c. *zuecاز*, pluralean zein singularrean (15c, 21d *agaz*, 20d *turcoagaz*, 22e *usteagaz*, 24d, 29a *Vizcayagaz*, 28e *banagaz*, 37f *orre-gaz*) beti darabil -gaz. Ba dira, alabaina -kin erabiltzen duten bizk.ren azpieuskalkiak, batez ere pluraleko formetan<sup>84</sup>. Bestalde,

---

(84) Beste batzuk, BAK adibidez, -kin dute -gazen alboan, bai singularrean eta bai pluralean: 60 *zeugaz*, 78 *nigaz*, 98 *ascogaz*, 495 *gueugaz*, 143 *oearequin*, 150, 275 *zurequin*, 151 *zerèquin*, 227 *neurequin*, 325 *urarequin*, 369 *Xaunarequin*, 410 *Xaunonequin*.

*-gaz* bizk.z bakarra ez izateaz kanpo, ez da soilik bizk.ren marka, mendebal aldeko eusk. osoarena baizik zeren eta araberaren parte batetek<sup>85</sup> ere ezaugarri hori bait zuen. Cf. Gamiz 199 *libertadeaz, orrequin* (199), *onequin, iltzequin* (200), *nequeaz, bategaz, osasunaquin, urdaiaz* (201), *alcarregaz, orrequin, onequin, osasunaquin* (202).

13e *ausiteco, ausi* frikariarekin. Cf. *Iaia ausi daguien* KA 96 *Bere arma çarrac ausita letorrela* Andramendiko apokrifoetan (TAV 160) *Nola ausi deuzten neure burua* BA 193, *aussi ezpaleguie berbea barriz* «Canción Vizcayna» 66, etab.

13f *ei zenduz.* Mitxelenak («Ad experiendum» 226) botibotzat du forma hau nahiz eta *ei=omen* (cf. 3c, 11f, 16b, 21b, 21g, 24c) onartuko balitz «esan-nahiak argi eta garbi ematen du[en]». Arrazoi du botibotzat hartuz geroz -ndun atzizkiaren faltarik ez litzatekela esaten duenean; haatik gramatikaren kontrako huts larri hori *metri causa* berariaz egina dela pentsatzen badugu (eta ez litzateke bakarra, cf. 16b) errazagoa zaigu perpausa guzti hau *alan dino foruacen* objektua dela onartzea. Ene aburuz, bestalde, 13g ez da hitzez hitz hartu behar, foruak nonnahi eta zernahi dela aipatuak izaki, azkenean historia, «egia» edo «tradizioaren» baliakide bihurtu bait ziren.

— Goruen aipamenaz, ik. gaztelerazko erantzunaren VII. ahalpaldia.

14b *baino.* Agian *baño* orijinalean, cf. 14e eta 14d (azken hau zalantzazkoa).

14d *balaac* «*balaac* ongi letorke, bestetan ere erabili izan balu horren moduko *a bikoitzik*» Mitxelena «Ad experiendum» 225. Alabaina, mantendu egin dut Esk.an argiro agertzeaz gainera ez bait dugu testuinguru eta agerraldi aski forma hau gaizki dagoela era-bakitzeko; nolanahi ere den, ez dirudi kopiagilearen jakinaren gainerako aldaketa datekeenik.

14f *parteti.* -TI prosekutiboan (ablatiboaz ik. 36d): 2a *zeruti*, 2d *goiti*, 2g *beitit*; *-gaitiren* exenpluetarako ik. III 1a; 2a *zerutic* kopagile giputzaren hutsa da seguru asko, bere hizkeran -TIK baitzen forma bakarra ablatibo eta prosekutiborako; bestalde, ohar bedi hortik aurrera —inoiz puntuak lagundurik— beti errespetatzen duela orijinaleko -TIA. Atzizki honen etorki eta aldaketez ik. R.

---

(85) Landuccik *-kin* du soilik (ik. K. Mitxelenak egin sarrera 33.orrian).

Lafon «Sur les suffixes casuels *-ti* et *-tik*» Eusko Jakintza 1948 141-150 eta K. Mitxelenaren FHV<sup>2</sup> 236.

14g a. «hura», izenordain legez, cf. 15c, 21d *agaz*, 32e *ac*.

15c *baicin*, ik. III.

— *ley*. ik. 22c.

15g. *bedeinka, -du* gabe, ik. 1e. MIk *bedyncatu* «bendecir» eta *bedeyncatu* («Contribución» 192) ditu; *bedenkatu* ARk, *bedinkatu* URk eta *bedeinkatu* Betolaza, KA eta VJek (xehetasunetarako ik. *Materiales* eta *Thesauruserako*).

— posesiboa izenaren atzetik, cf. 35a *San Ignacio geurea*.

16a-b *-a* gabe; lizentzi hau batez ere «olerkariak» erabili badute ere (ik. I. Sarasola «Lizardiren poemagintzaren azterketa formal baterako» in AAVV *Homenaje a Caro Baroja*, Madrid 1975) lehenago ere ez zen ezezaguna, cf. «Canción Vizcayna» 87 *Francesay bear jate ausi buru*, BA 115; *Izango ete dogun Velenen ostatu*, 137; *Arranzaz beti gure nagusi*, 201; *Lagun yzango dogu Herodes errege*, 249; *Adiezac Verzean onen Viziza modu*, 281; *Orain xaucat neure aldi*, etab.

16c *oraindio*, cf. *Peru Ab.* 99 *oraindino*, 70 *oraindiño*, 43 *orainguño*, UR 79, 83, *oraindo*, 18, 28 *orainguiño*, BA 385 *oraingaño*, Olaetxea 79 *oraindiño*.

16d *Bilbaon*, id. 21g. Dakidanez, egiteke dago zenbait toponimotan (cf. *Galdako*) eman den *-ao>o* aldaketaren kronologia; *-ao* aurkitzen dut oraindik bai Garibai A32 (=B56) *Bilbao, an vere dongueac viraon*, baina *Bilbo* du jadanik Olaetxeak; Peñafloridaren *Bilbaoco*, *Bilbaocoac* (*Gavon-sariac* 6, 5) ez dira adierazgarri ezaguna bait da delako herri batetik zenbait kilometrotara herri hori bertako biztanleek deitzen duten erara egin beharrean gaztelerazko forma ofizialaren arabera deitu izan ohi dela.

— *ifini*, honela «Canción Vizcayna», UR, AR, KA, RS, *ibini* RS eta BAk, *imini* «Canción Vizcayna», Mogel eta Olaetxeak, *ipini* Mogelek.

16e *egoitea*, ez dut beste agerraldirik idoro 1745 arteko bizk.zko testuetan; AREk baditu aldiz *izaitea* (31(2)) eta *izaitera* (37) eta URk *izaiteco* (64).

16g *didin*. Asimilazioa oso da zaharra bizk.z, cf. [G]al *didila* *Unqueta* Arrasateko kantetan (1448) inguruan (TAV 82) eta orain-dik horrela dute BA, UR eta ARk XVIII.ean eta KA, VJ eta MIk aurreko mendean; berdintsu Larramendi aurreko gip.z: *bidi* dute Otxoa, Irazuzta eta Lasarteko bertsoek (ik. J. M. Satrustegiren lana IKER 2n); markagarria iruditzen zait Irazutztaren 1784ko edizioan *iiak ee* bihurtzea.

17b *deroesu*, ik. 2f.

17c *jatezanac*, cf. «Canción Vizcayna» 88 *Francesay bear jate ausi buru* «Testu arkaikoetan *jake* barik, *jate* sarriago» eransten dio argitaratzaileak.

18b *aguin orria*. Mitx.k xeheki azaldu bezala («Ad experiendum» 239) hagin-orri honetatik ateratzen zuten (Florok dioenez) kanta-bresek etsaien eskutan ez erortzeagatik beren burua hiltzeko (eta hortik *guiza eralla*) hartzen zuten pozoia.

18c *enzutea dot* «aditu dut inoiz» esannahiarekin.

18d *guiza eralla*, eroen (eta ez \*\*erailen —ik. *Morfología* 3 eta *Gipuzkera osotua* 121—) eratorria; cf. RS 227 *yl eyquec ta yl aye, ta yre erallea yl daye* «Matarte has y matar te han, y a tu matador mataran», RS 167 *Erioac ereçan Butroeco alabea Plencian* «El tartago mato a la hija de Butron en Plencia», Peru Ab. 210 *iru soldau pilloren eraliac*, MI *guison eraylea* «omiziano», Dic. *Trilingüe era-llea* «asasino» (eta ik. -ado, -ato, -ino); oraintsuago G. Garate *Izurri Berria* 106 *Mentxakaren gizeraileek*.

18g *beretutea*, cf. 22e *beretuteco* «menperatu» esateko; «Cancion Vizcayna»n *Phelipe Hespañaco done andia / escubetu doçu mundu gustia* (2) dugu; *beretu* dator *Voces Bascongadas* sv. apoderarse-n ere.

19b *ygaro*. *Irago* dute BA, AR eta URk baina soilik -gar- (*igaro, igaraite-*) 1700 arteko bizk.zko testuiek; Cf. *Materiales, Thesauruserako* eta Zubiaur-Arzamendi eta Soto-Michelenaren lanak.

19d *yzan da suen broquela*, cf. ordea 18e-g; ezinbestekoa da, beraz, Mitxelenarekin («Ad experiendum» 239) pentsatzea ezen «galderatxo bat egin daiteke, nolanahi ere, lehengo eta oraingo ezineramanen urratsetan: nor izan zen, gauzak horrela zirelarik, noren brokela aspaldi haietan?». Hitzaz ik. Riquer BRAE 1980 407 eta hur.

19e *aurreronçean*, cf. 34c *goruncecoa, -un-ekin*. Baliteke bataedo bestea (errazago lehena) kopiagileen aldaketa izatea.

19g *ezpa*, id. 33g, *espa* 1e, 20g, 32g. Cf. «Canción Viscayna» 195 *Domingo Vizcaycoari, corra deussaçu / ezpa ya cinean gustioc Gabachu.*

— *Errochela*, cf. 28e *Orana*, -arekin espero litzatekeen -araren ordez; kopiagilearen aldaketa?

20a *Poloniaco erregue*. «Joan Sobieski dugu ezinbestean, Joan hirugarrena, harako Viena turkoengandik 1683an libratu zuen hura. Ez da, beraz, Bizkaia Sobieski baino beratzago azalduko eta luzaro gabe etsi beharko bestela us[t]e duenak», Mitxelenaren iruzkina «Ad experiendum» 228.

20b *dereste*, cf. 33e *derichu*; -re- dute RSeko hurrengo bi adibideok ere: 257 *on derextanari* «al que bien te quiere» eta 312 *gach ceerexqueoc yñori* «no quieras mal a nadie» eta baliteke *derichuren*-i-a izatea aldabeharra.

20f *bapere*<*bat+bere*, cf *batere*<*bat+ere*.

21c-d, hots «guztiak ez badira ere bai batzuk...»; ik. 1g *bira-z*.

— *ombre a ombre*, cf 4c *caue de pala*. Dirudienez —gogora BA 321 *no se hizo para los asnos estimacaz dulcea* eta beste— gaztele-razko perpaus eta perpaus-zatiak euskal testuetan sartzea lizentzi zen, batez ere bertso barregarrietan; inoiz, Arakistain eta Larra-mendi frantziskotarra bezala<sup>85 bis</sup>, euskara eta erdara ahapaldi guztietan txandaka tartekatuaz ondu zituztenak ere badira.

21e *badira*, baldintzazkoa, cf. 21c, 1e *bira*.

21g *ala[n]*, cf. 13g. Bidenabar, -n hori ez da soilik bizk.zkoa Gamizek ere 3d *alan*, 4e *ala* (baina puntuoa) bait ditu.

22a cf. *Dic. Trilingüe sv. «babazorro»*.

22c *day*, ik. 37a.

23a *acha*. Araberaz eta bizk.z  $Vi(t)z > V(i)(t)x$  bilakatzen da, cf. Landucci *axeia, guoxa, góxaldea, elexea, nox, vaquocha, a[c]hurra, hordu gacheá*. Ik. FHV<sup>2</sup> 192 eta Landucciri Mitxelenak egin sarrera 27.

---

(85 bis) Eta cf. E. M.<sup>a</sup> Azkueren «Berneoko astodunai» eta «Mundako arrainsaltzaileak» eta Etxegarairen *Festarako zenbait*.

23b *yregui*, -girekin bizk.z ohi bezala; cf. Zubia-Lezamiz *irgui* («Contribución» 151), MI *yrigua* «abierto», *yrigui* «abrir»; beste aditz batzueta rako cf. KA 125, 154, etab. *edugui*, BA 181 *eugui*, BA 142 *ebagui*, MI 1 *ebaguiten*, TAV 75 *eogui*, etab.

23c *bazaozque*, futurozko forma, cf. «Canción Vizcayna» 148 *Urten doquean*.

23f *onestera*, cf. TAV 122 *onerestea daucat viozean sarturic*.

23g *esteyo*, ik. 37e.

24a *ze dasadan*, id. 34b, 27e *ze zatoçan*. «Agindu eta antzeko zentzuekin adizlagun bururatuak (\**edin*/\**ezan*/*egin*), ezeztapena zeaurrizki formaz azaltzen da sarri Bizkaiko testu zaharretan» (A. Arejita «Canción Vizcayna» 165). *Ze dasadan* Mitxelenak («Ad experendum» 230) *noan lehen-bait-lehen*, *gatozen harira* eta era horretakoak bezalako *hortatiuustzat* du. *ze-ren* adibide gehiagotarako ik. A. Arejita aip. lekua. Azkuek *Morfologian* (470-471) oraindik bizk.ren zenbait lurraldetan entzuten zela eta soilik imperativo eta subjuntiboan (baina Garibai A30 *çetoa* cf. «Evolución de la lengua vasca» 86) erabiltzen zela dio. Beranduago Zubiaur eta Arzamendik *çetoa* hori *çetoa*aren errata izan daitekela pentsatzen dute beren lanean.

24d *pleit[e]a*, ik.III.

24e *podoreac*, ez da errata noski, cf. BA 211 *podore*, Elizalde 26, 76 *podorea*, Agirre (1759) 27 *podorioarequin*, 4(2) *podorotsua*, Zubia-Lezamiz («Contribución» 147) *podorossoa* eta Etxeberri Ziburuuko *Manual* I 55 eta Altunak hor jarri oharra.

24f *juaterren*, cf. *eguiterren* (A. Irigoyen «Canción antigua de amor vizcaína» FLV 1978 456), *eracusterren* BA 393 eta *onremaiterren* («Canción Vizcayna» 174 eta exemplu gehiago oharrean). Iri goienek honela definitzen du: «se trata de un sintagma nominal sin determinante que recibe el elemento desinencial motivativo *-rren*... Hoy se dice *egitearren* con inclusión del artículo *-a*-entre *egite*, sustantivo verbal, y *-rren*, como sucede también en *egiteagatik*, su síntesis correspondiente» (aip. lana 459. or.).

24g *ebilgura* «nik ez dut inon *ebilgura* hitza idoro: «ibilera» edo horrelako zerbaiten baliokide dirudi. Ez da horrenbestez «go-goa» izango *-gura*, *bilgura* eta mota horretako hitz erakarrietan nabari ohi den atzizkia baizik» Mitxelena «Ad experendum» 231; Cf. *Dic. Trilingüe ibillinaya, ibilligura, ibillizalea* «ambulativo», eta *Voces Bascongadas* andariego c. *ibillinaia, ibilcorra, ibilzalea*; b. *ibilligurea*.

25b Azkuek *kutizi(a)*, *kutixi* Andoain eta Ormaiztegikotzat da-kartza soilik, *gutizi* «BNc, G, L»kotzat; ez dut bizk. zah.eko beste lekukorik eriden.

25e *bidaldo*, jadanik Arrasateko erreketaren kanta batean (TAV 84) *Esera bidaldo nau ni* eta *bidaldo dogu Milia Lasturren* eresian (TAV 76), -durekin. 1745 baino lehenagoko bizk.zko testuetan aurkitzen ditudan forma guztiak era horretakoak dira.

— *goruncean*, ik. 34c.

25f *elia* «talde handia» nahiz pertsona nahiz abereena; cf. RS 284 *Elli dollorrean esta cer autu* «en ruyn ganado no hay que escojer» RS 235 *semez elliric ez* «De hijos no rebaño» eta Oih. 499 *Elsos ere elhia gaiz* «les moucherons mesmes sont fascheux, lors qu'ils sont attroupez». Cf. *Manual Debotionezkoa* 2283 *tropelaka*, 2287 *tropela*, Arakistain *aldra, aldrea* «tropa de gente, ganado».

26c *etorteco (gai) izan*, cf. 12e *artuteco capaz gara*.

26g *baya, bainaren* formarik arruntena bizk.z; cf. MI pero, XVII.mendeko bizk.zko amodiozko poema («Contribución» 88), Zubia-Lezamiz (ibid. 151) eta «Canción Vizcayna» 181 (adibide gehiagorekin oharrean). Arejitarak dioen legez «Bizkaiko euskeran *baiña* baino hedatuago dago antxinarik (gaur arte) *baia*. Hots sudurkardin *baiña* hori Lea-Artibai aldean da gaur erabilia. Bizkaiko lurraderik gehienean *baia, baie oguzten da*» (ibid.). Aldaera horiei erants bekie Zubia-Lezamiz («Contribución» 151) eta Kapanaga 5, etab. *baea*.

27b, hots, hari zor diozue, «hari eskerrak».

27c *sinistea emon*. «fedea, hitza eman».

28c *gaizqui*, mantendu egin dut Azkuek hitz hau B-tzat ez badakar ere BAk (183, 185) erabiltzen bait du; beste batzutan bezala (objeto pluralaren marka falta aditzean, *gidal, gerazia*=«grazia», etab.) BArekin bat dator arabera: Landuccik *gaystotoro* «mal o malamente», *gaystoto eguon* «malestar», *gaystoto essan* «maldezir» dituen arren *gaizqui* irakurtzen bait da Gamizen poesietan: «*Dabilcenchoac*» 2a, 2e, 11g, «Euscaraz gaiztoetan» 6a.

28e *lanza*, cf. 14d *gezi* (irakurketa zalantzazkoa). *Darda* eta *gezi* agertzen dira Andramendiko apokrifoenetan ere (ik. Mitxelena eta Bidegainen lana ASJU 1954 22, 11.oharra) eta soilik bigarrena Martin Bañez Artazubiagakoren eresian (TAV 91). *Orana-ri* buruz ik. 19g.

28g *gaiztoa*, agian *gueiz-* orijinalean, cf. 32d. Dena den BAK *guestoa* (268) eta *gaiztoan* (257) ditu.

29a «Vizcayagaz Motricu=Vizcaya eta Motricu?» galdetzen du Mitxelenak («Ad experiendum» 233) «horrela balitz ere, ez dut ikus-ten, ez argi ez ilun, zertara datorkigun Motriku» erantsiaz. Mitxelenak proposatu bezala azaldu nuen nik «Oharrak zenbait arkais-moz»en, ASJU XVII (1983), batez ere 49-57. orriean, non saiatu bait mintzen «Xekin Y=X eta Y» egituraren 1800 ingurura arteko adibideoro biltzen; hala ere hor aipatuei gehi dakizkieke, gutxienez, Ubillos 29 *Israeldar-aquin Jaincoaren testamentua ta alcar artzea*, Arakistain *eguin dezan cizorcareaquin elur* «suele granizar o nevar», Otxoa Arin 77 *Deseatcen debe guizon libre batequin, andre, edo emacume libre batec matrimonio santua eguitea eta, agian, Chacurren amessagaz paluac asco / eroango doçuz* («Canción Vizcayna» 57). Bestalde, eta honek garrantzia gehiago du, ez dakit nola ahantzi zitzaidan lan horretan Mitxelenaren «Miscelánea Filológica Vasca (I)» aipatzea, batez ere 228. orria, non aurki bait daiteke bizk. eta gip. zah.ak batera duten ezaugarri honetazko zenbait ohar, are uler-tezinago orain dakusadanez «Xekin Y» laburdura bera ere lan horretan erabiltzen bait da lehendabizikoz<sup>86</sup>.

29e «*Marquinaco erregea alegiazkotzat emana dago. Haren premia ez da, bada, larria guretzat ez besterentzat*», Mitxelena «Ad experiendum» 233. Ongi ulertu badut «ez dago M. e.aren beharrik» edo antzeko zerbaite esan nahiko luke Mitxelenarentzat; nik, ordea, egiturak arraroagoa badirudi ere nahiago dut (ik. jadanik ASJU XVII ene lanari jarri 38.oharra) *Markinako erregea eta tratua bearturen sakoneko sujetotzat hartu eta, gutxi gora behera, «Lehenago behar-tuko gaitu M. e.ak hango tratuak baino» itzuli*. Sujeto genitibatze horrek ba du beste lekukorik, objetozkoak baino gutxiago badira ere; urrutirago joan gabe TAV 144ean bildu *ayta sanctu Nicolao laugarrarenarê emona ...Sist laugarrenarê aprouadua* (3.ordenako erregela zahar batean), *Christoren prometituen* (Isasti *Salvea*), BAren *Guretakozat jaio da Jesus/ Askoren deseadua eta Labur da gizonaren adimentua/adizeko Jaunaren ordenadua*; erants bekizkie goiko lan horretan jadanik aipatu nituen *Nobleza guztiaren aniz estimatua*

*Txoria* (eta hegaztia) amodiozko kanta hauetan *neskaren* simbolo da, *ehiztaria* mutilarena den gisa. Txoriak aipamen ugari aipaturiko norabide semantikoan. Txoriak, batzutan, *erresinula* hutsa ere adieraz dezake antonomasiaz. Hona aipamen zenbait:

(20) «Kaiilla kantuzz», MEOE ibidem.

(21) «Agur, oi izar maitia!», MEOE 67 or.

(22) «Eijerra zira maitia», J. Riezu, 89 or.

(23) «Musde Sarri», MEOE 50 or.

(24) «Xarmagarri bat», MEOE 74 or.

Xoria zuñen ejer khantüz oihanian!  
Nihaurek entzün dizüt igaran gaiian<sup>25</sup>.

Kasu honetan delako «xoria» *erresinula* da, noski,  
eta, zentzu orokorrean, maitearen sinbolo gisa:

Xori ejer bat hatzaman dizu Paube-ko seroren komentin;  
orai harekin biziren duzu, aspaldian gogun beitzin<sup>26</sup>.

Txori kantazale, ejer, xarmagarria,  
aspaldian eztit entzün zure botz eztia;  
arren kontsola zite, tristeziaz betia,  
etzirade izanen gaizki tratatia<sup>27</sup>.

Primaderan koro, oi, liliz egina!  
Goizeko txoriaren, oi, kantu arinal  
Ez duzue eztitzen nere bihotz-mina,  
zeren sobera baitut amodio fina<sup>28</sup>.

Xori papogorriak ederkí kantatzen,  
gaiazko<sup>29</sup> alojia kanpuan xerkatzen<sup>30</sup>.

(25) «Xori erresiñula üdan da khantari», *J. Rieu*, 298 or.

(26) «Arbotiko prima ejerra», MEOE 51 or.

(27) «Goizetan jelkitzen da», MEOE 70 or.

(28) «Nere maite pollita», MEOE 76 or.

(29) «Gaiazko» = gaueko.

(30) «Xerkatzen» = bilatzen. «Xarmagarri bat», MEOE 74 or. Beste bi kasuotan txoria amodioaren tartekari bezala azaltzen da: «Nik badizut txori eskolatia /ene obeditzera hurak ber/tan prest tuzu» («Ama batek», in *Gure Herria* (1927) post. 576 or.).—«Txoriñua, habil adesago lekutik /hari hura solta ezak bere burdunetik» («Ama batek», ibidem). Proventzako lirikatik oraindik beste aipu hauek: «Ges l'estornels (*arabazoza*) non s'oblida; /quant ac la razon auzida» (M. Riquer, 67 or.).—«Sobre una branca florida lo francx auzels (*txoria*) brai e crida» (M. Riquer, 68 or.).—«E.l rossinholetz el ram /volf e refranh ez aplana/son dous chanar et afina» (M. Riquer, 100 or.).—«Et aug als auzels (*txoriak*) retraire / per los brondels lo douzet chan» (M. Riquer, 117). Baita ikus beste horri hauek: 198, 215, 262, 271, 300, 304, 349, 392, 426, 428, 445.

b) *Elemendu botanikoak.*

Elemendu botanikoek ere (hizkera lirikoaren sinbologian) garrantzi handia daukate. Behar bada, euskal lirika zaharrean landare eta zuhaitz zenbait derriorrezko edergailu da, eta, bereziki, «atari ilogiko-sinbolikoetan». Atari horietan *mertxika*, *lilia*, *arrosa*, *elorria*, etabar ez da falta. Adibidez, xarma handiko ataria den harako: «Mertxikaren loriaren ederra! Barnea dizu hezurra gogorra» hura.

Gaztelaniar lirikak ere maite ditu elemendu bejetalak edo botanikoak mintzo liriko baten osagai gisa<sup>31</sup>. Textu horien goidura lirikoa, agian, euskarazkoena baino oraindik finagoa da. Arrosak (*rosa*, *rosel*), *limoiak* edo *zitroinak*, *almendrak*, *olibak*, *malbak*, *urritzak*, *aranondoak* eta *miluak* (*hinojo*) dira aipatuenak.

Gaztelako lirika zaharrena, aunitzetan, Frantzia, Italia, Alemania, Inglaterrakoa baino sotil eta elementalagoa da (hemen, noski, X, XI, XII mendetako lirika anonimo zaharra mintzatzen ari naiz, eta ez XIII, XIV mendetakoaz. Hona hemen textu xarmagarri zenbait:

Manojitos de hinojo  
coge la niña,  
y sus ojos manojos  
de flechas tiraba<sup>32</sup>.

Lávanse las casadas  
con agua de limones;  
lávome yo, cuitada,  
con ansias y dolores<sup>33</sup>.

(31) Proventzako lirikan, itxuraz, Gaztelakoan baino erreferentzia botaniko urriago dago, bainan, ala ere, ez dira falta *arrosa*, *pinua*, *brioleta* eta *elorriaren* aipuak. Hona kasu batzuk: «A la fontana del vergier (*Iorategia*),/ en l'erbe's vertz josta.I gravier,/ a l'ombra d'un fust domesgier,/ a aiziment de blancas flors» (M. Riquer, 45 or.).—«El rossinhol mou son chant /sotz la fueilla el vergant. / Sotz la flor m'agarada /dous'amor privada» (M. Riquer, 114 or.).—«En vergier ni dinz forest / ni par flors groga ni blava» (M. Riquer, 153 or.).—«Bel m'es, quan la roza floris el gens terminis s'enansa» (M. Riquer, 201 or.).

(32) M. Frenk Alatorre. Lírica española de tipo popular, op. c. 23 or.

(33) M. Frenk Alatorre, op. c. 150 or.

Salid, mi señora,  
de so el naranjale,  
que sois tan hermosa,  
quemarvos ha el aire<sup>34</sup>.

Eta sugestio goitar berbera *garia eta elorria* direla-eta:

A la sombra del trigo bello  
mi querido se me escondió:  
¿si le tengo de hallar o no?<sup>35</sup>.

Y púsome en tierra firme,  
con el furor que traía,  
a la sombra de una mata  
que por nombre espino había<sup>36</sup>.

Baita gogoratzekoak *limoiak*, *almandrak*, *palmondoak*, *pinuak*, *zumea* eta *isatsa* (retama). Hemengo textu batzuetan elemendu botanikoak ez du halako betekizun *estetikoa* baino (gure lirikan ez ahaz *limoia* (zitroina «Ozaze Jaurganian» kantan, eta «zitru-ura» Lohitegi alarguntsaren erromantzean).

Y los dos amigos  
idos se son, idos,  
so los verdes pinos.  
So la mimbrereta.

Mimbrera amigo,  
so la mimbrereta<sup>37</sup>.

(34) *M. Frenk Alatorre*, op. c. 151 or.

(35) *M. Frenk Alatorre*, op. c. 10 or.

(36) Temario honetaz ikus ere: «Aitzol». «Eusko olerti-kera berezia (estetika)», in *Yakintza* 10 (1934) 243-255 or.—J. Haritschelhar. «Simbólica amatoria: Los nombres de la mujer amada en la canción popular», in *Estudios de Deusto* (1927), 9-27.—D. Peillen. «Amodiozko baratzetan», in *Gure Herria* (1962), 74-96.—J. Kortazar. «XVIII mendeko lirika herrikoia» im *JAKIN* 24, 106-122 or.

(37) *M. Frenk Alatorre*, op. c. 89 or.

«Mimbrereta» hemen gure *zumeta* da, hots, *zume tokia*.

No eres palma, eres retama,  
eres ciprés de triste rama,  
eres desdicha, desdicha mala<sup>38</sup>.

Debajo del limón la novia,  
y sus pies en el agua fría.  
Y *debajo de la rosa*<sup>39</sup>.

Maitasuna eta landare berezia identifikaturik. *Elorria, zumea, limoiondoa* amodioaren giroan atonduta han-hemen.

Euskal lirika anonimoan ere oihartzun antzekoak, simbolismo umotu eta gozo baten norabidean. Gure kasuan sugerigarrienak *lilia* (lorearen aipamen orokor gisa, gehienetan), *mertxika*, *brioleta*, *elorria*, *arrosa*. Maitasuna elemendu horien ebokazioan ematea al-boko literaturetako giroan ere atontzen da. Gure lirikan XVIII mendeko textuetan XVII-koan baino elemendu botaniko ugariago topatzen dugu, eta, noski, XVI eta XVII-ko kanta epikoetan baino joriago ere. Ikus ditzagun kasu batzuk:

Baratzean zein eder prinpirina belharra,  
zerk othe emana deraut nik dudan sukarra?

Lili pollistik, eta sasoin guzietan,  
errekontratu dizut bai orai artekan...  
Ene lili maitea leihoa kausitu!<sup>40</sup>

(38) *M. Frenk Alatorre*, op.c. 68 or.

(39) *M. Frenk Alatorre*, op.c. 251 or.

Besteok ere gogoan edukitzekoak dira bere fintasunagatik: «Entre la mar y el río / nos/creció un árbol de bembrión» (*M. Frenk Alatorre*, op.c. 252 or.).—«Entre la mar y la arena / nos creció un árbol de almendra» (*M. Frenk Alatorre*, op.c. ibidem).—«Entre la mar y la arena /hay un árbol de canela» (*M. Frenk Alatorre*, op.c. 253 or.).—«Por las riberas del río /limones coge la virgo» (*M. Frenk Alatorre*, op.c. 90 or.).

(40) «Pinpirina Belharra», in *Gure Herria* (1925) post. 30 or.

(41) «Amodio garbia», in *Gure Herria* (1928) post. 56 or.

Textu honetan, noski, *lilia* amodioaren erreferentzian ulertu behar da, aipamenak, maila ebokatiboan zehaztasun handirik gabe ohakatuz<sup>42</sup>. Eta, berriro, eszenario bejetala azaltzen digun pasarte-multzoa:

—Arrosak eder botia, ederrago du loria...  
Lehen bertzetan ibili eta orai niri gortia?

Landan eder iratze,  
behi ederrak aretxe<sup>44</sup>.

Baratzian zuinen ejer jirofleia loratu!  
Aspaldian desir niana orai dizut gogatu<sup>45</sup>.

Eta mintzo orokorrako batez:

Eijerra zira, maitia,  
erraiten deizüt egia;  
nurk eraman othe deizü lehen floria<sup>46</sup>.

Eta konparaketa gisa ohizko atari sinbolikoen teknikaz:

Arboletan den ederrena da  
ohian beltzian pagoa;  
hitzak ederrak ditutzu, bainan  
bertzetan duzu gogoa<sup>47</sup>.

(42) *Lilia lorearen* sinonimo gisa ulertu behar da gehienetan, bereziki, iparreko euskalkietan. Kasu batzuan *lirio*-aren ordaina ere izan daiteke. Hona beste textu batzuk: «Ene lili eijerra, hunki jin hizala! /Eztat, ez, nik eginen jaun harek bezala; /freskorik hait etxekiren (gordeko) ene bularran, / deitoratzen haidalarik jaun haren izenian («Goizetan jelkitzen da, MEOE 71 or.).—«Primaderan lili ororen printzia» («Amodio garbia», I.c. post 56 or.).—«Igorri diadazüt nahi eztiala, /lantarerik emanik oritzen eztela» («Goizetan jelkitzen da», MEOE 70 or.).

(43) «Agur, oi izar maitia», MEOE 68 or.

(44) «Eijerra zira, maitia», *J. Riezu*, 87 or.

(45) «Eguntto batez nindagelarik», MEOE 78 or.

(46) «Eijerra zira, maitia», *J. Riezu*, 87 or.

(47) «Ene maitia, barda nün zinen?», MEOE 88 or.

Mendian eder arbola luze lerdena...  
 Zu zirade mundu huntan nik maitatzen zaitudana...<sup>48</sup>.

Lilitan polittena elorri xuria,  
 lilia joan ondoan, zein bihi<sup>49</sup> gorria!  
 Bihi barnen dauka, oi, hezur gogorra:  
 barnez gor, kanpoz eder ta bihotz elkorra<sup>50</sup>.

Esan dugunez, «atari ilogiko-sinbolikoak» hemengo textuen kera teknikoan atondua daude, elemendu botanikoak ebokazio mailan sartzen direlarik. Ebokazioa duen elemendu orok *beste* gauza baten erreferentziara garamatza; hori dela-eta, atari horien «ilogikotsuna» partziala baino ez da, ezen-eta gauza sinbolikoek (elementu desberdinaz aparte) badute «lotura» egiten duen ezkutuko zonaldea ere. Gauza ebokatueta, noski, beti lotura bat (nahiz-eta urrunekoa eta bapatekoa ez izan) datza; lotura hori azterketa literarioak (analiisiak) atzeman dezake. Goazen, azkenik, beste textu batzuk ekar-tzera alde tekniko hau borobiltzeko:

Mertxikaren loriaren ederra!  
 Barnian dizu hexurra gogorra;  
 gaztia niz, bai eta loriosa,  
 eztizut galtzen zure esperantza<sup>51</sup>.

Primaderan zoinen eder brioletaren loria!  
 Aspaldian nik eztut ikusi neure maitiaren begia;  
 balinba gaixoak eztu ahantzi niri eman fedia<sup>52</sup>.

(48) «Erregek gizon ederrik», MEOE 88 or.

(49) «Bihi» = ale.

(50) «Ene maite polita», MEOE 77 or. Baita aipatzekoak dira ondoren-goak: «Arrosa buketto bat, uztarrilan sortürik, /igorri niriozün jaun hari goraintzi» («Goizetan jelkitzen da», MEOE 70 or.)—«Oi, ene bihotzek lili haitatia (hautatua),/ene botza entzunik leian zaudia?» («Xarmagarri bat», MEOE 74. or.)—«Lili ederra, so'idazu/maite nauzunez errazu» («Lili eder bat», MEOE 59 or.).

(51) «Intxauspeko alaba», MEOE 75 or.

(52) «Kailla kantuz», MEOE 86 or.

Eta amodioaren norabidean orokorki:

Lili eder bat ba-dut nik  
aspaldi begixtaturik<sup>53</sup>.

Eta errepika progresibo batez (*eta juntagailuz*).

Etxeko anderia, jiten<sup>54</sup> niz zugana  
entzunik ba-duzula lili bat xarmanta  
entzunik ba-duzula lili bat xarmanta,  
lili bat xarmanta eta bihotz bat net ona<sup>55</sup>.

c) *Elemendu somatikoak.*

Elemendu somatikoen itzala ez da apala gurean; tradizio berezik lehenago Proventza eta Gaztelako lirika zaharra, sentsualismoa halako kera xumezko deskribapenez lotuz<sup>56</sup>. Proventzako tradizioan soin-edertasunaren goreskarria nabarmenarazi nahi da *damaren* alde fisikoa gailenduz:

Quel cors (*soin*) gras, delgat e gen (*liraina*)  
e ses ren que.y desconvenha,  
e s'amors bon'ab bon saber<sup>57</sup>.

Laisat hai eu en regarda  
per ma mort son bel cors (*soina*) gen (*liraina*)<sup>58</sup>.

(53) «Lili eder bat», MEOE 58 or.

(54) «Jinen» = etortzen.

(55) «Aitarik ez dut», MEOE 58 or.

(56) Hemen eta bestetan, Proventza, Okzitania eta Gaztela aipatzean ez dugu esan nahi, noski, elemendu haiiek, nahitaez handik hartuak ditugunik, baizik-eta antzeko motibazioak badaudela Euskal Herriaren aloamen geografikoan.

(57) *Jaufré Rudel. M. Riquer*, op.c. 98 or.

(58) *Peire de Valeria. M. Riquer*, op.c. 127 or.

Ben volria mon cavallier  
 tener un ser en mos bratz nut..., (*larrutsik*)  
 eu l'autrei min cor (*soina*) e m'amor  
 mon sen, mos huoils (*begiak*) e ma vida <sup>59</sup>.

Proventza-ko lirika, gehienetan, aski sentsuala da, Gaztelakoa eta gurea baino barrokoagoa, puztuagoa. Gurean zentzu liriko xume-sotila bortitzagoa da; Gaztelakoan, berriz, sugerigarritasuna bi-ziaoga.

Salteóme una serrana,  
 blanca, rubia, ojimorena.  
 Trae el cabello trenzado  
 debajo de una montera  
 y, porque no le estorbara,  
 muy corta la faldamenta <sup>60</sup>.

Estáse la gentil dama  
 paseando en su vergel,  
 los pies tenía descalzos,  
 que era maravilla ver...

Delgadica en la cintura,  
 blanca soy como el papel,  
 la color tengo mezclada  
 como rosa en el rosel,  
 el cuello tengo de garza,  
 los ojos de un esparver (*gabiraia*),  
 las teticas agudicas,  
 que el brial quieren romper,  
 pues lo que tengo encubierto  
 maravilla es de lo ver <sup>61</sup>.

Azken erromantze honetan (bere izena «Romance de la gentil dama y el rústico pastor» da) deskribapen fisiko sotilaz aparte, sentsualismoak ingenuitate xarmagarria, ezen-eta «teticas agudas»

(59) *La Comtessa de Díaz*. M. Riquer, op.c. 171 or.

(60) «La serrana de la Vera». M. Díaz Roig, op.c. 269 or.

(61) M. Díaz Roig, op.c. 269 or.

eta «lo que tengo encubierto (*estalia*)/maravilla es de lo ver» pasarteek Arcipreste de Hita, Gonzalo de Berceo (eta guretzat hurrago den Etxepare baten) ingenuitate sotila isladatzen digute. Sentsualitate hori, zabarra ordez, halako aire xorakorra duen horietakoa da. Berezitasun hori lirika zaharraren apartekotasunetakoa izanen da. Kera sugerikorrik, bestalde, «la color tengo mezclada/ como rosa en el rosel» delakoan. Gaztelakoa ez da Proventzakoa bezain harroa, hau, neurri handi batean gorteteako giro *artifizialean* ematen zelako. Bat kanpokoia, exteriorista den bitartean, bestea (Gaztelakoa eta Galiziakoa) barnekoia da. Hona beste pasarte xume batxuk:

En los colores de cara  
y en el pechito un lunar.  
En los colores de cara  
ya no me conocerás,  
que solamente me queda  
en el pechito un lunar<sup>62</sup>.

Orain pasa gaitezen gure textuetara. Gure pasarteak ez dira, gehienetan, Gaztelakoak bezain sugerigarriak; hala ere, han-hemen xarma berezia lortzen duten zatiak:

Lili ederra, so'idazu  
maite nauzunez errazu.  
Zure begiak bihotza barnatik deraut kolpatu;  
kolpe huntarik ba-dizu  
granganatzeko herrixku<sup>63</sup>.

Andereño bat ikusi nuen igande goizño batez;  
bista berian agradatu nintzan haren begiez;  
ez dut uste ba-duela parerik eztitasunez<sup>64</sup>.

(62) «La condesita», *M. Díaz Roig*, op.c. 290 or.

Norabide estetiko eta sentsual berean besteok ere: «Desque lo halló burlada/allí le cortó un pecho» (*M. Díaz Roig*, 279 or.).—«Miraba su lindo rostro, /miraba su rostro alindado, /sus lindas y blancas manos /él se las está loando» (*M. Díaz Roig*, 111 or.)

(63) «Lili eder bat», MEOE 59 or.

(64) «Andereño bat», MEOE 58 or.

Ondorengo bi textuetan deskribapen aski zehatz eta aberatsa, nahiz eta deskribapen horrek ez eduki gaztelaniar pasarteen airositasun inozoa (ingenuo):

Maitiak bilhoa<sup>65</sup> holli  
eta koloria gorri  
esküko larria<sup>66</sup> xuri, zilhar fina tüüri,  
eta bera xarmagarri best'ororen gaineti<sup>67</sup>.

Jentetan den ederrena umen duzu Agota:  
bilho bolli, larru xuri eta begi nabarra<sup>68</sup>.

Deskribapenok egitean elemendu somatikoetan koloreak<sup>69</sup>, aski nahasten dira («begi nabarra», «larria larrua» xuri», «bilhoa holli (hori)». Bestalde, ez ahaz gai bejetalen nahastekamendua, «mertxikaren loriaren ederra.../gaztia niz bai eta loriosa...» gisakoa.

#### d) *Paralelismoak eta parekaketak.*

XVII mendeko lirikan paralelismoaren aldetik adibide bikainak «Egun bereko alarguntsa» erromantzean aipaturiko *gaua/eguerdia/arratsa* eta *ezkongai/ezkondu/alarguntsa* elemenduetan.

Textu ez aipatuetan halako paralelismo parekatzaile elementalak delako lersunen (kurriolloen), lerroen eta maitalearen penaren artean. Berdin delako «ederra.../ederrago» hartan «Agur, oi izar maitia» kantan.

(65) «Bilhoa» = ilea.

(66) «Larria» = larrua.

(67) «Maitiak bilhoa holli», J. Riezu, op.c. 63 or.

(68) «Agota», MEOE 65 or.

(69) Hona probentzar lirikan kolore-aipamen batzuk: «“Belha”, f.i.m ieu, per trop plorar /afolha cara e colors» (M. Riquer, 47 or).—«De finamor dezirada /az una flor pic vairada (*nabarra*)» (M. Riquer, 66 or).—«Fresc'a color e bel esgar/et es blanca ses brunezir (*ilundu*) (M. Riquer, 84 or).—«Que plus ez blanca qu'evori» (*marfil, eusk. boli*) (M. Riquer, 25 or).—«Que tost cai /blancs en bai (*gorriska*), /com flors sobre lenha» (M. Riquer, 194 or).—«E fai ho mal qui lo y cossen/ni.l dona vestirs vertz (*berdeak*) ni vars (*nabarrak*).—«Dompneis d'amor, qu'en lieis s'espan e creis, /plens de doussor, vertz e blancs, cum es nics (*elurra*)» (M. Riquer, 200 or.).

Hona lehenengo adibidea:

Lersunak lerro-lerro bidean ba-doazi,  
beruaren lekurat, hotzaren ihesi...  
Ni ere beti penaz beharko naiz bizi;  
zonbait aho-kirats nik beharko iretsi <sup>70</sup>.

Hemen *llerro-llerro* dena (eta ez ahaz XVII-ngo «Urtsuan zazpi leio, /zazpiak lerro-llerro» hura) beste kanta batean *musuz-musu* iza-nen da («Urera ginenian, biok musuz-musu, /galdegin zautan ere: zenbat urte tutzu?») <sup>71</sup>.

Eta aipatutako parekaketa botanikaren sinbolismoa profita-turik:

Arrosak eder botia, ederrago du loria...  
Lehen bertzetan ibili eta orai niri gortia? <sup>72</sup>

Lizardi-k XX mendean hain maitezkoa zuen «iduri» formula metatizatuaz ere baditugu parekaketak. Garbi dago formula hori Lizardi baino antzinagokoa dela <sup>73</sup>. Hona adibide bat:

(70) «Buruiaren ondarra», MEOE 90 or.

(71) «Goizean goiz jeikirik», MEOE 66 or.

(72) «Agur, oi izar maitia», MEOE 68 or.

Aipamen hutsak ere, batzutan, aposizioan lekukotasun baten adierazle errealista gerta daitezke: «Eta ama igorri Santa Barbarara, /Madalenara, eta hantik Sarrantzera (?) /Promesak, ai, ez egin ahalez sekula» («Mirakullu bat» in *Gure Herria* (1928) post. 192 or.

(73) Gaztelako lirikan paralelismo eta parekaketa bitxi aunitz topatzen dugu. Hona edertasun plastiko ukaezina daukaten kasuak: «El rey va tan desmayado /que sentido no tenía;/muerto va de sed y hambre /que de verle era mancilla, /iba tan tinto de sangre /que una brasa parecía» («La derrota de don Rodrigo» errromantza. *M. Díaz Roig*, op.c. 115 or.). Ze edertasun plastikoa eta errealismo bortitzka «iba tan tinto de sangre / que una brasa parecía» delakoan; horren azpian, noski, parekaketa datza. Hurrengo honetan paralelismoaz aparte aldiaren zentzu bisemiko bizia: «Parióme mi madre /una noche oscura,/cubrióme de luto,/faltóme ventura. / Cuando yo nací /era hora menguada, /ni perro se oía /ni gallo cantaba» (*M. Frenk Alatorre*, op.c. 160 or.). Eta mugimendu fisikoaren paralelismoa eraikiz: «Mis penas son como ondas del mar, /que unas se vienen y otras se van: /de día y de noche guerra me dan» (*M. Frenk Alatorre*, op.c. 162 or.).—Baita, paralelismo baten ardatzak beste honetan: «Las moras llevaban ropa, /los moros, harina y trigo, / y las moricas de quince años /llevaban el oro fino./ y los moricos pequeños /llevaban la pasa y el higo» («Romance de Alora la bien cercada», *M. Díaz Roig*, op.c. 62 or.). Eta oraindik: «En su mano una culebra, / y en la otra un puñal sangriento,/en el hombro una mortaja, /una calavera al cuello» («Romance del Rey don Pedro el Cruel», *M. Díaz Roig*, op.c. 98 or.).—«Que forzades las mujeres /casadas y por casar, /que les bebiais el vino / y les comíais el pan, / que le tomáis la cebada, /sin se la querer pagar» («Romance del duque de Arjona», *M. Díaz Roig*, op.c. 105 or.).

Haritz gazte bat nik aihotzaz<sup>74</sup>  
 trenkaturik,  
 iduri zait ene bihotza  
 kolpaturik<sup>75</sup>.

Nahiz-eta hemen konparabidezko elemendu bezala ez ibili, *iduri* metatizaturik (*irudi* ordez) azaltzen zaigu; bestalde, konparabidezko formula bezala ere present tradizioan.

«Ni ere gisa berian» pasartea ere parekaketa garbi bat islada-tzen digu:

Xori papagorriak ederki kantatzen,  
 gaiazko (gaueko) alojia kanpuan xerkatzen;  
 ni ere gisa berian hüüzü edireiten,  
 maitiak ezpadereit borta idekiten<sup>76</sup>.

Txoriaren aipamenean beste parekaketa bat:

Bard'arratsian, ametsetarik,  
 boz bat entzun düüt xarmantik;  
 eztitasunez betia beitzen,  
 haren parerik ez baitzen<sup>77</sup>.

*Izarrak* badu amodioaren sinbolizazioan bere kera berezia, eta, bereziki, gure lirikan (bainan, kontuz, ez da gure lirikaren *pribatiboa*, beste elemendu askotan bezala!). Sinbolismo horren baliakizunaz parekaketa nabariak ondorengo bi kasuotan:

Gaua luze izanagatik, argi mentsik<sup>78</sup> ez dugu:  
 izar xarmagarri hura leioan omen dagozu;  
 gu etxian artu artino harek argituren derauku<sup>79</sup>.

(74) «Aihotza» = matxetea.

(75) «Azken hasperena», MEOE 95 or.

(76) «Xarmagarri bat», MEOE 74 or.

(77) «Ene maitea, barda nün ziñen», MEOE 87 or.

(78) «Mentsik» = hutsik, gask. *menhs*, lat. *minus*.

(79) «Kailla kantuz», MEOE 86 or.

Ez da zeruan izar bihirik  
 nik maite dudan haren parerik.  
 Zeruan sortu izana-gatik,  
 distiratzen du nola zerutik:  
 izarño hori oroz gainetik  
 ez otoi harri maite badut nik! <sup>80</sup>.

e) *Elkarritzketak.*

Elkarritzketek, gehienetan, bizitasuna eta higidura komunikatzen die perpusei. Gure lirika zaharrean —amodio gozo baten airea duten pasartetan ere— ez da falta bizkortasun orekatsuzko elkarritzketarik. Batzutan, galde-erantzunak halako kezka baten ardatzeten doaz. Galdera, maiz, erantzunik gabe (isiltasun krudelean) gera daiteke. Hona adibide bat:

Maitia, nun zira?  
 Nik etzütüt ikhusten,  
 ez berrikirik jakiten,  
 nurat galdu zira?  
 Ala khanbiatu da zure deseña? <sup>81</sup>.

Ez dut ikusten, urzua,  
 Orkax handiko lepua?  
 Hango saretan utziko duk, segur hik heure burua;  
 nahi baduk eskapatu, jozak hegalez zerua... <sup>82</sup>.

Ene maitia, zer duzu? zerk holakotzen zaitu zu?  
 Ez du denbora luzia zirela penetan sartu...  
 Plazeraren ondotik desplazera duzu... <sup>83</sup>.

(80) «Izarra», MEOE 94 or. Konparaketazko baliakizunez ere: «Aingeruekin zaitu konparatzen; /zenbat maite zaitudan ez duzu pensatzen!» («Adios, izar ederra», MEOE 9 or.).

(81) «Maitia nün zira?». *Sallaberry*. Uskal Herri Maitiari. Ed. Hordago, 1977, 6 or.

(82) «Urzoa», MEOE 92 or.

(83) «Erregek gizon ederrik», MEOE 88 or.

Etzaitezila izi, ni ikhusirikan  
hunat jin izan bainaiz desir onekilan<sup>84</sup>.

Bertso haunitz galde-erantzun zalutan. Erritmo horretaz gure poesia kultuaren (eta bertsolaritzakoa) parte handi baten asperdu-razko eta monotoniazko arriskua gaintzen da.

—Nor da edo zer da? Nunko zirade zü?  
—Etxe ondorik eztit, parka izadazü;  
egarri handi batek harturik niagozü:  
iturri hun bat nun den, otoi, erradazü<sup>85</sup>.

Eta hurrengo honetan galderaren erantzuna (dei zorrotz gisa) jartzaileak berak emana:

Oi, eper zango gorria, airean joailia propia!  
Ez duzuia bada pena ene hola ikustia?  
Otoi, otoi, har nezazu, utzirikan bertziak! <sup>86</sup>

«Ana Juanixe-ren» erromantzean ez dira falta, noski, etendura finezko elkarritzak. Hona adibide plastiko bat:

—Oh traidoria! ez edo-da il  
biyoren ama maitia?  
—Biyoren ama ez da il, baña  
jazo da kalte sobria...

(84) «Amodio garbia», in *Gure Herria* (1928) post 56 or.

(85) «Xori erresiñula», MEOE 84 or.

(86) «Agur, oi izar maitia», MEOE 67 or. Erantzunen aire berean, bainan halako hasperenaz: «Eniz, ez, ni hain ejerra; nulaz erraiten deitazü? /Mundu huntako eijerrena bertutia lükezü; /hori ogenik egin gabe, otoi, maita nezazu» («Eguntto batez nindagelarik», MEOE 78 or.). Eta baita: «Urzo xuria, urzo xuria,/ erran izadak, otoi, egia: /norak buruz hündüien bidajez, /aldatu gabe pasajeze» («Urzo xuria», MEOE 85 or.).

—Ana Juanixe: zer pasatu da  
 Motriku erri onian?  
 —Zaldun gaztia: neuk bere ez dakit  
 zeu nundikan zarian.  
 —Neuk ba'dakit, ba Ana Juanixe,  
 zeu nundikua zarian,  
 zeu nundikua zarian, eta  
 noren alaba zarian...<sup>87</sup>.

f) *Errepikak eta antitesiak.*

XVIII mendeko lirikan errepiken joera aski bortitzaz izanen da, bainan aurreko mendekoarena baino apalagoa. Errepiken eginkizuna pasarte berezi bat halako intentsitatea erastea izan ohi da. Paralelismoak eta errepikak edozein literaturako textu zaharren joera izanen da, bihurkien eta berresandakoentzat bitartez halako nemoteknia egin nahi delarik, expresakera batzuen nabarmenzearaz aparte. Paralelismoarekin eta errepikekin, nolabait, lotuta beste baliakizun literario batzuk. Adibidez, a) *anafora* (esaldi, ala esaldi zati batzuk textu beraz hasten direnean; kasu baterako: «Xoria, zaude ixilik, ez egin khanturik; /xoria, zaude ixilik...»), b) *anadiplosia* (bertso baten amaiera eta hurrengoaren lehenaldea berdinak direnean; exemplu garbi bat: «Zintru (limoi) hurez ukuzten nizun astian egun bátiān, / astian egun batian, eta...»), c) *epanidiplosia* (bertso ala esaldi bat era berdinez hasi eta amaitzen denean) («Jinbazira, jin zira») d) *aliterazioa* (letra edo izki bat behin eta berriz errepikatzean).

(87) «Ana Juanixe». *M. Lekuona. Literatura oral vasca*, op.c. 122-123 or. Hona, bestalde, gaztelaniar lirikako kasu sotil batzuk: «De dónde venís amores?—Bien sé yo de dónde» (*M. Frenk Alatorre. Lírica española de tipo popular*, op.c. 128 or.—«Qué nuevas me traedes/ del campo de Palomares?—Buenas, la traemos, Señor, / pues que venimos acá» (*M. Díaz Roig. El romancero viejo*, op.c. 80 or).—«¿El castillo de Consuegra /digades por quien está? /El castillo con la villa /por el prior de San Juan» (*M. Díaz Roig*, op.c. 103 or.).—Probentzako lirikan ere, noski, ez da falta elkarritzaketa bizirik: «Ai las! —Que planga? —Ja tem morir. /—Que as? —Am. —E trop? —Ieu hoc, tan qu.n muer.—Mors? —Oc. —Non notz guarir? —Ieu no. (*M. Riquer*, 226 or.)—«—Car sui trop vengonhos e fis./ —No l'as re quis?/ —Eu per Deu, no!» (*M. Riquer*, 330 or.).

*Antitesiaz*, berriz, beherago jardungo gara. Antitesiak, noski kontraezarpen bat adierazten du. Era askotarikoa izan daiteke. Besteetan artean, ez da ahaztekoa *anakrusia* bi kontraezarpen elkar gurutzatzen (cruzar) direnean (adibidez: «Maiz erraiten dautazu zuk maite nauzula / eta jendek erasten bertzerikan dela»).

Orain gatozen textuetara. Lehenik errepikak aportatuko ditugu.

Kita<sup>88</sup> ezazu, kita ezazu Erregeren zerbutxia  
eta maita herria, uken dezadan plazera<sup>89</sup>.

Hurrengo honetan errepikaren prozedura hiru alditan:

Gabaz ilhun euria denian,  
bait eta ilhun euria denian;  
ilhun izanagatik euria denian,  
gogua alegera dut zureganat jitian<sup>90</sup>.

Eta besteok:

Jin<sup>91</sup> ba zira, jin zira,  
segur hunki jin zirela<sup>92</sup>.

Orai artino etzirenian jin ene kontsolatzera?  
Jin zite ardura, ardura,  
penaerazi gabe ni hola<sup>93</sup>.

Xoria, zaude ixilik, ex egin khantürik;  
xoria, zaude ixilik, ez egin khantürik...<sup>94</sup>

(88) «Kita» = utzi, fr. *quitter*.

(89) «Arbotiko prima ejerra», MEOE 52 or.

(90) «Maitale gibelatua», MEOE 62 or.

(91) «Jin» = etorri.

(92) «Plañu niz bihotzetik», MEOE 69 or.

(93) «Plañu niz bihotzetik», MEOE 70 or.

(94) «Xori erresiñula», J. Riezu, op.c. 298 or.

Amodioa, amodia nahi duenak har diro;  
nik batenzat hartu dut eta sekula ez utziko...<sup>95</sup>

XVIII mendeko textuetan ikusi genuen errepikak progresioa *eta* juntagailuaz egiten zutela askotan, hirugarren fasealdian prozedura horrek bere amaiera lortzen zuelarik. Adibide gardena harako: «...astian egun batian, /astian egun batian, *eta* ostirale goizian». Hona XVIII mendeko exenpluak:

—Ez nagizula lotsatu, arren  
onelan plaza betian;  
onelan plaza betian *eta*  
ainbeste jente-artian<sup>96</sup>.

Erromantze berberan berriro teknika bera:

—Neuk ba'dakit, ba, Ana Juanixe,  
zeu nundikan zarian,  
zeu nundikan zarian, *eta*  
noren alaba zarian<sup>97</sup>.

Hurrengo kasuan aliterazioak han-hemen (bereziki, *l* urkariarena), errepika hiru kasutara hedatzen duelarik:

Etxeko anderia, jiten niz zugana  
entzunik ba-duzula lili bat xarmanta,  
entzunik ba-duzula lili bat xarmanta,  
lili bat xarmanta eta bihotz bat net<sup>98</sup> ona<sup>99</sup>.

Adibide honetan, gainera, *eta* juntagailuak suposatzen duen progresioaz aparte, goian aipaturiko *anadiplosia* (hirugarren bertsoaren amaiera eta laugarrenaren muturra edo hasera berdinak baitira).

(95) «Kaila kantuz», MEOE 86 or.

(96) «Ana Juanixe», *M. Lekuona. Literatura oral vasca*, 120 or.

(97) «Ana Juanixe», op.c. 123 or.

(98) «Net» = oso, net. gask.

(99) «Aitarik ez dut», MEOE 58 or.

Bestetan bezala, Gaztelako lirikari ikusmira bat egitea probe-  
txugarri daiteke antzeko baliakizun literarioak (erritmo gozoz) falta  
ez direlarik:

Al alba venid, buen amigo,  
al alba venid.

Amigo, el que yo más quería,  
venid al alba del día.

(Amigo, el que yo más quería,  
venid a la luz del día)<sup>100</sup>.

Que si soy morena,  
madre, a la fe,  
que si soy morenita,  
yo me lo pasaré<sup>101</sup>.

Salga la luna, el caballero,  
salga la luna, y vámonos luego.

Caballero aventurero,  
salga la luna por entero,  
salga la luna, y vámonos luego<sup>102</sup>.

(100) *M. Frenk Alatorre*. Lírica española de tipo popular, op.c. 93 or.

(101) *M. Frenk Alatorre*, op.c. 122 or.

(102) *M. Frenk Alatorre*, op.c. 173 or.

Paralelismoak eta errepikak direla-eta, ezin dugu utzi aipatu gabek (bere *primitibotason* liriko xoragarriagatik) Galiziaren aportapen beretza. Olatuak gisa, galizar lirika paralelismo errepikakor elemental-sotiletan galtzen da. Hona bi adibide: «Si sabedes novas de meu amigo, /aquel que mentiu do que pôs comigo? /Se sabedes novas de meu amado, aquel que metiu doa que a mi á jurado? (*M. Frenk Alatorre*, op.c. 58 or.).—«Ai, Sant'Iago, padron sabido, /vós mi-adugades o meu amigo! /Sobre mar ven quen flores d'amor ten; /mirarei, madre, astorres de Geen. / Ai, Sant'Iago, padron probado, /vós mi-adugades o meu amado! /Sobre mar ven quen frores d'amor ten; /mirarei, madre, as torres de Gen». (*M. Frenk Alatorre*, op.c. 58 or.).

Erritmoaren aldetik aipagarriak ere gaztelaniar beste bi zatiok: «Mira que te mira Dios, /mira que te está mirando, /mira que te has de morir, /mira que no sabes cuándo» (*M. Frenk Alatorre*, op.c. 206 or.).—«Llueve, llueve, /palomica verde; /escampa, escampa, escampa, /palomica blanca» (*M. Frenk Alatorre*, op.c. 208 or.).

Ez dugu utzi nahi ere kataluniar textu hau (bestalde, proventzar lirikatik hain huribilekoa): «No.l prenatz lo fals marit,/ *Jana delgada!* / No.l prenetz lo falts jurat, / que pec és, mal enseynat, / *Jana delgada!* / No.l prenatz lo mal marit,/ que pec és e.z adormit, /*Jana delgada!* (*M. Frenk Alatorre*, op.c. 64 or.). Eta probentzial lirikan zortzi ahapalditan hedatzen den *Peire de la Cavarana*-ren bihurkin hau: «Lombart, be.us gardaz, / que ja non siaz /peier que compraz,/ si ferm non estaz» (*M. Riquer*, op.c. 387-390 or.).

Bigarren aldian antitesiak edo kontraezarpenak ukituko ditugu. Baliakizun edo errekurso literario hau (aldian aldiko bortitztasun expresiboa lortzeko) elemendu bata eta bestea kontraezarriz eskuratzentz da. Errepiked bezala, antitesiak expresakerak (expresabide bat denez) bortitztu, intentsifikatu ditzake. Adibidez, «Xori erresinula» kasuan «bera eztüt ikhusten, / bai botza entzüten» delakoan suggestio-indarra areagotuta gelditzen da *ez ikhusten/ bai entzüten* aditzen bitartez.

Hurrengo honetan sentimendu baten barnekoitasun bizia *present/manka* antitetikoen bitartez:

Züntüdan bihotzian, armak oro eskian:  
present espiritian, manka<sup>103</sup>, besuen artian<sup>104</sup>.

Eta hobekigo oraindik beste honetan:

—Ene maitia, zer duzu? zerk holakotzen zaitu zu?  
EZ du denbora luzia zirela penetan sartu...  
Plazeraren ondotik desplazera duzu<sup>105</sup>.

*Plazera/desplazera* (atsegina/nahigabea), kontraezarpen baino gehiago, kera desberdinezko bi jarrera animiko *segidazkoak* dira.

Hurrengoan *plaza* (jostaketa) eta *kanbera* (tristura) bi egoera, antitetiko gisa:

Ene gazte lagunak libertitzen plazan.  
eta ni, malerusa, tristerik kanberan!<sup>106</sup>

*Barnea/kanpoa, bihotza/azala, izpiritua/gorputza* dira gure likan azaltzen diren antitesi nagusienetako batzuk. Hurrengo hiruetan *barnez/ kanpoz, mehe/fina* (azken hau *ez-hauskor* gisa uler-

(103) «Manka» = huts egin, falta; gask. *mancà*, fr. *manquer*.

(104) «Arbotiko prima ejerra», MEOE 52 or.

(105) «Erregek gizon ederrik», MEOE 88 or.

(106) «Goizetan jelkitzen da», MEOE 71 or.

tuta), *hüllant* (hurbil)/ *ürrünago* kontraezarpenak. Bigarren adibidea, seguraski, XVII mendekoa da.

Bihi barnean dauka, oi, hezur gogorra;  
barnez gor, kanpoz eder ta bihotz elkorra<sup>107</sup>.

Hari hura solta ezak bere burduñatik,  
mehe duk, bai, bena fina da biziki<sup>108</sup>.

Botz haren entzün nahiz herratürrik nago;  
ni hari hüllant<sup>109</sup> eta hura hürrünago<sup>110</sup>.

Gaztelako lirikan ohizko erritmo airoso eta bitxiak. Gehienetan lirika hori Proventza-koa baino xume eta bizkorragoa da (hura jantziagoa eta astitsuagoa delarik gortetako eragin aristokratikoga-  
tik).

Una madre que a mí me crió  
mucho me quiso y mal me guardó  
a los pies de mi cama los canes ató;  
atólos ella, desatélos yo,  
metiera, madre, al mi lindo amor<sup>111</sup>

(107) «Nere maite polita», MEOE 77 or.

(108) «Ama batek», in *Gure Herria* (1927) post. 556 or.

(109) «Hüllant» = *hurbil, gertu*, Zuberoko hitza, bustiduraz. Ikus *L. Mitxelena*, FHV, 182, 331 or.

(110) «Xori erresifula», *J. Riezu*, op.c. 297 or.

«Izarra» izeneko kanten *gogorazioa/presentziaren* antitesia maisuki: «Ene maiteak gaur igorri daut/segeretuan mila goraintzi,/gorputzez urrun izana gatik,/ bihotzez dela beti eneki» (*Izarra*), MEOE 94 or.). Eta, baita, berriro *barne/kanpo* eta *eri/alegeraren* kontraezarpena: «Biotzez eri nuzu, kanpoz alegra; / ni ere ez nidauen gauza horren begira» («Oi, penarik ez ba-nu!», MEOE 71 or. Eta oraindik *lo/iratzar* (esnai): «Xamargarria, lo ziradia, /eztitasunez betia? /Lo ba'bazarade iratzar zite, /etziradia loz ase» («Ene maitia, barde nün zinen?», MEOE 88 or.).

Proventzako lirikatik hauek nabarmenaraziko nituzke: «Metge guerrai al mieu albir, / e non sai cau; / bos metges er si.m pot guerir (*sendatu*), mas non (*bainaz ez*), si amau» (*M. Riquer*, 13 or.). «Qué eu soi per vos gais (*alai*), d'ira plas: /iratz (*minduraz*), jauzentz (*pozik*) mi faitz trobar» (*M. Riquer*, 149 or.). «El ris (*barre*) torna.ls pueys en plors (*negarra*)» (*M. Riquer*, 222 or.).

(111) *M. Frenk Alatorre*, Lírica española de tipo popular, op. c. 98 or.

Desde niña me casaron  
por amores que no amé:  
mal casadita me llamaré<sup>112</sup>  
—¿Por qué lloras, moro?

—Porque nací lloro.  
—¿Por qué lloras, dí?  
—Lloro porque nací<sup>113</sup>

Fuérame yo a bañar,  
y no me bañé;  
con el agua de la rosa  
yo me bañaré<sup>114</sup>.

g) *Sinbolismoa eta «atari ilogikoak».*

«Atari ilogikoei» loturiko sinbolismoalk elemendu botanikoak ukituko ditu, bereziki. Bainan botanikatik iritsiriko iruditeria ez da bakarra izanen; badira bestelakoak ere.

(112) *M. Frenk Alatorre*, op. c. 146 or.

(113) *M. Frenk Alatorre*, op. c. 161 or.

(114) *M. Frenk Alatorre*, op. c. 250 or.

Nafarroan ere, erromantzez edo gaztelaniaz, emandakoak guri etzaizkigu indiferenteak, gure hizkuntzaren ukitu geografikoan dagoelarik bertako hego-literatura. Hona antitesiazko adibide batios batzuk: «Tan pequeña y ya bien ama; /tan pequeña y ya bien siente; /tan pequeña y ya con celos /del amor que ya otras tienen» (*Valeriano Ordóñez*. «Alma lírica del pueblo», in *Etnología y Etnografía de Navarra* (1981), 38 zenb. 82 or.). «No habrá gusto sin disgusto, /ni firmeza sin mudanza; /ni un amor que siempre dure /sin alguna desconfianza» (*V. Ordóñez*, art. c. ibidem). «—Yo tenía razón, /ahora ya no lo tengo; /en tantos pedazos tristes /lo dejaste tú deshecho» (*V. Ordóñez*, art. c. 86 or.). «—Ingrata que duermes pronto, /que duermes y no suspiras; /cuando me tuviste amor /suspirabas, no dormías» (*V. Ordóñez*, art. c. ibidem).

Madrigalak, letrilak eta gisakoak utzita, erromantzeetan ere antitesi bortitz baten habeak noizbeinka Gaztelan. «La derrota de don Rodrigo» erromantze famatuauan pasarte adieragarri hauek: «Ayer era rey de España, hoy no los soy de una villa; /ayer villas y castillos, /hoy ninguno poseía; /ayer tenía criados /y gente que me servía, /hoy no tengo una almena /que pueda decir que es mía. /Desdichado fue aquel día /en que nací y heredé /la tan grande señoría...» (*M. Díaz Roig*, op. c. 115 or.).

Lehenengo honetan, berriz, amodioa *txoria* eta *xederaren* (loka-riaren) irudipean emanen da:

Xedera balitz halako  
merkatietan saltzeko,  
Ziberu-ko aitunen semek eros litzazkie oro,  
halako xori ejertto zunbaiten hatzamaiteko! <sup>115</sup>.

«Atari ilogikoen» prozeduraz beste hau ere, denboraren edo al-diaren sugestioa erabiliz <sup>116</sup>.

Buruilaren ondarra... Jondoni Mikele...  
Maitia, ikustera heldu naiz ni ere <sup>117</sup>.

Hor egoera bat, zirkunstantzia bat ebokatzen da, besterik gabe. Hurrengo honetan, bainan, aipaturiko elemendu *botanikoz* hornituriko sinbolismo umotua:

Mendian eder arbola luze lerdena...  
Zu zirade mundu huntan nik maitatzen zaitudana...  
Bisitaturen zaitut ahalik maizena... <sup>118</sup>

Eta gorago osagai begetalez:

Mendiak bete belarrez, begitaraiak nigarrez...,  
orai hemen nagozu tronpaturik <sup>119</sup> miñez... <sup>120</sup>.

(115) «Arbotiko prima ejerra», MEOE 51 or.

(116) Alditasunak (temporalitateak) aparte, kokamen toponimikoak (geografikoak) ere eduki dezake ebokazio indarra, gauzak *tokian* ezartzeak sentimenduen boztitzura (intensificación) suposatzen baitu, perpausa osoari halako errealsmoa itsasiz. Hona aipamen geografiko zenbait (nolabaiteko bi-semi kargaz): «Lekunberri-ko neskatxak, Zuberoa-ra ba-noa; /Zuberoa-ko kolonbak (usoak) deitzen bainau bere gana» («Erregek gizon ederrik», MEOE 88 or.). «Ene herritik partitu nintzan /España-lako desefian; /heldu nindüün Arantsus-era/ene plazeren han galtzera» («Urzo xuria» MEOE 85 or.). «Nahi baduzu zuk igorri etxerat zure berririk, /airian pasatuko niz laster Donazaharretik» («Urzoa», MEOE 92 or.).

(117) «Buruilaren ondarra», MEOE 89 or.

(118) «Erregek gizon Ederrik», MEOE 88 or.

(119) «Tronpaturik» = engainaturik, fr. *tromper*.

(120) «Erregek gizon ederrik», MEOE, ibidem.

«Atari ilogikoetan», esana dugunez, inplizitoa eta ezkutukoa den lotura A eta B maila artean. A mailan —aipamen botanikoen bitartez, nagusiki— sinbolo baten adierazpen sugerigarria, eta B mailan egitate sinbolizatua; nahiz-eta aurre kolpe batean lotura bi maila artean aski ezlogikoa iruditu, bi muturren artean halako ebokaziozko sare-dura dago, batez ere, gaurko estetika «irrazionalaren» ikuspegitik begiratuta. Euskal lirika zaharrak eskaintzen dizkigun teknika eta baliakizun literario horiek gaurko korronte estetikoan klasizismoko garaian baino hobeto ahokatzen dira. Gure literaturaren eskasiaz mintzatu diren erdal kritikari azalekoek badute zer pentsatu gure «atari» sinboliko (naturistiko) hauek direla-eta. Hemengo aldetik gure lirika zaharrak findade estimagarria eskaintzen digu, eta euskal literaturaren alorrean (behin eta berriz esan duguna eutsiz) «lirika zaharra» (anonimoa eta herritarra dena) estimagarrienetzat eduki daiteke, gutienez, XIX mende bukaera arteko autore-produzio eta bertsolaritza gehienari hobetsiz<sup>121</sup>. Gatozen, berriro, textuetara:

Lumarik ederrena pabuak buztanin;  
maitia, etzintüdan ikusi aspaldin;  
gaiaz eta egunaz ba'zintüt enekin,  
ni enainte debeia<sup>122</sup>, maita, zurekin<sup>123</sup>.

Hurrengo honetan A mailan *arrosa*, B mailan *maitea*:

Arrosak eder botia, ederxago du loria...  
Lehen bertzetan ibili eta orai niri gortia?<sup>124</sup>

(121) Gure iritzian, gaitza gertatzen da, bere luze-zabalean, Etxepare, Ziburuko Etxeberri, Axular ala Etxahun baten produzioan *lirika zaharrak* ematen digun nabartasuna, lirikotasun sotila eta sinboloen erabilpen aberatsa aurkitzea. XX mende arte (eta 30 -eko olerkari-belaunaldi arte) gure hizkuntzak ezer gutxi eskain dezake gorenagokorik. Bertsolaritzak, bestalde, nekez aurkez ditzake lirika zaharraren ibilbide estetikoak. Honek guztiak azaltzen du gure «literaturaren» kondaira-liburutan autoreen alde dagoen desoreka nabarmena. Historia horietan lirika tradizionalak hain gune urria edukitzea *desoreka* horren azalpidea da. Akats hori gainditu beharrean gau-de gure hizkuntzaren onerako.

(122) «Debeia» = houdatu, gask. *debeidà*.

(123) «Xarmangarr bat», MEOE 74 or.

(124) «Agur, oi izar maitia!», MEOE 68 or.

Beste honetan, berriz, *iratzea*(garoa) A mailan, *maitea* B mailan:

Landar eder iratze,  
behi ederrak aretxe;  
zü bezalako pollitetarik desir nüke bi seme<sup>125</sup>.

Eta bide berdinetic A mailan *mertxika* eta *jirofleia* (girasol) ezarriz:

—Mertxikaren loriaren ederra!  
Barnian dizu hexurra gogorra;  
gaztia niz, bai eta loriosa,  
eztizut zure esperantza<sup>126</sup>.

Baratzian zuinen eder jirofleia<sup>127</sup> loratu!  
Aspaldian desir niana orai dizut gogatu;  
hura gogatu eztudano gatik gaük eztitzüt mankatu<sup>128</sup>.

Botanikaren arlotik hanpo ere, eman daitezke A/B maila arteko alboratze sinbolikoak. Beraz, natura osoa sinbolo-iturri da. Hurrengo bi kasutan *elurra* eta *lainoa* A mailan *maitasunaren* (B maila) erreferentzian.

Menditik gorenia, hor, eiten du elthurra...,  
tronpatzen zuk ninduzula, banian beldurra;  
izanen badut ere bethikotz malurra,  
halere nahi zinduzket ikusi ardura!<sup>129</sup>

Bortü goretan lanhape<sup>130</sup>,  
hur-bazterretan ahate  
zü bezalako falsietarik eztitzüt nahi deüsere<sup>131</sup>.

(125) «Eijerra zira, maitia», *J. Riezua*, 87 or.

(126) «Intxauspeko alaba», MEOE 76 or.

(127) «Jirofleia» = girasol, errom. *jirefleur*.

(128) «Eguntto batez nindagoelarik», MEOE 78 or. Oraindik botanikaren esparrutik adibide hau: «Primaderan zoinen eder briolearen loria! /Aspaldian nik eztut ikusi neure maitiaren begia; /balinba gaixoak eztu ahantze niri eman fedia» («Kailla kantuz», MEOE 86 or.).

(129) «Pingirina belharra», in *Gure Herria* (1925), post 304 or.

(130) «Lanhape» = lainope, *niebla*.

(151) «Eijerra zira, maitia, *J. Riezua*, 89 or.

Proventza-ko lirika ere naturaz zerbituko da, bainan, ez, agian, gurean duen sugestio-indar xumeaz; «atari sinbolikoen» xarma naturagandik jasotako iruditeria gihartsuan sustraitzen da. Teknika horren bidea zeharo sugerigarria da, eta, nolabait, oso ongi egokitzten da erromantizismoa ezkeroztik poesia modernoan nagusi den korronte «irrazional» ebokatzaileaz. Honetan gure lirika impresionismoaren eta surrealismoaren garaian emanen den bidearekin bat dator... Hona Proventza-ko adibide naturistiko zenbait:

Bel m'es la latz la fontana (*iturri*)  
erba (*belar*) vertz e chant de rana,  
com s'obrei  
pel sablei  
tota nueit fors a l'aurei,  
e.l rossinhol (*errusinula*) mou son chant  
sotz la fueilla el vergant.  
Sotz la flor m'agrada  
dous'amor (*maitasun gozo*) privada<sup>132</sup>.

Non cahnat per auzel (*txoria*) ni per flor  
ni per neu (*elurra*) ni per gelada  
ni neis per freich ni per calor  
ni per reverdir de *prada* (*belardia*)...<sup>133</sup>.

Es resplan la flors anversa  
per trencans *rancs* (*harkaitzak*) e pels *tertres* (*muinoak*).  
Quals flors Neus (*elurrak*), gels e conglapis (*lantzurda*)<sup>134</sup>.

Quan en baizan no.us enverse,  
no m'o tolon plan ni tertre,  
dona, ni gel (*izotza*) ni conglapi;  
mas non-poder trop, me'n trenque<sup>135</sup>.

---

(132) Bernart Martí trobalaria. M. Riquer, op. c. 114 or.

(133) Raimbaut D'Aurenga trobalaria. M. Riquer, 140 or.

(134) Idem M. Riquer, 157 or.

(135) Idem. M. Riquer, 158 or.

Gaztelako lirikan ere isladapen naturistiko sotilak. Pasajea, maiz, mamilura bisemikoz jantzia azaltzen da:

Abenámar, Abenámar,  
moro de la morería,  
el día que tú naciste  
grandes señales había!  
Estaba la mar en calma,  
la luna estaba crecida,  
moro que en tal signo nace  
no debe decir mentira<sup>136</sup>.

Textu honetan, *itsasoaz* aparte, *hilargiak* betiro duen zama bise-mikoa ongi proxitatzen da, gertaera faktikoari halako xarma magiko bat erantsiz. Beste honetan ere ondorio estetiko bera kera paisajistiko profitatuz:

Río Verde, río Verde,  
más negro vas que la tinta.  
Entre ti y Sierra Bermeja  
murió gran caballería<sup>137</sup>.

Eta baita:

Los aires andan contrarios,  
el sol eclipse hacía,  
la luna perdió su lumbre,  
el norte no parecía,  
cuando el triste rey don Juan  
en la su cama yacía<sup>138</sup>.

(136) «Romance de Abenámar», *M. Díaz Roig*. El romancero viejo, op. c. 61 or.

(137) «Romance de Sayavedra», *M. Díaz Roig*, op. c. 75 or.

(138) «Romance del rey don Juan de Navarra», *M. Díaz Roig*, op. c. 79 or.

Eta itsasoak duen sugerigarritasuna bilduz: «Miranda de Campo-Viejo /el rey de Aragón un día, /miraba la mar de España /cómo menguaba y crecía; /miraba naos y galeras, /unas van y otras venían...». (*Ibidem*, 81 or.).

h) *Beste elemendu batzuk.*

Elemendu heterogeneotan gure literaturan egitate erlatiboa duen alderdi zenbait komentatu nahi dugu, adibidez, *komentuaren* islada gure textuetan, eta harekin batera, klaustroak, sareek, lehioek, burdintsareak. Baita aztergarria iturriaren tematika. Ikus dezagun gai zenbait sailkatuz.

ha) *Komentua. Lehioak. Burdintsarea.*

Komentuaren tematika (esana dugunez) gure aurretik nabari Proventza-n eta Gatzela-n. Proventza-ko textuetan oihartzun garbiak (nahiz-eta ez izan ugariak): «Qual pro y auretz, dompna conja, / si vostr' amors mi deslonja? /Par que.us vulhatz metre monja». «Qual pro y auretz s'ieu m'enclostre / e no.m retenetz per vostre».

Gure lirikan komentuaran aipu garbia «Arbotiko prima ejerra» kantan:

Juan baruak aspaldin  
xederak hedatu zütin,  
xori ejer bat hatzaman dizu Paube-ko seroren<sup>139</sup> komen-  
[tin<sup>140</sup>.

Oraindik garbiago «Ama batek» kantaren pasarte sugerigarrietan. Bertan gai nagusia aitak komentuan sarturiko neskatxa maitamindua. Komentua neskari gartzela gisakoa zaio. *Zeta-hariaz* eginiko lokarri batez (eta txoriak gela-leihora ekarritakoaz) mutilak neska komentutik ateraraziko du. Hona textuaren zati batzuk:

Yuan beharra bainiz serora.  
Komentu batetarat betikoz banua...  
Bostgarren estajian<sup>141</sup> dizut ganbera...  
Goizetan goratik hartzen dit hairia...  
Nik badit zeta hari jina Xinati...  
Ezteka'ezazu leio burdunari...  
Erasten ahal zira hora behiti.  
Ni hemen izanen niz zure serbutxari<sup>142</sup>.

(139) «Seroren» = monja, errom. *serora*, lat. *sororam*.

(140) «Arbotiko prima ejerra», MEOE 51 or.

(141) «Estajian» = pisuan, fr. *étage*.

(142) «Ama batek» /«Zeta haria», in *Gure Herria* (1927), post 576 or.

«Maitia nun zira» kantan ere komentuko itxialdia ardatza:

Aita jesloskorra!  
Zük alhaba igorri,  
arauz ene ihesi,  
komentü hartara!  
Ar'eta ez ahal da sarthüren serora:  
fede bedera dügü,  
alkharri eman tügü,  
gaiza segürra da<sup>143</sup>.

Bestalde, *leihoaren* tematika gure kanta zaharretan, eta komentuaz aparte, *errondako* abesti xumetan. Hona adibide zenbait:

—Nor da edo zer da? —maitenak leioti,  
—Adixkideak gira, ziaudea beheiti;  
eta borta ideki emeki, emeki,  
mintza ahal zitzadan ahalaz'sekretki<sup>144</sup>.

Hemen ez ahaz Proventza-ko lirikan «segeretuaz» azaltzen den, tematika berezia (Etxeparek hain ongi jasoa), *mesturarien* (mesturero) egitekoa sekretu horiek desestaltzea zelarik.

Oi, ene bihotzeko lili haitatia,  
ene botza entzunik leuan zaudia?  
Aspaldin enereizün ikusi begia;  
barnerat sar nadin indazüt eskia<sup>145</sup>.

